

DONOSTIAKO
(DONOSTIALDEA – BIDASOA BEHEREA)
EREMU FUNTZIONALEKO
LURRALDE PLAN PARTZIALA

2016

3. LIBURUKIA

F. DOKUMENTUA
INGURUMEN INPAKTUAREN BATERAKO EBALUAZIOARI
BURUZKO AZTERLANA

F. Dokumentua

INGURUMEN INPAKTUAREN BATERAKO
EBALUAZIOARI BURUZKO AZTERLANA

F. DOKUMENTUA. INGURUMEN INPAKTUAREN BATERAKO **EBALUAZIOARI BURUZKO AZTERLANA**

-AURKIBIDEA-

1.- SARRERA	1
2.- PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK, ETA HAREN EZAUGARRI ETA EDUKI NAGUSIAK DESKRIBATZEA	6
2.1.- LURRALDE PLAN PARTZIALEKO INGURUMEN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK. ERREFERENTZI DOKUMENTUKO 2.4 ATALEAN AIPATUTAKO IRIZPIDEEN BETETZEAREN ZEHATZTEA	6
2.2.- PLANAREN JARDUN ESPARRUA ETA DENBORA HEDADURA DESKRIBATZEA	12
2.3.- PLANAREN HELBURUAK ETA INGURUMEN IRIZPIDEAK	13
2.4.- KONTUAN HARTUTAKO HAUTABIDEAK. HASIERAKO IRIZPIDEAK	14
2.5.- PLANAREN PROPOSAMEN OROKORREN LABURPENA	15
2.6.- ARTEZPIDEAK ETA HIERARKIA MAILAZ GORAGOKO PLANAK KONTUAN HARTZEA HELBURU DUTEN ZEHATZTAPENEN LABURPENA.....	17
2.7.- INPAKTUAK ERAGIN DITZAKETEN JARDUNEN IDENTIFIKAZIOA	18
2.8.- PLANA GAUZATZEKO FASEAK.....	19
2.9.- HAUTEMAN DIREN INFORMAZIO HUTSUNEAK.....	20
2.10.- HERRITARREN PARTE HARTZEA.....	21
3.- LURRALDE PLAN PARTZIALAK BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIN DUEN ELKARRERAGINARI BURUZKO AZTERKETA	23
3.1.- HIERARKIKOKI SUPERIORRAK DIREN PLANAK ETA LEGERIA INTERAKZIOAREKIN LURRALDE PLAN PARTZIALAREKIN	23
3.2.- AZTERLANAREN ESPARRUAN ERAGINA DUTEN BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUK IDENTIFIKATZEA.....	28
3.2.1.- LURRALDE ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK ETA LURRALDE ARLOKO PLANAK	28
3.2.2.- GARAPEN IRAUNKORREKO EUSKADIKO INGURUMEN ESTRATEGIA (2002-2020). INGURUMEN PROGRAMA MARKUA (2011-2014)	29
3.2.3.- NATURA BABESTEKO LEGEA	30
3.2.4.- NATURA SAREA	31
3.2.5.- LURRALDE PLAN PARTZIALEAN KONTUAN HARTUTAKO GAINONTZEKO LANAK ETA PLANAK	32
3.2.6.- UDAL PLANEAGINTZA.....	33

4.- LURRALDE PLAN PARTZIALAK ERAGINDAKO ESPARRUARI BURUZKO AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA 35

4.1.- AZTERLANAREN ESPARRUA.....	35
4.2.- INGURUNEAREN DESKRIBAPENA	36
4.2.1.- KONTUAN HARTUTAKO ALDERDIAK	36
4.2.2.- KLIMATOLOGIA	36
4.2.3.- GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA	39
4.2.4.- EDAFOLOGIA	44
4.2.5.- HIDROLOGIA	49
4.2.6.- LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK	57
4.2.7.- FAUNA.....	65
4.2.8.- PAISAIA	71
4.2.9.- KULTURA ONDAREA.....	76
4.2.10.- HIRI GARAPENA.....	79
4.2.11. AIREAREN KALITATEA	80
4.2.12. ZARATA.....	81
4.2.13. ARRISKU NATURALAK: UHOLDEAK.....	82
4.2.14. LURZORU KUTSATUAK.....	83
4.3.- BALIO HANDIKO INGURUMEN BALIABIDEAK	85
4.4.- INGURUMEN UNITATE HOMOGENEO INTEGRATUEN DEFINIZIOA. BALORAZIOA	87
4.5.- ONDORIOAK ETA INGURUNEARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA	88

5.- PLANEAN KONTUAN HARTUTAKO ANTOLAMENDU HAUTABIDEEI BURUZKO INGURUMEN EBALUAZIOA 90

5.1.- BALDINTZA OROKORRAK.....	90
5.1.1.- ALDEZ AURRETIKO ARLOA	90
5.1.2.- INGURUMEN FISIKOAREN BABESIK HANDIAGOA LORTZEKO EREMUEN Kuantifikazioaren azterketa orokorra lurralde plan partzialaren zehaztapenen aplikazioen oinordiotzat	90
5.1.3.- LURRALDE PLAN PARTZIALAREN GARAPEN HORIZONTEKO HIRIGINTZA EDO/ETA AZPIEGITURA OKUPAZIO BERRIAK JASATEKO GAI DIREN EREMUEN Kuantifikazioaren azterketa orokorra.....	91
5.2.- HARTUTAKO HAUTABIDEAK	93
5.3.- EZ ESKU HARTZEKO AUKERAREN INGURUMEN EBALUAZIOA.....	94
5.4.- HAUTABIDEAK BALORATZEKO INGURUMEN IRIZPIDEAK.....	95
5.5.- PLANEAN AURREIKUSTEN DIREN ANTOLAMENDU ALTERNATIBA NAGUSIEN DESKRIBAPENA ETA BALORAZIO OROKORRA.....	96
5.6.- KONTUAN HARTUTAKO ALTERNATIBEN INGURUKO IRITZIAK	103

5.7.-	KONTUAN HARTUTAKO HAUTABIDEEN INGURUMEN EGOKITASUNA JUSTIFIKATZEA	104
6.-	INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA	105
6.1.-	LURRALDE PLAN PARTZIALAREN HELBURUEK IZAN LITZAKETEN INGURUMEN ONDORIOEI BURUZKO AZTERKETA	105
6.2.-	INPAKTUAK IDENTIFIKATU ETA BALORATZEA	110
6.2.1.-	AURRETIAZKO IRITZIAK	110
6.2.2.-	INPAKTUAK IDENTIFIKATU ETA BALORATZEA.....	111
7.-	NEURRI BABESLEAK ETA ZUZENTZAILEAK	138
7.1.	LURRALDE PLAN PARTZIALAK EZARRITAKO PREBENTZIOZKO NEURRIAK	139
7.2.	LURRALDE PLAN PARTZIALA GARATZEKO DOKUMENTUETARAKO (PLAN BEREZIAK, UDAL PLANGINTZA, ETAB.) INGURUMEN GIDALERROAK	143
7.3.-	AURREKO KAPITULUAN EGINDAKO EBALUAZIOAN ATZEMANDAKO INPAKTUEKIN LOTUTAKO NEURRI BABESLEAK ETA ZUZENTZAILEAK.....	149
7.4.-	DESKRIBATUTAKO NEURRIAK BETETZEAREN ETA HAIEN ERAGINKORTASUNAREN JARRAIPENA EGITEKO ADIERAZLEAK	152
8.-	PLANAREN ONDORIOEI BURUZKO INGURUMEN IKUSKAPENEN PROGRAMA	153
8.1.-	KONTROLAREN HELBURUAK	153
8.2.-	JARRAIPENAREN XEDE DIREN INGURUMENEN SISTEMAK, ALDERDIAK ETA ALDAGAIK IDENTIFIKATZEA.....	154
8.3.-	ADIERAZLEAK FINKATZEA	155
8.4.-	IKUSKAPEN PROGRAMA	159
8.5.-	MUGA MAILAK EDO ERREFERENTZIAKOAK FINKATZEA	160
9.-	LABURPEN DOKUMENTUA	161
9.1.-	KOKAPEN OROKORRA	161
9.2.-	LURRALDE PLAN PARTZIALAREN ETA BERE IIBE-REN IZAPIDE KOKAPENA.....	162
9.3.-	LURRALDE PLAN PARTZIALAREN PROPOSAMEN NAGUSIAK.....	165
9.4.-	GAUZATUTAKO INGURUMEN EBALUAZIOAREN SINTESIA	166
10.-	DOKUMENTAZIO GRAFIKOA	170

1.- SARRERA

Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren bideratzea 2002. urte-bukaeran hasi zen Aurrerapenaren aurkezpenarekin eta 2003ko martxoan informazio publikoaren bideratzeari ekin zitzaion.

Informazio publikoaren garaiaren amaitzea eta irizpideen 39 idazkien entregatzea une berean gertatzean Lurralde Plan Partzialaren lanak atzeratu egin ziren 2003ko abendu arte, hain zuzen ere, Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari Buruzko Azterlana landu zen data. Geroago, 2004tik 2007ra Lurralde Plan Partzialaren lanak geldirik egon ziren.

2008an Euskal Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritza nagusiak Lurralde Plan Partzialaren bideratzea jarraitu zuten Irizpideen, Helburuen eta Ebazpen Orokorren Dokumentuak landuz eta, une berean, 2008ko Otsailaren 19an ingurune bideratzearen argibide-eskaerei hasiera eman zitzaion, erabakitakoa adostuz nola Apirilaren 28ko, 9/2006 Estatu Legearen 9. artikuluan zenbait programa eta planek ingurugiroan duten eraginen ebaluaketaz esaten denarengatik, hala uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak 6. artikuluan ingurune-inpaktuaren osoko prozedura aipatutako “erreferentziko dokumentuaren” emanaldien ondorioak erregulatzen direlako, azken hau autonomi erkidegoko eremuan.

Ingurumen sailburuordeak, 2008ko irailaren 24ko ebazpenaren arabera, “Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko azterlanaren erreferentzi dokumentua” egin zen.

Aipatuko erreferentzi dokumentuaren eta Lurralde Plan Partzialaren edukien argibideen arabera, jarraian azaltzen den Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Ingurumen Inpaktuaren ebaluazioari buruzko azterlanaren argibide-eskaeren dokumentua bere hasierako onarpenarentzat idatzi zen. Horrela, 2010eko uztailaren 16an hasiera batean Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala, aldi berean idatzitako IIBEarekin, Ingurumen, Lurralde Planifikazio, Nekazaritza eta Arrantzako Eusko Jaurlaritzako Sailburuaren Ordenaren bitartez onartu izan zen.

2010eko abuzturen 16an Gipuzkoako Diputazio Foralaren Diputatuen Kontseiluak, Higikortasun eta Lurralde Ordenazioko Diputatu Foralaren proposizioz, Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren hasierako onapernari itsaspena manifestatzea akordatu zen.

Lurralde Plan Partzialaren adierazitako hasierako onapernaren ondoren, informazio publiko eta audientziako periodo bat ireki zen interesaturik zeuden administrazioentzako, zeina dagokion luzapenen ondoren, 2011ko urtarrilaren 20an bukatu zen. Informazio publikoko prozesuaren emaitza gisa, erantzun epea luzatzeko eskatzen zuten 4 alegazio alde batera utziz, alegazio 90 idatzi, horitatik 79 epe barruan eta beste 11k epez kanpo, jaso ziren.

2011ko maiatzean, "Alegazioen Edukien Analisia" izeneko dokumentua landu zen. Dokumentu horretan lehen ebaluazio bat egin zen jendaurrean erakusteko prozesuaren ondorioz Lurralde Plan Partzialari planteatutako gaien inguruan.

2011ko maiatzeko udal- eta foru-hauteskundearen eta 2012ko urriko hauteskunde autonomikoen ondoren, eta 2011n jasotako alegazioak aztertuta, Lurralde Plan Partziala berraztertzeko prozesua hasi zen, lurraldea antolatzeko haren proposamenekin lotuta. Prozesu horren emaitza izan zen hasiera batean onartutako proposamenarekiko zenbait aldaketa sartzea. Hala, beste alegazio-fase bat errazteko eta izapidean gardentasuna ziurtatzeko, aldatutako proposamena berriz ere hasierako onarpenaren mende jartzea erabaki zen. Logikoki, prozesu honek 2008ko irailaren 24an Ingurumen Sailburuordeak "Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Ingurumen Inpaktu osoaren Ebaluazio Dokumentuaren Erreferentzia"-n formulatutako eta 2012ko ekainaren 12an Ingurumen Sailburuordeak eta Lurralde Antolamendu Zuzendaritzaren bitartez bultzatutako "Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partzialaren ingurumen inpaktuaren aurretiko txosteneko" irizpideen arabera IIBEan erreformatutako dokumentu berri bat idaztea eskatzen du.

Dokumentu honek jasan beharreko prozedura, urriaren 16ko, 211/2012ko Behin Behineko Xedapen Dekretuko aplikazioan zehaztuta dago, zeina ingurumen plan eta programa estrategikoen ebaluazio prozesua erregulatzen duen eta hurrengo gehitzen duelarik:

"BEHIN BEHINEKO XEDAPENA.-Indarrean dagoen oraingo Dekretuko sarrerari aurretiazkotasunez onartutako plan eta programak. Indarrean dagoen oraingo Dekretuko sarrerareri hasierako onarpen edo administrazioeko lehenengo onarpen baten objektu izan diren plan eta programak, uztailaren 22ko, 183/2003 Dekretuan ezarritako prozesuaren araberean menpe gauzatuko dira, zeina ingurumen inpaktuaren ebaluazio osoaren prozesua erregulatzen den."

Kasu honetan gainera, Lurralde Plan Partzialaren edukiaren modifikazio bat aurreikusita dagoenez, Dekretu berdinarekin 7.4 artikulua ere aplikagarria da, zeina honako hau esaten duen: Bigarren apartatuan (informazio publikoa, audientzia eta bestelako txostenak) izendatutako tramiteen emaitzen ondorio, planeko dokumentuetan modifikazioen bat gauzatu beharko balitz, Ingurumen Inpaktu Osoaren Ebaluazio Ikerketako edukieran egokipen bat egin beharko litzateke modifikazio horren arabera.

2015eko martxoaren 27an hasierako onarpenerako agindua eman, eta berori martxoaren 30eko EHAA, apirilaren 10eko GAO eta maiatzaren 23ko BOEn argitaratu ondoren, honako izapidetze- eta partaidetza-egintza hauek gauzatu ziren:

- 2015eko apirilaren 15ean, herritarrei irekitako deialdian, Lurralde Plan Partzialaren dokumentua EHUKo Carlos Santamaria Donostiako ikastegian aurkeztu zen.
- 2015eko maiatzean, azpieskualdetan elkartutako udalekin bilerak egin ziren: maiatzaren 7an, Urumearen azpieskualdeetan bildutako udalekin (Andoain, Astigarraga, Hernani) eta Oria behekoan bildutakoekin (Usurbil, Lasarte-Oria, Donostia); eta, maiatzaren 8an, Txingudiko azpieskualdeetan (Hondarribia, Irun) eta Oarsoaldekoetan (Errearteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia) bildutakoekin.
- Ahalik eta parte-hartze handiena sustatzeko asmoz, dokumentuari hasierako onarpena eman ondoren, jendaurrean jakinarazteko epea zabaldu zen alegazioak aurkezteko, bai administrazio publikoen aldetik, bai herritar eta agente interesdunen aldetik. Hala, epea irailaren 15etik azaroaren 15era luzatu zen.
- Jendaurreko erakustaldian eta administrazioei entzuteko aldian, guztira 58 alegazio-eredu jaso ziren, eta Lurralde Plangintza eta Hirigintza Sailak horiek aztertu eta baloratu zituen.
- Aurkeztutako alegazioak xehetasunez aztertze asmoz, honako bilera hauek egin ziren Eremu Funtzionaleko udal bakoitzarekin eta Pasaia Portuko Agintaritzarekin ere: 2016ko urtarrilaren 26a (Hernani, Astigarraga eta Oiartzungo udalak), urtarrilaren 28a (Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbilgo udalak), urtarrilaren 29a (Irun eta Hondarribiko udalak), otsailaren 2a (Errearteria, Lezo eta Pasaia udalak) eta otsailaren 3a (Donostiako Udala eta Pasaia Portuko Agintaritza).

- Bestalde, erantzun eta kontuan hartzeko asmoz, jasotako txosten sektorial hauek aztertu ziren:
 - Sustapen Ministerioa. Garraio Idazkaritza Nagusia. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
 - Sustapen Ministerioa. Estatuko Portuak.
 - Industria eta Energia Ministerioa. Telekomunikazioetako eta informazio-gizarterako Estatuko Idazkaritza. Telekomunikazioetako eta informazio-teknologietako Zuzendaritza Nagusia.
 - Defentsa Ministerioa. Defentsa-azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia.
 - Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Ingurumeneko Estatuko Idazkaritza. Itsasertz eta itsasoaren iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia.
 - Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
 - Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua. Bide-azpiegituren Zuzendaritza.
 - Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Uraren Euskal Agentzia (URA).
 - Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Euskal Herriko Ingurumen Batzordea.
 - Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Euskadiko Garraio Agintaritza.
 - Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Landaberri.

Aurkeztutako alegazioak eta txosten sektorialak aztertu eta baloratu ondoren, dokumentu bat elaboratu zen non 2015eko martxoaren 27an hasierako onarpena lortu zuen dokumentuarekiko sartutako aldaketak jaso ziren.

Behin-behineko onarpena 2016ko martxoaren 3an ezarri ostean, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena. 2016ko maiatzaren 6ko datarekin, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Kontseilariordetzak "Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partziararen Ingurumen Inpaktuaren behin betiko txostena" osatzeko erabakia igorri du. Hori horrela, ondorengo sektore-txostenak jaso dira:

- Sustapen Ministerioa. Garraio Idazkaritza Nagusia. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
- Sustapen Ministerioa. Estatuko Portuak.

- Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Ingurumeneko Estatuko Idazkaritza. Itsasertz eta itsasoaren iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia.
- Defentsa Ministerioa. Defentsa-azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia.

Informe hauek aztertu eta baloratu ondoren, 2016ko martxoaren 3an onartutako dokumentuaren testu bateratua elaboratu zen; Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari behin betiko onar zezan helarazi aurretik.

2.- PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK, ETA HAREN EZAUGARRI ETA EDUKI NAGUSIAK DESKRIBATZEA

2.1.- LURRALDE PLAN PARTZIALEKO INGURUMEN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK. ERREFERENTZI DOKUMENTUKO 2.4 ATALEAN AIPATUTAKO IRIZPIDEEN BETETZEAREN ZEHAZTEA.

- “Jada artifizializatutako lurzoruen erabilerari lehentasuna ematea, bereziki nekazaritzako lurzorua eta lurzoru naturala zainduz” irizpidea betetzen da Lurralde Plan Partzialean, barne hirigintza birmoldaketa eremuen etorkizuneko hirigintza eta azpiegiturak batzeko neurri konkretuen bidez, hala nola Pasaiaiko badia, Iruneko trenbide gunea eta Lasarteko kotxera eta Andoaineko Bazkardoko zaharkitutako guneen birmoldaketa, industrialetik egoitzetara, besteak beste. Era berean, Zabalaga, Lau-Haizeta eta Usategietako Hirarteko Landa Parkeak eta Mendizorrotz-Igeldo, Ulia-Bocana, Guadalupe-Higuer, Leitzaran, Urumea, Listorreta-Landarbaso, Ergoien-Arditurri eta Ibarla-Meakako Hiri inguruko Landa Parkeak sortu dira, nekazaritza eta natura lurra eremu funtzionaleko gune garrantzitsuetan babesa bermatzen dutelarik. “Balio Estrategiko Altuko Area”-etan Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean adierazitako neurri zuzentzaile eta konpensatzaile gisa Sortutako Nekazaritza eta Abeltzaintza Eremu Estrategikoek ere egingo dute.
- “Gizakiarengatik landutako lurzoruen berreskuratzeari lehentasuna ematea lurzoru ez urbanizagarri gisa birkalifikatu baino lehen” irizpidea betetzen da Lurralde Plan Partzialean, barne hirigintza birmoldaketa eremuen etorkizuneko hirigintza eta azpiegiturak batzeko neurri konkretuen bidez, hala nola Pasaiaiko badia, Iruneko trenbide gunea eta Lasarteko kotxera eta Andoaineko Bazkardoko zaharkitutako guneen birmoldaketa, industrialetik egoitzetara, besteak beste.
- Lurralde Plan Partzialean “100 urtetako periodoko itzultze arriskua duten areetan hiribideen aurrean, hauen lur ez urbanizagarrien okupazioa saiheste”ko irizpidea betetzen da, Ekialdeko Kantauriko Plan Hidrologikoari eta sortutako Oria, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa-Jaizubia Ibaien Korridoreen eta EAeko Erreken Antolamendu Lurralde Arloko Planeko lehenengo modifikazioko proposamenak jarraituz eta Lurralde Plan Partzialaren Memoriako 5.1 epigrafean eta Arautegiko 15 eta 16 artikulua jarraituz.

- “Motorrik gabeko mugikortasuna eta garraio publikoaren sustapena” irizpidea betetzen da Lurralde Plan Partzialean, Hiriarteko Oinezkoen eta Bizikleta Sarea sortuz, Memoriako 4.3 epigrafean eta 3. eta 3.1 planoan zehaztua eta Lurralde Plan Partzialaren Arautegiko 14. Artikuluan araututa dagoelarik.
- “Energia aurrezte, energia berriztagarrien eraginkortasun energetikoa eta erabileraren sustapena” irizpidea betetzen da Lurralde Plan Partzialean, dagozkion hamahiru udalerrien Hirigintza Antolamendu Plan Orokorra, Lurralde Plan Partziala eta Estrategia Eremuen Integratutako Antolamenduaren Plan Bereziak igorritz, non energia aurrezte, energia berriztagarrien eraginkortasun energetikoa eta erabilera, arkitektura bioklimatikoa indartzea eta hiri hondakinen gutxitzea eta balioztatzearen zehaztapenak kontuan hartuko diren.
- “Babespeko Natura-guneetatik kanpo dauden eremuek babes nahikoa eta horiek lotura eta koherentzia izatea, dibertsitate biologikoaren galera gelditzeko” irizpidea betetzen da Lurralde Plan Partzialean, “landa habitata bermatzea babes bereziko lurzoruen edota hiri inguruko gune berdeen” gune unitate handien kategoria sortuz, banaketa eta konfigurazioarekin, Babespeko Natura-guneetatik kanpo dauden eremuen babesa, lotura eta koherentzia handitu eta biodibertsitatea hobetzen duten korridore ekologikoen sarea bermatuz.
- “Azpiegitura handien bateragarritasuna, Natura Sarea 2000, korridore eta paisaiekin” bermatzearen irizpidea betetzen da Lurralde Plan Partzialean, IIBEren azterlaneko 8.1 eta 8.2 planoan grafikoki garatutako ingurugiro baliabide baliotsu ezberdinen kartografiatutako esparruetako azpiegitura edota hirigintza garapen berriaren eta inguru fisikoaren babesaren proposamen nagusiaren burutzean egiaztatzen den bezala. Komunikazio linealen azpiegitura handiek babestutako eremuak eta gune sentikorrek zeharkatzen dituzten kasuetan tunel edota zubibideak aurreikusi dira.
- “Lur azpiko nahiz azaleko ur kontinentaletan, ur-azpitan, ibilguetan, ur-bazter edo ertzetan, tarteko uretan edo itsasertzeko ura babesteko neurri egokiak ezartzea, lehentasuna emanez ura eta haren ingurunea babestu, begiratu eta lehengoratzeari, lurraldea eta hirigintza antolatzeko planetan eta tresnetan; sortzen diren eskariak aurreikusi eta eskari horiek ingurumenari kalte handirik egin gabe asetzeko baliabide teknikoak eta diru iturrien” irizpideak betetzen dira Lurralde Plan Partzialean, lurralde antolamenduaren ondoko zehaztapen hauek hartuz:

- “Natura edota basoen babes bereziko lurzoruen” eta “hiri inguruko gune berdeen edota landa habitatak sendotzeko babes bereziko lurzoruen” babes berezia edota handiena duten esparruen mugatzea, lurrazpiko urak ez kutsatzea eta birkargatzea babesten du, estolderien prozesu kaltegarrien baso masa modulatzailleak babestea laguntzen du, itsasertzaren babesa eta antolamenduaren Lurralde Plan Sektorialean barneratutako kostaldeko guneen ingurumen zaintzaren arau orokorrak berresten dira eta Gune Hezeen Lurralde Plan Sektorialeko III Taldean atxikitutako sakabanatutako hezegune txikien babesa bermatzen da.
- “Ibai korridoretzat” definitutako Lurralde Plan Partzialeko lau esparruen konfigurazioa, non uholdeak aurreikusteaz gain ubide, urbazter eta ibarren ingurumen babesa eta hobekuntza indartzen den, indarrean dauden Ekialdeko Kantauriko Plan Hidrologikoaren arautegia eta Ibai eta EAEko Erreken Lurralde Arloko Planeko lehenengo Modifikazioaren arabera zehazki betetzen delarik.
- Indarrean dagoen Ekialdeko Kantauriko Plan Hidrologikoaren arautegia eta Ibai eta Erreken urbazterren Lurralde Plan Sektorialaren Antolamenduaren lehenengo Modifikazioaren igortzea, eremu funtzionalako gainontzeko ibaibideen erregulazio eta zehaztutako babeserako.
- Drainatze arazoen azterketa integralaren menpe dauden goiko arro txikien eta bailara nagusien alboko arro-azpiko multzoen mugaketa zehatza.
- Txingudi, Añarbe eta Ibiurko uren hornidura eta banaketa sistemen hobekuntzaren esku-hartze konkretu sorten proposamena (Urumeatik ponpatu, goiko depositu berriak).
- “LAZan ezarritako mailaketan oinarritutako ingurumen fisikoaren antolamendua ezartzearen” irizpidea betetzen da Lurralde Plan Partzialean, lau espazio-unitate handiren antolamenduaren bitartez, eremu funtzionalaren lurralde multzoa globalki egituratzen dutenak, udal plangintza orokorrari dagozkion dokumentuek aurrerago udalerrri bakoitzeko lurralde multzoaren izendatze konkretua zehaztuko dute, LAZko ingurumen fisikoaren antolamendurako kontuan hartutako lurzoru kategoria ezberdinen arabera zehaztutako bereizketari joaz.

Zehazki Lurralde Plan Partzialean ezartzen den erreferentzia taula ondorengo da:

- “Babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzorua”

LAZko ingurumen fisikoaren antolamenduko “Babes berezia”, “Ingurumen-hobekuntza” eta/edo “Basogintza” kategoriei dagozkienak.

- “Landa habitata eta/edo hiri inguruko esparru berdeak finkatzeko babes bereziko lurzorua”

LAZko ingurumen fisikoaren antolamenduko “Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko zona” kategoriei dagozkienak.

- “Ibai korridoreak”

“Lur gaineko urak babestea” LAZko kategoriari atxikita daude, Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko eta Inguru Hezeak Babesteko Lurralde Plan Sektorialeko eta Ekialdeko Kantauriko Plan Hidrologikoko zehaztapenen aplikazioaren gainontzeko esparruetatik eratorritakoekin osatu beharko dena.

- “Hiri-inguruko landa-lurzorua”

Egungo hirigintza-garapeneko eremuen inguruetan kokatutako lurralde-esparruak, landa-habitata eta ingurune naturala nagusitzen direnekoak, kontuan hartu gabe onartuta dagoen edo bideratzen ari den hiri-plangintzan kasu batzuetan lurzoru urbanizagarri gisa barne hartu diren ala ez. Lurralde Plan Partzialean espazio-erabilgarritasuneko eremutzat jotzen dira.

Izatekotan, bereziki zehazten da Lurralde Plan Partzialean lurzoru kategoria guztientzat gainezarritako baldintzatzailerik bezala gehitu direla onartutako arautze eta kudeaketa plangintza guztiak, beste batzuen artean garrantzia bereziko ondoko eremu hauek barneratzen dituelarik: Leitzaraneke Biotopoa, Aiako-Harria Parke Naturala, Txingudiko Eremuko Baliabide Naturalen Babes eta Antolamenduaren Plangintza Bereziaren esparrua, Uliako Labarrak (KGT Uliarekin baterakidea), Adarra-Usabelartza, Mendizorrotzeko errekek, Atxulondo-Abaloiz, Oria Ibaiako padurako enklabeak (KGT Oriako Ibaiarekin baterakideak), Bidasoako padurak eta terrazak (KGT Txingudi-Bidasoarekin baterakidea), Jaizkibel mendia (KGT Jaizkibelekin baterakidea) eta Itsasertzeko Lurralde Plan Sektorialeko babes bereziko eremuak. Era berean, indarrean dauden Lurralde Plan Sektorialeatik eratorritako araubide guztiak eragileak dira: Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala, Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala, Itsasertza Babesteko eta Antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala eta Nekazaritza-Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.

Beraz, ondorengo zehaztapen positiboak gehitu dira Lurralde Plan Partzialean:

- Lurralde Plan Partzialean ez dira saihesten, baizik eta bete egiten da LAZko urbanizagarria ez den lurzoru kategorizazioaren lana.
- Donostiako eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean bete egiten da ingurumenaren babesaren garrantzia bereziko irudiak garatu diren esparruen ingurumen fisikoaren antolamendua (Parke, biotopo, KBE, etab). Horretarako, "Babes Naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzoruak" kategoria bakarrean zabaldu da lurralde esparru guzti hori, non Lurralde Plan Partzialak erabateko esku-hartzea duen edozein hirigintza garapen eragotziz.
- Era berean, zehazki eragiten du Lurralde Plan Partzialak orain arte gutxi araututako arlo batean, nekazaritza munduaren babesari dagokiona, LAZko ingurumen fisikoarena baino tratamendu erradikalagoa duen kategoria berri bat gehituz (Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabalaren antzekoa). Puntu honek ekarpen positiboa dakar, sektorearen kezkak argitzen ditu eta konkretuki nekazaritza administrazioarenak, batez ere, Nekazaritza eta Abeltzaintza Eremu Estrategikoak definitzen dituelarik.

Indarrean dauden araubide guzti hauen kartografia islak, gainjarritako baldintzatzailetzat gehituak Lurralde Plan Partzialean, IIBeko azterlanaren mapetan lan eskala egokian zehazten da, baina ez da Lurralde Plan Partzialaren kartografiara aldatuko beharrik gabe ez gainkargatzeko, beste gai batzuetan hirigintza arautzearen zehaztasunek Udal-planera jo egiten dute edo mugikortasun sarearen edo komunitate ekipamendu orokorreko sistemen elementu nagusien definizioek edo zerbitzuen azpiegituren sareek dagozkien sektorekako dokumentazioetara.

Zentzu berean, Lurralde Plan Partziala lurralde dokumentazio sostengu batekin ez nahasteko, Lurralde Plan Partzialaren kartografian mapa bihurtzea saihestu da, antolamendurako zehaztapen gehiegiko erabakiak kontuan hartzea ordea ez, Inguru Hezeen Lurralde Plan Sektorialetako III Taldeko hezeguneak kutsatutako lurrak, Itsas-Lehorreko Publikoko Domeinua (ILPD) eta Uren Publikoko Domeinua (UPD) eta bere babeseko mendekotasuna, akuiferoen ahultasuna, edo babestutako zuhaitz bereziak bezala.

- “Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian eta Ingurumen Esparruko Programa barneratutako ingurumen irizpide estrategikoak” kontuan hartu eta bete egin dira Lurralde Plan Partzialean, oraingo IIBeko azterlanaren ingurugiro zehaztasun handiagoko edukiekin planteatutako lurralde antolamenduaren zehaztapen eta proposamen ezberdinen kontrastean, Lurralde Plan Partzialeko memoriaren irakurketan eta planoen analisisian oso argi islatuz jarrera metodologiko hau.
- “Lanen burutzean zehar hirigintzarentzat interesgarri eta teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak izanik ebaluatu diren lurralde antolamendurako aukerak” bakarrik planteatu dira Lurralde Plan Partzialean, hasiera batean ezegokiak edo garrantzia gutxikoak izateagatik baztergarriak diren antolamenduen aukeren adierazpena ekidinez eta izatekotan, burokrazia administratibo prozesua betetzeko helburu bakarrarekin aurkeztuak.

2.2.- PLANAREN JARDUN ESPARRUA ETA DENBORA HEDADURA DESKRIBATZEA

Planaren jardun-esparrua bat dator Donostiako Eremu Funtzionalarekin (Donostialdea-Bidasoa Beherea), EAE osorako Lurralde Antolamendurako Artezpideetan ezarritako lurralde-azpibanaketaren arabera.

Planaren denbora-hedadura 16 urteko mugarako dimentsionatu da, EAEko gainerako Lurralde Plan Partzialak prestatzeko prozesuarekin koordinatuta.

Donostiako Eremu Funtzionalak honako udalerri hauek biltzen ditu: Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil. Guztira hamahiru udalerri dira. LAAetan, "Donostiako Eremu Funtzionala" izendapen ofiziala du.

Donostiako Eremu Funtzionalak 376 km²-ko hedadura du. Lurralde horretan, 400.000 biztanle baino zerbait gehiago daude. Beraz, populazio trinkoko lurraldea da (1.000 biz./km² baino gehiago), giza kokaleku izateko baldintza bikainak betetzen dituena: klima epela, edertasun handiko paisaia eta kokapen geografiko estrategikoa (Europako komunikabideen nahitaezko pasagunea).

2.3.- PLANAREN HELBURUAK ETA INGURUMEN IRIZPIDEAK

Ingurumenaren berariazko ikuspegitik, Donostialdea Bidasoa Behereako Lurralde Plan Partzialaren antolamendu-proposamenak garatzeko, oinarrizko bi helburu ezarri dira; alde batetik, baliabide naturalak garapenerako muga izatea, haren garrantziaren arabera, eta, horrenbestez, Lurralde eremu jakin batzuetan garapen edo jardun jakin batzuk aurrera ez eramateko aukera egotea; eta, bestetik, horietako baliabide natural asko aktibotzat hartzea. Baliabide horiek zaintzea ez da zertan garapenarekin bateraezina izan, baina, garapenerako baldintzatzaile izan daiteke eta, ondorioz, lurzoruaren okupazio-ereduari muga jakin batzuk ezar diezazkioke. Laburbilduz, baliabide naturalen iraunkortasuna garapenarekin bateragarri egiteko irizpide orokorra da abiapuntua.

2.4.- KONTUAN HARTUTAKO HAUTABIDEAK. HASIERAKO IRIZPIDEAK

Lurralde Plan Partzialak helburutzat du Eremu Funtzionalarentzat LAAek planteaturiko lurralde ereduaren identifikazio eta garapena, eta ondorioz, ez du lurralde eredu posible alternatiboen aukerarik aurkezten. Gainera, agente publiko eta sozialen multzoarekin buruturiko elkarrizketatik jarraitu den, eta hamarkada bat baino gehiago luzatu den, prozesu metodologikoaren ondorio bezala, eta materia ezberdinetako soluzio alternatiboen multzoa kontuan hartu eta egiaztatu ostean, dekantazio prozesu aten bidez, indartuko den lurralde ereduaren adostasun arrazoitu bat lortu da. Hau, “zero alternatiba”rekin batera, egungo dokumentuak begietsiko du.

Donostiako Eremu Funtzionalaren lurralde-antolamenduari buruzko informazioa aztertzeko prozesuan kontuan hartutako gaikako alderdiak orokorrean ebaluatzearen emaitza gisa, oinarritzko ondorio batzuk ateratzen dira, eta horietatik abiatuta, Planean aintzat hartutako antolamendu hautabide ezberdinak aurkezten dira.

Balorazio sintetiko horiek azterketa-ikuspegi desberdinetatik kontuan hartu behar dira, Lurralde eta horren gainean proiektatzen diren gizarte-eskaeren artean ezartzen diren lotura-mailekin bat etorritz:

- Lurraldea lehen sektorearen jarduera eta ingurune naturalaren balioen eta baliobideen euskarri gisa.
- Eremu funtzionala: 400.000 biztanle baino zerbait gehiagoren bizitokirako eta lanerako esparru gisa.
- Eremu funtzionala: leku estrategiko gisa, garraioaren eta komunikabideen Europako sareko igarobide izateagatik.
- Eremu funtzionala: erreferente hiritar, kultural eta sozial gisa, hiru baldintza betetzen dituelako; hots, Gipuzkoako administrazio-hiriburua izatea, EAEko hirien sisteman barne hartutako gunea izatea eta Baiona-Donostia mugaz gaindiko konurbazioaren europroiektuan funtsezkoa izatea.

2.5.- PLANAREN PROPOSAMEN OROKORREN LABURPENA

Planteatutako lurraldea antolatzeko ereduaren oinarrizko egitura osatzen duten Lurralde Plan Partzialaren zehaztapen nagusiak honakoak dira:

- Ingurune fisikoaren zonifikazio orokorreko proposamena, lurralde-babes bereziko kategoriei atxikitako esparruak definituta:
 - Babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzoruak.
 - Landa-habitata eta/edo hiri inguruko esparru berdeak finkatzeko babes bereziko lurzoruak.
 - Ibai-korridoreak.
 - Hiri inguruko landa-lurzorua.
- Ingurune fisikoari buruzko antolamendu espezifikoaren proposamen ahulak, hainbat hiriarteko landa-parke, hiri inguruko landa-parke eta nekazaritza eta abeltzaintza eremu estrategikoak definituta.
- Mugikortasun-ereduaren eskema orokorra finkatzea eta hainbat proposamen espezifiko adieraztea honako gai hauen inguruan: txirrindulari eta oinezkoentzako oinarrizko hiriarteko sarearen etorkizuneko konfigurazioa, errepide-sare nagusia, trenbide-sareak (ADIF, ETS eta AHT) eta dagozkien geltokiak eta intermodalitate-elementuak, eta portu- eta aireportu-azpiegiturak.
- Hiri-ingurunearen antolamendu orokorrari buruzko proposamenak, hirigintzarako okupa daitezkeen lurzoruak globalki mugatuta eta, horien barruan, hainbat esparru espezifiko definituta:
 - Hiri multzoak.
 - Hiri-inguruko Landa-lurzorua.
 - Hiri ibai-korridoreak.
 - Lurralde Plan Partzialean izaera estrategikoko eremu gisa definitutako esparruak.
- Udal-plangintzan planifikatu beharreko bizitegi-parkea eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru antolatzeko eta dimentsionatzeko LAAen modifikazioaren jarraibide orokorrak adieraztea.

- Izaera estrategikoko eremu gisa definitutako esparruak proposatzea.
- Uraren ziklo integralari, zerbitzu-azpiegiturei eta ekipamendu komunitario orokorrari buruzko proposamen orokorrak adieraztea.
- Bateragarri egindako lehentasunezko plangintza izan behar duten esparru eta elementu nagusiak proposamen moduan finkatzea.

2.6.- ARTEZPIDEAK ETA HIERARKIA MAILAZ GORAGOKO PLANAK KONTUAN HARTZEA HELBURU DUTEN ZEHAZTAPENEN LABURPENA

Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren zehaztapen guztiak, bai lurralde- antolamenduaren ikuspe orokorretik, bai ingurune fisiko antolatzeko eta ingurumen-inpaktua murrizteko berariazko ikuspegitik aztertu dira eta EAEko Lurralde Antolamendurako Artezpideetan (LAA) ingurumena babesteko jasotako xedapenak errespetatu dira. Xedapen horiek otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartu ziren behin betiko.

Era berean, zehaztapen horiek hobetu egin dute legeria modu egokienean betetzea, garapen iraunkorrerako estrategia integrala ahalik eta gehien errespetatzeko irizpideei jarraituz. Beste arau lotesle batzuen artean, honako xedapen arautzaile hauei arreta berezia jarri zaie.

2.7.- INPAKTUAK ERAGIN DITZAKETEN JARDUNEN IDENTIFIKAZIOA

Nabarmendu beharra dago dokumentu honetan, dokumentuaren izaera erregulatzaile eta arauemailea dela eta, inpaktuen identifikazio, balorazio eta kalifikazioa plangintzaren fase berean egin dela eta ez bertatik ateratzen diren proiektu bakoitzarengan, edo suposa dezaketen ingurumenarekiko zuzeneko jarduerengan. Programa edo proiektuen lurraldeari buruzko esku-hartze jardura espezifikoekin bat etorriko da, non inpaktuak identifikatu eta ebaluatu beharko diren eta ezarri, kasuak kasu, bat etorriko diren ahalik eta definizio maila altueneko neurri zuzentzaileak.

2.8.- PLANA GAUZATZEKO FASEAK

Lurralde Plan Partzialaren dokumentuan, hasieran, ez da aurreikusten Plana hainbat fasetan gauzatzea edo garatzea. Izan ere, lurralde antolatzeko izaera arautzailea edo erregulatzaila duten iraunaldi zehatzik gabeko dokumentuak dira; dokumentu iraunkorrak dira.

2.9.- HAUTEMAN DIREN INFORMAZIO HUTSUNEAK

Lurralde Plan Partziala bideratzerakoan ez da funtsezko informazio-hutsune adierazgarririk hauteman.

2.10.- HERRITARREN PARTE HARTZEA

Lurralde Plan Partzialaren aurrerapenaren dokumentua formulatu eta bideratzerakoan, estamentu administratibo guztien artean eta, oro har, herritarren artean, hedatzeko programa zabala bete zen. Honela eta 2010. urteko dokumentuaren Hasierako Onarpenaren exposizio publikoko periodoaren bitartean, administrazio eta partikularren artean dagokien hedatzeko programa gauzatu zen.

2015eko martxoaren 27an hasierako onarpenerako agindua eman, eta berori martxoaren 30eko EHAA, apirilaren 10eko GAO eta maiatzaren 23ko BOEn argitaratu ondoren, honako izapidetze- eta partaidetza-egintza hauek gauzatu ziren:

- 2015eko apirilaren 15ean, herritarrei irekitako deialdian, Lurralde Plan Partzialaren dokumentua EHUko Carlos Santamaria Donostiako ikastegian aurkeztu zen.
- 2015eko maiatzean, azpieskualdetan elkartutako udalekin bilerak egin ziren: maiatzaren 7an, Urumearen azpieskualdeetan bildutako udalekin (Andoain, Astigarraga, Hernani) eta Oria behekoan bildutakoekin (Usurbil, Lasarte-Oria, Donostia); eta, maiatzaren 8an, Txingudiko azpieskualdeetan (Hondarribia, Irun) eta Oarsoaldekoetan (Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia) bildutakoekin.
- Ahalik eta parte-hartze handiena sustatzeko asmoz, dokumentuari hasierako onarpena eman ondoren, jendaurrean jakinarazteko epea zabaldu zen alegazioak aurkezteko, bai administrazio publikoen aldetik, bai herritar eta agente interesdunen aldetik. Hala, epea 2015eko irailaren 15etik azaroaren 15era luzatu zen.
- Jendaurreko erakustaldian eta administrazioei entzuteko aldian, guztira 58 alegazio-eredu jaso ziren, eta Lurralde Plangintza eta Hirigintza Sailak horiek aztertu eta baloratu zituen.
- Aurkeztutako alegazioak xehetasunez aztertze asmoz, honako bilera hauek egin ziren Eremu Funtzionaleko udal bakoitzarekin eta Pasaia Portuko Agintaritzarekin ere: 2016ko urtarrilaren 26a (Hernani, Astigarraga eta Oiartzungo udalak), urtarrilaren 28a (Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbilgo udalak), urtarrilaren 29a (Irun eta Hondarribiko udalak), otsailaren 2a (Errenteria, Lezo eta Pasaia udalak) eta otsailaren 3a (Donostiako Udala eta Pasaia Portuko Agintaritza).

- Bestalde, erantzun eta kontuan hartzeko asmoz, jasotako txosten sektorial hauek aztertu ziren:
 - Sustapen Ministerioa. Garraio Idazkaritza Nagusia. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
 - Sustapen Ministerioa. Estatuko Portuak.
 - Industria eta Energia Ministerioa. Telekomunikazioetako eta informazio-gizarterako Estatuko Idazkaritza. Telekomunikazioetako eta informazio-teknologietako Zuzendaritza Nagusia.
 - Defentsa Ministerioa. Defentsa-azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia.
 - Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Ingurumeneko Estatuko Idazkaritza. Itsasertz eta itsasoaren iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia.
 - Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
 - Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua. Bide-azpiegituren Zuzendaritza.
 - Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Uraren Euskal Agentzia (URA).
 - Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Euskal Herriko Ingurumen Batzordea.
 - Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Euskadiko Garraio Agintaritza.
 - Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Landaberri.

3.- LURRALDE PLAN PARTZIALAK BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIN DUEN ELKARRERAGINARI BURUZKO AZTERKETA

3.1.- HIERARKIKOKI SUPERIORRAK DIREN PLANAK ETA LEGERIA INTERAKZIOAREKIN LURRALDE PLAN PARTZIALAREKIN

Orokorrean hierarkikoki superior gisa Lurralde Plan Partzialaren edukiak kondizionatu egin duten erreferentzia nagusiak, eta batez ere, haien ingurumen ebaluazioa gauzatzeko ordenazio aukera ezberdinen edo alternatiben kontsiderazioa baimendu egin dutenak izan dira, oinarritzko legeria orokorra aparte, hurrengo xedapenak: EAEko Lurralde Antolamenduko 4/1990 legea, Lurralde Antolamenduko Araudia, Ingumen Babes orokorreko 3/1998 legea, Garapen Iraunkorreko Euskadiko Ingurumen Estrategia (2002-2020), EAEko Ingurumen Programa Markoa (2010-2014) eta Dekretua 183/2003, uztailaren 22koa, plan eta programen Ingurumen Inpaktu Osoaren Ebaluazio prozedura erregulatu egin zuena, eta azkenean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuagatik indargabetua izan zena, honek plan eta programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko prozedura erregulatzen duelarik (ikusi 1. Kapituluak).

Euskadiko Lurralde Ordenazioaren Legearen onarpenak Autonomi Erkidegoan lurralde antolamenduan instrumentu berrien ezarpena baimendu zuen. Hortik aurrera, politika sektorialen orientaziorako eta udal plangintzen koordinaziorako erreferentzia marku bat sortu zen, LAAn idatzian lehenengo instantzian gauzatu zena.

Lurralde konpetitiboa, lurralde atraktiboa, lurralde solidarioa, ingurumenarekiko konpromisu aktiboa, bizi kalitatea, efikazia, borondate kolektiboa, herri parte hartzea, imajinazioa, etab., bezalako kontzeptuak behin eta berriz agertzen dira heburuen artean, eta hórrela, aztertzen den Lurralde Plan Partzialean ere islatutak gelditzen dira.

Duela jada urte batzuk nazioarteko elkarteak garatzen dituen eta gaur egun horren erabilia den “Garapen Iraunkorra” terminoa baterau egiten duen informe, araudi, plan eta programa askorengatik beraren gainezarpena onartu daiteke. Jada gain hartu eta bultzatuak ere “Euskadiko Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategia (2002-2020)” eta “Ingurumen III. Programa Markua (2011-2014)” gatik, biak akzio estrategikoen erreferentzi bihurtzen dira, epe luzean helburu paraleloen bila.

EAEko Ingurumen Basbes Orokorreko, otsailaren 27ko, 3/1998 Legeak plan eta programen Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Osoa sortu zuen, planifikazio prozesuaren lehenengo faseetan, alternatiba egokienak aukeratzearen arabera, adierazitako ingurumen plani buruzko ondorio posiblei buruzko analisiak.

Bere jatorritik, Euskadiko Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategiak (2002-2020) Administrazioetik sustatutako Ingurumen Inpaktuen Ebaluazioen plan eta programak bultzatzearen beharrea eragina izan du, horrela ingurumen aldagaia beste politiketan integratzeko helburuarekin eta "Garapen Iraunkorraren" aurrera egitean parte hartzeko.

Bokazio horrekin, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua onartua izan zen, honen bitartez, adierazitako plan eta programen Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Osoaren prozedura erregulatu zelarik, eta paralelki aurrikuspenetan aurkitzen diren gaiaren komunitateko arauen betetzea ziurtatzen zelarik. Dekretu hau, urriaren 16ko, 211/2012 Dekretuagatik ordezkatua izan zen, honen bidez, plan eta programen Ingurumen Ebaluazio Estrategiko prozedura erregulatzen delarik.

Eta lurrakde testuinguru honetan, eta laburturik, aztertutako proposamenak, indarrean dagoen ingurumen araudi eta planak markatzen dituen arau, eduki eta konpromisu asko bateratu egin ditu. Aldi berean, "Ingurumen Markuko IV. Programan (2015-2018)" aurkitzen diren iraunkortasun konpromisu eta helburuak agertzen dira, dokumentu honetan ere izendatzen direnak.

Ingurumenaren ikuspuntutik, gainera, adierazten den legeria kontuan hartu da.

Ura

- Uztailaren 20ko, 1/2001 Dekretu Erreal Legegilea, Uren legearen testua berritzen duena.
- Uren Domeinua Publikoko Araudia, apirilaren 11an (BOE 103.zki) 849/1986 Dekretu Errealak onartutakoa eta maiatzaren 23an 606/2003 Dekretu Errealak modifikatu egin zuena.
- 2000/60/CE Zuzentaraua, uren politiken eremuan komunitate markoa ezartzen duena.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa EAEko Urarena.
- 22/1998 Kosten Legea eta honen modifikazioa 2/2013 Legearekin.

Kutsatutako Lurrak

- Otsailaren 4ko 1/2005 Legea, EAEko Lurren Kutsaduraren Prebentzio eta Zuzenketa. Uztailaren 28ko 22/2011 Legea, kutsatutako hondakin eta lurrak.

- Irailaren 30eko, 165/2008 Dekretua, ekintza edo lurrerako kutsagarriak izan daitezkeen instalazioak jasan dituzten edo jasaten dituzten lurren inbentarioari buruzkoa.

Hondakinak

- Apirilaren 21eko, Hondakinen 10/1998 Legea.
- Otsailaren 24ko, 49/2009 Dekretua, hondakindegiko depositu eta betegarrien egitearen bitartez hondakinen ezabapena erregulatzen duena.
- Otsailaren 1eko, 105/2008 Dekretu Errealak, eraikitze eta eraispen hondakinen kudeaketa ta produkzioa erregulatzen duena.
- Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena.
- Irailaren 29ko 259/1998 Dekretua, EAEko esparruan erabilitako olioaren kudeaketa erregulatzen duena.

Biodibertsitatea

- Ekainaren 30eko 16/1994 Legea, EAEko Naturaren Kontserbazioa. Lege horren garapeneko xedapenen artean arriskuan dauden espezien eta babesturik dauden gune naturaleko elementuen Kudeaketa Planen erregulatzailerak aurkitzen dira.
- Martxoaren 11eko 1/2010 Legea, ekainaren 30eko 16/1994 Legearen modifikazioa, EAEko Natura Kontserbazioa.
- 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluko 92/43/CEE zuzentaraua, habitat naturalen eta fauna eta flora silbestrearen kontserbazioari buruzkoa.
- 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/CE Europa eta Kontseiluko Parlamentuaren Zuzentaraua, hegazti silbestreen kontserbazioari buruzkoa.
- Abenduaren 13ko 42/2007 Legea, Ondare Natural eta Biodibertsitatearena.

Ingurumen ebaluazioa

- Otsailaren 27ko 3/1998 Legea, EAEko Ingurumeneko Babes Orokorra. Apirilaren 28ko 9/2006 Legea, zehaztutako plan eta programen efektuek ingurumenean duten eraginari buruzko ebaluazioa.
- Urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, plan eta programen ingurumen estrategien ebaluazioaren prozedura erregulatzen duena.
- Abenduaren 9ko, 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioa.
- 2001eko ekainaren 27ko 2001/42/CE Zuzentaraua, ingurumenean eragina duten zehaztutako plan eta programen efektuen ebaluazioari buruzkoa.

Hirigintza

- Ekainaren 30eko, 2/2006 Legea, lur eta hirigintzakoa.
- Maiatzaren 28ko 8/2007 Legea, lurrekoa.
- Abenduaren 4ko 20/1997 Legea, sartze-erraztasunaren sustapena.

Parte-hartze publikoa

- Uztailaren 18ko 27/2006 Legea, informazioaren eskugarritasunaren eskubideak erregulatzen dituenak, parte-hartze publiko eta justizian ingurumenaren esparruan (2003/4/CE eta 2003/35/CE Zuzentarauak gehitzen ditu).

Paisaia

- Paisaiaren Europako Hitzarmena. Europako Kontseilua.
- "Paisai Singular eta Bikainen EAEko Katalogoa"(2005).
- Ekainaren 3ko 90/2014 Dekretua, babes, kudeaketa eta paisaiaren antolamenduari buruzkoa EAEko lurralde antolamenduan.

Ingurumen zarata

- Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratana.
- Abenduaren 16ko 1513/2005 Dekretu Erreala, ingurumen zarataren ebaluazio eta kudeaketarein inguruan 37/2003 Legea garatzen duena.
- Urriaren 19ko 1567/2007 Dekretu Erreala, zonifikazio akustikoa, kalitate helburuak eta emisio akustikoen inguruan 37/2003 Legea garatzen duena.
- Urriaren 16ko 213/2012 Dekretua, EAEko kutsadura akustikoarena.
- Apirilaren 28ko 524/2006 Dekretu Erreala, otsailaren 22ko 212/2002 Dekretu Erreala modifikatzen duena, honek kanpoan erabiltzen diren zenbait makinen inguruko soinodun emisioak erregulatzen dituelarik.

Airea

- Azaroaren 15eko, 34/2007 Legea, airearen kalitate eta atmosferaren babesarena.

Ondarea

- Uztailaren 3ko 7/1990 Legea, Euskadiko Ondare Kulturala.
- Urriaren 8ko 234/1996 Dekretua, Arkeologiko Eremuaren Ustearen zehaztapeneko.

3.2- AZTERLANAREN ESPARRUAN ERAGINA DUTEN BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUK IDENTIFIKATZEA

3.2.1.- LURRALDE ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK ETA LURRALDE ARLOKO PLANAK

Lurralde Plan Partzialaren zehaztapen multzuek LAZan aurreikusitako ingurumena babesteko xedapen multzoak osatzen dituzte.

Era berean, Lurralde Plan Partzialaren antolamenduan aipatutako honabideetan ezarritako interes naturaleko eremuak gehitu dira. Ondorengo hauek dira: Uliako labanak, Adarra-Usabelartza, Oria ibaiako Padura Enklabeak, Bidasoako Padura eta Terrazak eta Jaizkibel mendia.

Lurralde Plan Partziala idaztean, Donostia Eremu Funtzionalean eragina duten Lurralde Arloko Planak kontuan hartu dira, honako hauek hain zuzen ere:

a. Behin betiko onartutakoak:

- EAEko Errepideen Plan Orokorra
- Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren modifikazioa (Ingurumen Inpaktuktu Osoaren Ebaluazioa gehitzen du).
- Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala
- Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (Ingurumen Inpaktuktu Osoaren Ebaluazioa gehitzen du).
- Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala
- Haize-energia Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala
- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala
- Gipuzkoako txirrindularientzako bideen Lurralde Plan Sektoriala (Ingurumen Inpaktuktu Osoaren Ebaluazioa gehitzen du).
- Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala (Ingurumen Inpaktuktu Osoaren Ebaluazioa gehitzen du).
- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala. (Ingurumen Inpaktuktu Osoaren Ebaluazioa gehitzen du).

b. Bideratze-egoera desberdinetan:

- Euskal Kultura-ondarea Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala
- Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala
- Garraioaren Sare Intermodala eta Logistikoa Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala
- Portuen Lurralde Plan Sektoriala

Adierazitako Lurralde Plan Sektorialek eremu sektorialeko hurbilpen bat gauzatzen dute, horietako batzuetan ingurumen natural eta hauen baliabideetan sakontzen delarik, eta horrela, babesturik eta babesle direlarik, zehaztasuneko kartografia eta dagokion araudia gehitzen delarik. Zehaztapen hauen gehipena Donostiako Eremu Funtzionaleko (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partzialean, zorrotza izan da, batez ere, antolamendu/babeseko irudietan berretsiz eta horietarako gauzatzen diren estrategia multzoa gehituz. Xehatasunak ere ez dira alde batera utzi, hala ere, Lurralde Plan Partzialaren lanaren eskala dela eta, ezin izan dira kasu guztietan adierazi.

3.2.2.- GARAPEN IRAUNKORREKO EUSKADIKO INGURUMEN ESTRATEGIA (2002-2020). INGURUMEN PROGRAMA MARKUA (2011-2014)

Garapen Iraunkorreko Euskadiko Ingurumen Estrategiak (2002-2020) euskadiko gizarteak lortu behar dituen ingurumen xedeak ezartzea du helburu, horrela, egungo eta etorikizuneko belaunaldientzako bizi kalitate optimo baten jarraipena ziurtatzen delarik, eta aldi berean, hirirtartasun, agente produktibo eta administrazioentzako jarraibide komunak markatuz.

Amaiturik lehen, bigarren eta hirugarren Esparru Programaren indarraldia 2006an, 2010ean eta 2014an (hurrenez hurren), egun IV. Ingurumeneko Esparru Programa dago indarrean. Horretan, epe luzerako esparru estrategikoa eguneratu da eta helburu generiko hau ezarri da: zona degradatuen baitan sartzeko osasuna eta ingurumena lurralde-politika, zerga-sistema berdea, elikadura zirkularra edo azpiegitura berde berriak.

Antolamendu-plana den heinean, Lurralde Plan Partziala modu bereziki zuzenean bar dator ingurumena lurralde-politikan sartzearekin; horretarako, plangintza koherentea eta optimizatzailea abiarazten saiatuz. Jakina, planaren zeharkako irismenak berekin dakar hura gainerako helburuetan sartzeko.

3.2.3.- NATURA BABESTEKO LEGEA

Ingurune naturala kontserbatzeko berariazko helburuarekin, EAEn, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legea dugu. Lege horrek espazio naturalak, eta flora eta fauna basatia kontserbatzeko 4/1989 Legean estatu-mailan ezarritakoa osatu eta garatzen du. Udaberritik eratorritako hainbat baliadideentzako babeseko instrumentu batzuk sortu dira, horietako batzuk hurrengo azpiapartatuetan izendatzen direlarik.

3.2.3.1.- Babestutako Espazio Naturalen Euskal Sarea

Euskal Autonomi Erkideko Natura Babesteko ekainaren 30ko 16/1994 Legean zehazten diren baldintza eta helburuetakoren bat betetzen duten tokiek haiek osatzen dute Babestutako Espazio Naturalen Euskal Sarea(BNP).

16/1994ko Legea jarraituz honako babes-irudiak ezartzen dira: Parke Naturalak, Babestutako Biotopoak eta Zuhaitz Berezikiak.

BNP Sarearen barruko esparruan aztertutako Parke Naturalak Aiako Harriak ordezkatzen ditu. Honek kontatzen du berari dagokion Baliabide Naturalen Antolakuntza Planarekin eta Erabilpen eta Kudeaketan Plan Gidariarekin. Biotopo babestuei dagokienez, Leitzarango Biotopo Babestua gailentzen da. Zuhaitz Bereziei dagokienez, honako ereduak dira azpimarragarrienak: Berioko Artea, Igarako Haritza eta Hernaniko Ginkgoa.

3.2.3.2.- Kudeaketa Planak eta Arriskuan dauden Interes Bereziko Espezien Gipuzkoako Eremuak.

Euskal Autonomi Erkideko Natura Babesto 16/94ko Legeak Euskal Erkidegoko Flora eta Faunaren Arriskuan dauden Espezieak bil zezakeen erregistroa sortzeko beharra finkatu zuen. Katalogo hau espezie, azpiespezie eta poblazio multzoengatik dago osatua (faunaren 145 taxoi eta floraren 157). Hauek babesteak neurri bereziak eskatzen ditu. Eta honek berarekin dakar arriskuan daudenen sailkapen bat egitea Arrisku Kategoriaren barnean (desagertzeko arriskuan, zaurigarria, arraroa edo interes berezikoa) baita ere babesteko arau batzuk eta, baita ere, bereziki, Kudeaketa Plan bat idaztea.

Testuinguru honetan, Gipuzkoak Kudeaketako 3 Plan ditu onartuak, hurrenez-hurren, Europear bisoiarentzat, Pirinear desmanarentzat eta hegoaldeko zuhaitz-igelarentzat. Interes bereziko beraien eremuak, dena dela, Lurralde Plan Partzialean daude sartuak.

Euskal Autonomi Erkidegoko Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzak emandako informazioaren arabera, Donostialdeko eta Bidasoa Behereako esparruan, 17 taxoiez gain Lehentasunezko Banaketa Guneetan, beste 17 Interes Bereziko Eremuetan eta 7 distortsionatutako puntu sentikorretan zehazten dira. Beraien Banaketa eremuak oso sakabanatuta daude.

Florari dagokionez, aipatutako zuzendaritzak Eremu sentiberen zerrenda ezagutzera eman du, Donostialdeko eta Bidasoa Behereko esparruan 29 kointzidentzia aurkituz.

Florari dagokionez azkenik, "EAEko Flora baskularren Zerrenda Gorri"tik (2010) ateratako datuen arabera, Eremu Funtzionala jasotzen duen eremu naturaletan 42 aipamen zehazten dira.

Informazio hau Planean sartzea eskualdeko ingurumen fisikoaren lurralde orokorreko antolakuntzarako oinarritzko zonifikazioaren proposamenara bidaltzen da.

3.2.4.- NATURA SAREA

Natura Sarea 2000k helburutzat du beharrezko zaintza neurriak hartzea 92/43/CEE Zuzentzariaren ezarritako guneetako hábitat edo komunitate interesak babesteko, natura habitata eta basoetako fauna eta flora zaintzeko eta 79/409/CEE Zuzentarauaren ezarritakoak basoetako hegaztiak eta habitata zaintzeko. Horrela, aipatutako Sarea osatzen duten ondorengo guneak osatuz; komunitate intereseko lekuak (LIC), zaintza bereziko guneak (ZEC) eta hegaztien babeserako gune bereziak (ZEPA), adierazitako LIC-entzat garatu beharreko zaintza eta kudeaketa neurriak.

Donostialdean eta Bidasoa Behean ondorengo gune hauek daude ZEC-tzat adieraziak: Leizaran ibaia, Oriako erreka, Ulia, Urumea ibaia, Aiako Harria, Jaizkibel eta Txingudi-Bidasoa; baita ZEPA bat ere: Txingudi.

Babestutako Natura Gune Sareekin eta Natura Sarea 2000rekin erlazionaturik proposamenen azterketarako hasierako irizpidetzat aipatutako guneen barruan ez kokatzea kontuan hartu da Lurralde Plan Partzialean.

3.2.5.- LURRALDE PLAN PARTZIALEAN KONTUAN HARTUTAKO GAINONTZEKO LANAK ETA PLANAK

3.2.5.1.- EAEko Korridore Ekologikoen Sarea

EAEko Korridore Ekologikoen Sareak migrazioa, banaketa geografikoa eta basoetako espezie trukaketa genetikoa hobetuko duen paisaia elementuak kudeatzea bilatzen du, habitaten zuzendaritzat gomendatzen duen bezala eta EAEko ingurumen esparruko programak jasotsen duena. Horrela, eskualdeka, EAEn definitu dira Natura Sarea 2000ko (gune-nukleo) guneen arteko konexio korridore ekologikoak, korridore eta lotura eremuen (konexio garrantzia handiagoko elementuak) bidez. Horrez gain, lotura interes bereziko ibaia tartearak, indargetze eremuak (sareko elementuak babesten dituzte) eta ekologikoki lehengoratzeko eremuak (sareen potentzialtasuna hobetzeko).

Donostialdea-Bidasoa Beheko eskualdean bi eremu nukleo daude: Aiako Harria eta Jaizkibel, lotura eremu bat; Adarra-Usarbeltza, bi lotura-korridore; Aiako Harria-Jaizkibel, Aralar-Aiako Harria, sei ibitarte; Urumea Goia, Jauzubia, Landarbaso, Leitzaran, Urumea eta Usoko, hala hola bakoitzari indargetze eta ekologikoki lehengoratzeko eremu bana, guztira 16 baterakidetasun batuz.

Honi dagokionez, Lurralde Plan Partzialean hasitako antolamenduaren burutzean kontuan hartu dira sareko egitura elementu nagusiak, eskualdeko inguru fisikoaren lurralde antolamendu orokorrerako oinarritzko zonakatzearen proposamen ezberdinetan barneratzean, bereziki ibai tarteei dagokiona.

3.2.5.2.- EAEko paisaia berezien eta aparten katalogoa

Katalogo honen helburu nagusia paisaiak zaindu eta babestea da, katalogotutako paisaien ezaugarri berezi edo nabarmenak esleitzen dituzten elementu edo alderdiak identifikatzeko, aurrerago paisaia-kalitateko helburuak eta zaintza ziurtatuko duten neurriak proposatu ahal izateko.

Zentzu honetan, zehaztutako antolamendu osagarria eta Lurralde Plan Partzialaren ingurumen fisikoaren lurralde antolamendu orokorrerako oinarritzko zonakatzeari gaingarritako proposamenek hiriarterako eta hiri inguruko parkeak jasotzen ditu, bertan, aipatutako katalogoan adierazitako balio paisajistiko nagusieneko eremu gehienak barneraturik daudelarik eta paisaien babesa arautuko delarik.

3.2.5.3.- Beste planak

Aurrekoez gain, Lurralde Plan Partzialak Txingudiko Plan Bereziko (2001ko irailean behin betiko onartua) eta Lau Haizetako Plan Bereziko (1999ko maiatzaren 11ko akordioa) edukiak jaso ditu.

Beste garrantzia batekin, aztertutako dokumentuaren antolamenduaren izaera orokorra dela eta, beste baliabide batzuk aztertu dira hala hola Uraren Esparruaren Zuzendaritza, Ekialdeko Kantauriko Plan Hidrologikoa, Garraiobide Iraunkorraren Zuzendari Plana, Kutsatutako Lurren Plana, Klima Aldaketaren aurkako Euskal Herriko Plana (2008-2012) etab.

3.2.6.- UDAL PLANEAGINTZA

Eremu Funtzionalean Donostian indarrean dagoen hirigintzako planeagintza orokorra (edo berrikuspeneko tramitazioaren egoera aurreratuan dagoena) udal antolamendu 13 planez osatzen da, independenteki landuak eta onartuak, beti kointziditzen ez duten hirigintzako irizpideekin eta egoera kronologiko ezberdinetan, hurrengo taulan nabarmen daitekeen bezala.

Gainera, garrantziazko zenbait hirigintza operazio, hasieran planeagintza orokorrean jaso ez zirenak, puntualki aldatzen diren expediente bidez kudeatzen dira, eta lurralde intzidentzia gehien duten zenbait azpiegituren interbentzio udal planeagintzatik aparte ebazten dira. Horregatik, lurralde antolamenduan oinarrituz, kuestio garrantzitsuenak erabakitzearen prozesuari dagokionez, indarrean dagoen hirigintza planeagintzatik eratortzen den zehaztasun maila finala erlatibizatzea komeni da.

Udalerrria	Planeagintza orokorreko instrumentua	Onarpen data
Andoain	H.A.P.O	2011
Astigarraga	H.A.P.O	2010
Donostia	H.A.P.O	2010
Errenteria	H.A.P.O	2004
Hernani	AA.SS	2011
Hondarribia	H.A.P.O	2015 (Behin behineko onarpena)
Irun	H.A.P.O	2015
Lasarte-Oria	AA.SS	2005
Lezo	H.A.P.O	2011
Oiartzun	H.A.P.O	2015
Pasaia	AA.SS	1997
Urnieta	H.A.P.O	2013
Usurbil	AA.SS	2011

4.- LURRALDE PLAN PARTZIALAK ERAGINDAKO ESPARRUARI BURUZKO AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA

4.1.- AZTERLANAREN ESPARRUA

Ebaluazio hau egitean kontuan hartutako azterlan-esparrua Donostiako Eremu Funtzionalari dagokio, EAE osorako LAAetan ezarritako lurralde-banaketaren arabera.

Hala, Donostiako Eremu Funtzionalak honako udalerri hauek biltzen ditu: Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil.

1.1 atalean aurreratu bezala, Donostiako Eremu Funtzionalak 376 km²-ko hedadura du. Lurralde horretan, 400.000 biztanle baino zerbait gehiago daude. Beraz, populazio trinkoko lurraldea da (1.000 biz./km² baino gehiago), giza kokaleku izateko baldintza bikainak betetzen dituen: klima epela, edertasun handiko paisaia eta kokapen geografiko estrategikoa (Europako komunikabideen nahitaezko pasagunea).

4.2.- INGURUNEAREN DESKRIBAPENA

4.2.1.- KONTUAN HARTUTAKO ALDERDIAK

Kapitulu honetan, ingurunearen aldagai hauek aztertu dira:

- Ingurune fisikoa: klimatologia, geologia, edafologia, eta lur gaineko eta lurpeko hidrologia.
- Ingurune biotikoa: landaredia eta fauna.
- Pertzepzio-ingurunea: paisaia.
- Giza ingurunea: kultura-ondarea, demografia, enplegua eta hiri-garapena, airearen kalitatea eta zarata.
- Arrisku naturalak: uholdeak.
- Kutsatutako lurzorua.

Horietarako guztietarako metodologia berari jarraitu zaio: planteamendu orokor batetik abiatuta, aldagai bakoitza ikuspegi zabal eta orokorraz deskribatu da, dagokion lan-eskala kontuan izanda. Horiek unitate ugaritan banatzea saihestu da betiere, horrek oztopatu egingo bailuke amaierako laburpen-lana.

Bestalde, aldagai naturalistiko izenekoetan elementuak edo taxonak nahita baztertu egin dira, horrek informazioa galtzea dakarren arren. Horrela, guztietarako deskribapen-eskala homogeneoari eutsi nahi izan zaio, batzuen eta besteen artean alde handirik ez egoteko. Gainera, azterlanaren mota eta esparrua kontuan izanda, maila horretako azterketa orokorra lekuz kanpotzat hartu da.

4.2.2.- KLIMATOLOGIA

Aztergai den esparruaren kokapen geografikoa eta haren ingurunea direla-eta (Bizkaiko Golkoaren erdialdea), urtaro guztietan jatorri atlantikoko aire-masak nagusitzen dira. Masa horiek, oro har, tenperatura leunak eta oso prezipitazio ugariak sorrazten dituzte, eta horiek dira, hain zuzen, Donostiako Eremu Funtzionalaren klima-ezaugarri nagusiak.

Euskal itsasertzaren berezitasun gisa, Gipuzkoari dagokion bereziki, aipatzekoa da iparraldeko haizeak nahiko sarriak direla. Haize horiek negu partean egun nabarmen hotzak sorrarazten dituzte. Bestetik, nahiko sarri ere agertzen diren hegoaldeko haizeek, efektu katabatikoagatik, oso aldi lehorrak eta beroak dakartzate.

a. Estazio meteorologikoak. Eskuragarri dauden datuak

Egindako azterketa klimatikoa Donostiako Igeldo mendiko estaziotik jasotako datuetan oinarritu da. Izan ere, Eremu Funtzionalean aztertutako estaziorik osatuena da eta denboraldi luzeetako datu-serieak ditu. Estazio osatua denez (haizeei, presio atmosferikoari, hezetasunari eta bestelako fonomenoei buruzko datuak ematen ditu), bereziki interesgarria da bertako klima zehazteko.

Ondorengo taulan, kontuan hartutako estazioaren koordenatuak zehazten dira:

MOTA	KOD.	IZENA	LUZ.	LAT.	ALT.	UTM X	UTM Y
Osatua	1024E	Donostia 'Igeldo'	020222W	431824	259	577906	4795411

b. Temperaturak

Taula honetan, Igeldoko estazioan jasotako temperaturen hileko batez besteko datuak azaltzen dira (epealdi : 30 urteak):

HIL	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE	URTEA
	7,8	7,7	10,7	11,8	14,0	16,8	18,6	19,0	18,1	14,7	10,9	8,0	13,2

Muturreko temperaturek oso balio handiak hartzen dituzte itsasertza izateko. Aztertutako aldian minimo absolutua -12,1 °C izan da (1956ko otsaila), eta maximo absolutua 38 °C (1975eko uztaila).

Maximoen batez besteko maximoak 23,7 °C-koak dira abuztuan. Minimoen batez besteko minimoak, berriz, 3,2 °C eta 3 °C ingurukoak dira urtarrilean.

Izozterik gabeko aldia (0 °C-tik beherako baliorik jasotzen ez dena) martxoaren hirugarren astean hasi eta azaroaren hirugarren astean amaitzen da.

c. Prezipitazioak

Ondorengo taulan, prezipitazioei buruzko batez besteko datuak jasotzen dira mm-tan:

HIL	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZE	ABU	IRA	URR	AZA	ABE	URTEA
	137	108	90	102	122	96	95	117	149	161	152	177	1506

Urteko prezipitazioak klima ozeanikoaren berezkoak dira, bai urteko bolumen handiagatik, bai eta haien erregularitasunagatik ere. Prezipitazio handienak udazkenaren bukaeran eta neguaren hasieran izaten dira, eta urteko minimoa uztaile eta abuztuari dagokie.

Urteko batez besteko euri-egunak bereziki ugariak dira (164). Batez beste, abendua da prezipitazio-egun gehieneko hila (15). Uztaile eta abuztua dira prezipitazio-egun gutxieneko hilak (11).

Itsasoaren eraginagatik, oso egun gutxitan izaten dira elur- edo kazkabar-prezipitazioak (2,4). Lainoa oso fenomeno atmosferiko ohikoa da. Batez beste, urtean 60,5 egunetan izaten du.

Hodei ugarien ondorioz, intsolazio-erregistroak oso baxuak dira: urteko 1.832 eguzki-ordu batez beste. Balio altuena uztaile dagokio (215 ordu), eta baxuena abenduari (81 ordu).

d. Haizeen erregimena

Hurrengo taulan, hilabete bakoitzeko, haizeen norabide ohikoenak azaltzen dira, eta, norabide bakoitzerako, haren batez besteko abiadura adierazten da (km/h-tan). Jarraian, haize bareko egunen urteko kopurua agertzen da. Halakotzat hartzen dira haizearen abiadura nulua deneko egunak.

	U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A	URTEA
Norabidea	H	H	I	I	I	I	I	I	I	H	H	H	I
Abiadura	19,1	18,2	18,0	15,1	13,4	9,8	8,3	9,6	10,7	15,4	17,7	19,1	14,5
Barea	1	2	2	2	2	2	4	3	4	3	1	2	-

Haize nagusiak I eta H norabidekoak dira, alde handirik gabe. Bigarrenak askoz ere gogorragoak dira lehenak baino. Oro har, gauez H norabideko haizeak sarriagoak dira (udan izan ezik), eta egunez I norabideak (neguan salbu). Batez besteko abiadurak zertxobait txikiagoak dira udan, eta handiak gainerako urtaroetan. Urtean puntako haize-boladek, batez beste, 144 km/h-ko abiadura hartzen dute. Donostian, haizearen aldiuneko puntako bolada hauek erregistratu dira:

	U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A	URTEA
Abiadura	180	180	160	140	139	130	126	122	155	176	144	157	144
Norabidea	H	H	HHE	H	H	H	IIM	H	HM	H	H	IM	H

e. Klima-sailkapena. Köppen-en sailkapena

Klima-ezaugarriak direla-eta (1.500 mm inguruko urteko prezipitazioak –ia urte osoan euritsua–, urteko batez besteko tenperatura 13 °C ingurukoa, hilik hotzenaren batez besteko tenperatura 7,7º C-koa), azterlanaren esparruko klima “C” motan sartzen da; zehazki, “Cf mesotermala” izeneko azpimotan (epela, hezea, euritsua urte osoan).

4.2.3.- GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

Atal honetan, Eremu Funtzionalean nabarmentzen diren ezaugarri geologikoak eta geomorfologikoak deskribatzen dira.

Eskualdeko geologiaren ikuspegitik, azterlan honek xede duen esparrua Euskokantauriar arroan kokatzen da, zehazkiago, Euskal Arkua izenekoan (P. RAT eta P. FEUILLÉ). Arku horren ekialdeko adarra mendigune paleozoikoek (Lapurdi, Aldude-Kintoa, Bortzirriak eta Larrun-Aia) eta haien estaldura mesozoikoak osatzen dute. Mendebaldeko erdia serie mesozoikoek eta tertziarioek osatzen dute. Horien egitura tolestuan substratu paleozoikorako moldaera bat igar daiteke.

a. Geologia

- **Litologia**

Azterlanari dagokion esparruaren barruan material mota ugari daude, haren historia geologiko zabala dela eta. Zutabe estratigrafikoetan jasotako materialen artean, Karboniferoko arbelak eta grauwcak, edota Kuaternarioko kolubioiak, terraza alubialak, etab. daude.

Sthephaniarraren ondotik (periodo horretakoak dira arbelak eta grauwcak, zutabe kronoestratigrafikoen oinarria osatzen dutenak), material permotriasikoak datoz. Horiek fazies germanikoen azpian agertzen dira, Buntsandsstein terrigeno batekin, Muschelkalk karedun batekin eta oso plastikoa den Keuper batekin (buztin nahasiez, igeltsuz eta azaleratze ofitiko osatua). Hori izango da egitura diapiiriko jakin batzuen abiaguneko oinarria.

Triasikoaren ondoren, Jurasiko batik bat kareduna dator. Bertan agertzen diren litologiaren artean, honako hauek nabarmentzen dira (azaldutako hurrenkeran): karniolak, bretxak, dolomiak, tuparriak, kareharri bioklastikoak, etab. Horregatik, Jurasikoaren lehen zatia agertzen deneko zikloan itsasoaren nolabaiteko aurrerakada bat dagoela esan daiteke. Baina, Dogger-a amaitzean, Malm osoan zehar, litologia terrigenoagoak agertzen dira, hala nola: tuparri hareatsuak, lutita gorriak, hareharri silizeoak, etab. Horrek guztiak, itxuraz, nolabaiteko atzerakada ematen du aditzea.

Hortik aurrera, material mota ugari daude. Behe Kretazeoaren ezaugarri nagusia ondo bereizitako bi fazies izatea da. Lehenari konplexu Urgondar esaten zaio, eta bigarrenari konplexu Supraurgondar. Lehengoek tipologia kareduna izan ohi dute eta bigarrenak, berriz, terrigenoagoak dira eta nahiko litologia zakarra dute.

Goi Kretazeoari dagozkion litologiak, CAMPOSEk (1979) "Goi Kretazeoko flysch" izenaren bilduak, erruz ageri dira Bortzirietako mendigunea inguratzen. Azterlanari dagokion esparruko azaleratze berrienetakoa, zalantzarik gabe, zabalenetakoa da. Irundik abiatzen da eta, Ereñotzuko faila bezalaxe, Bortzirietako mendigunearen perimetrotik diagonalean igarotzen da, Villabona ingururaino iritsi arte. Bertan desagertu egiten da. Nahiko litologia homogenea duen arren, ondo bereizitako bi tarte daude. Alde batetik, Oiartzun eta Villabona artean igarotzen den lehen tarte dago. Bertan, bi fazies nahiko adierazgarri daude, "Flystch kareduna" eta "Flystch detritiko-kareduna" izenekoak, hain zuen. Bestetik, Oiartzun eta Irun arteko sektorea dago. Bertan, lehen adierazitako bi faziesen arteko aldeak ez dira hain nabarmenak, eta indarra deskribatutako lehen sektorearena baino askoz txikiagoa da. Flysch detritiko-karedunaren multzoaren adina Goi Santoniarraren eta Campaniarraren artekoa da.

Campaniarretik hato sedimentario garrantzitsu bat dago, Kuaternarioa arte justu. Kuaternarioaren barruan, hainbat material mota daude. Alde batetik, metaketa alubialak agertzen dira ibai-ibilgu nagusiei lotuta. Eta, bestetik, badira ere metaketa kolubialak, erregolitoak, lurzoruak, etab.

“Ingurune naturala. Litologia” 10. kapituluko 1. planoan, deskribatutako formazio litologikoak irudikatzen dira. Planoa EAEko ingurumen-kartografiaren sistematik aterea da (1/25.000 eskala).

- **Tektonika**

Tektonikaren ikuspegitik, bertako ezaugarri nagusia bi ziklo orogenikoren gainjartzea da. Ziklo horiek deformatutako materialetan euren aztarna berezia utzi zuten.

Orogenia hertziniarrean, Bortzirietako Paleozoikoa hurrenez hurreneko deformazio-etapen mende egon zen. Lehen etapan, ondo garatutako alpe alderantzikatuak dituzten tolesturak dira adierazgarri. Ondoren, bigarren fasean, tolestura horiek deformatu egin ziren.

Ezgonkortasun tektoniko alpetarrak denboraldi luzea iraun zuen. Fase batzuetan, bloke handien mugimendu bertikalak besterik ez ziren sortu; agian, aurreko akzidenteak aprobetxatuz.

Egituren estiloa desberdina da estalkian eta zokaloan, etapa tektonikoen ezaugarri mekanikoen arabera.

Estalkiaren egitura hiru akzidente motaren arteko konbinazioaren emaitza da: diapiroak, tolesturak eta faila alderantzikatuak. Mota bereko egituren artean ere estilo-desberdintasunak daude. Kasu batzuetan disarmonikoak dira zokaloarekiko loturagatik, eta beste batzuetan badirudi disarmonia ez dela erabatekoa eta estaldura substratu zurrunenara egokitzen dela. Aztertutako eremu funtzionalean, horien guztien adibide ezaugarriak dira: Oiartzungo diapiroa, Santiagomendiko diapiroa, San Markos eta Martuteneko diapiroa, Fagollagako domoa, San Nartzisoko tolestura, Goiburuko sinklinala, Hernani-Andoaingo antiklinala, Andatza mendiko sinklinala, etab.

Zokaloko egitura alpetar ezaugarriak dira: Ereñotzuko faila alderantzikatua, Aritxulegiko faila, etab. Aipatutako egituretako asko interes geologikoko guneak (IGG) dira, ondorengo atal batean ikusiko denez.

b. Geomorfologia

Aurreko puntuetan ikus bezala, litologia-aniztasun handia dago. Horrek portaera desberdinak dakartza kanpoaldeko indar modelatzaileen arabera: Aiako Harriko granito trinkoenetik hasita, Keuperreko material bigunetara edo erraz higagarriak diren alubialetara iritsi arte.

Baina, horri, aztergai den eremuaren tektonika konplexua gehitu behar zaio, kontuan izanik ingurua, oro har, faila batek banantzen duela, Ereñotzukoak hain zuzen. Ereñotzuko failak Aiako Harriko, Bianditzeko, Urdaburuko, Adarrako... erliebe malkartsuak eta malda handidunak zatitzen ditu, eta elkartu egiten ditu material paleozoikoak eta triasikoak (batez ere) flysch kretazeoarekin.

Faila horrek zenbaitetan faila alderantzikatu gisa jardun du, Bortzirietako mendiguneko materialen gainean blokea altxatuta. Bestalde, hondoratutako blokea Irun-Oiartzun-Astigarraga-Hernani-Urnieta-Andoain-Tolosa igarobideko materialei dagokie.

Garrantzizko gertaera geologikoak izan badira ere, orogenia alpetarrak neurri handi batean Tertiarioan definituko ditu orain ezagutzen ditugun morfologiaren erliebea edota, behinik behin, haien oinarriak.

- **Giro morfodinamikoak eta unitate fisiografikoak**

Ezaugarri geologikoen, topografikoen eta klimatikoen laburpenak lurraldea giro morfodinamikoetan zatitzea ahalbidetzen du. Giro horiek, era berean, unitate fisiografiko deitutakoetan banatzen dira, ingurunea osatzen duen beste ezaugarri batzuen arabera (esaterako, geomorfologia, prozesu aktiboak, lurzoruak eta landaredia/erabilerak).

“Gipuzkoako geomorfologia eta edafologia” azterlanaren arabera (Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen Departamentuak argitaratu zuen 1991. urtean), aztergai den eremu funtzionalean bildutako giro morfodinamikoak eta unitate fisiografiko nagusiak honako hauek dira:

- **Itsasertza:**

Itsasertzeko lerrokadura. Mendizorrotz-Igeldo / Ulia sektorea. Morfologia bereizgarriak: egiturazko erliebeak (maldak eta hog back-ak), itsaslabarrak eta irristatzeak. Intereseko ezaugarri geologikoak: Donostiako Pasealeku Berria, Pasaiaiko portuaren bokalea eta, era berean, Pasaiaiko egitura sedimentarioak.

Kanpoaldeko igarobidea. Oriaren itsasadarreko sektorea. Morfologia bereizgarriak: muinoak, mendixkak, ibai-harana eta itsasadarra.

Itsasertzeko lerrokadura. Jaizkibelgo sektorea. Morfologia bereizgarriak: egiturazko erliebeak (maldak eta hog back-ak), itsaslabarrak, muinoak eta mendixkak. Intereseko ezaugarri geologikoak: Jaizkibel gaineko azaleratzea, Olearxe mendia, egiturazko mazelak eta itsaslabarrak, Higer lurmuturra eta Pasai Donibane ebakia.

Kanpoaldeko igarobidea. Donostia-Irun sektorea. Morfologia bereizgarriak: muinoak, mendixkak, hiriguneak, industriaguneak, itsasadarrak eta hondartzak. Intereseko ezaugarri geologikoak: Donostiako badia, Urumearen bokalea, Bidasoaren estuarioa eta Arillarango tolesturak.

- **Itsaertz aurreko erliebeak:**

Zarate-Andatza. Morfologia bereizgarriak: mendiak, sakanak, mendixkak eta lapiazak.

Santiagomendi. Morfologia bereizgarriak: mendixkak, muinoak eta ibarrak. Intereseko ezaugarri geologikoa: Santiagomendiko jurasikoa.

Loatzo-Uzturre. Morfologia bereizgarriak: kareharrizko gailurrak, lapiazak, dolinak eta mendiak. Intereseko ezaugarri geologikoa: Uzturre mendia.

- **Itsaertz aurreko haranak:**

Oria Behea (Villabona-Andoain). Morfologia bereizgarriak: ibai-harana, ibarrak eta muinoak.

Hernani-Urnieta igarobidea. Morfologia bereizgarriak: ibai-harana, sakonune flubio-karstikoa, muinoak eta ibarrak. Intereseko ezaugarri geologikoa: Lasarteko olistolitoa.

- **Ekialdeko erliebeak:**

Aia-Aldudekogaina. Morfologia bereizgarriak: mendiak eta sakanak, egiturazko erliebeak, meandro ahokatuak dituzten ibai-haranak eta haitz granitikoak. Intereseko ezaugarri geologikoak: Buenabistako azaleratzea, Aiztondo-Miagorriko sakana, Aiako Harria, Aiztondoko kontaktua, Pagoagako meandroa eta Oiartzungo terrazak.

Adarra. Morfologia bereizgarriak: egiturazko erliebeak, mendiak eta meandro ahokatuak dituzten ibai-haranak.

Udalar. Morfologia bereizgarriak: egiturazko erliebeak, mendiak eta meandro ahokatuak dituzten ibai-haranak.

“Ingurune naturala. Unitate fisiografikoak” 10. kapituluko 2. planoan, deskribatutako unitateak 1/100.000 irudikatzen dira. Era berean, Eusko Jaurlaritzako, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak emandako informazioaren arebera, 8.1 Planoan Garrantzia Geologikodun Eremu eta Puntuak barneratzen dira.

4.2.4.- EDAFOLOGIA

Atal honen helburua da lurzoruen ezaugarri morfologikoak eta lurralde-banaketa aztertzea, eta horiek ingurumenaren aldetik baloratzea (erabilera-ahalmenari dagokionez).

a. Deskribapen orokorra

- **Hezetasun- eta temperatura-baldintzak: klima edafikoa**

Aztergai den esparruko lurzoruek behar adinako hezetasun-baldintzak betetzen dituzte urtean zehar landaredi belarkara hazteko, uda partean egokitu ohi diren denboraldi laburretan izan ezik (45 egunetik behera). Horregatik, lurzoru horien hezetasun-erregimena “udikoa” da, Kantauriko itsasertzean nagusi den erregimena, hain zuzen. Lurzoruen temperatura-erregimena “mesikoa” da, urteko batez bestekoa 8 eta 15 °C artekoa baitute.

Jarraian, lurzoruaren hezetasun- eta tenperatura-erregimenak baldintzatzen dituzten tenperaturen eta prezipitazioen hileko bilakaera azaltzen da, aztergai den esparruaren adierazgarri den Donostiako “Ategorrieta” estazioari dagozkion datuen arabera.

	URT	OT	MA	AP	MAI	EKA	UZT	AB	IR	URR	AZ	AB	URTEA
T	8,3	8,8	10,4	11,7	14,8	17,7	19,0	19,6	18,5	15,3	11,3	9,6	13,7
P	119	97	118	115	104	80	71	63	117	149	152	149	1334
ETP	22	25	37	47	76	92	109	104	84	60	32	25	713
R ₁₀₀	100	100	100	100	100	88	50	9	42	89	100	100	-
G	97	72	81	68	28	-	-	-	-	-	109	124	579

ETP: Ebapotranspirazio potentziala mm-tan.

R₁₀₀: Lurzoruaren hezetasun-erreserba mm-tan, 100eko maximoa kontuan hartuta.

G: Lurzoruaren gehiegizko hezetasuna.

Aztergai den esparruko lurzorueta, m² bakoitzeko 100 mm-ko hezetasun-erreserba teorikoa kontuan hartzen da (R₁₀₀ = hezetasuna metatzeko ahalmen maximoa). Hezetasun-erreserbaren balioa hil bakoitzaren azken egunari dagokio; horregatik, batez besteko balioak kontuan izanda, erreserba beteta dago urtearen zatirik handienezan bi estazioetan. Ekainaren erdialdetik azaroaren hasiera aldera, ordea, zati batean lehorra dago. Baldintza horiek udiko motako hezetasun-erregimenari dagozkio, Soil Taxonomy-ren arabera (1998). Urteko batez besteko tenperaturak, irizpide horien arabera, mesiko motako erregimenari dagozkio.

- **Ezaugarri kimikoak**

Kaltzio karbonatoan aberatsak diren materialak (batez ere tuparriak) nagusitu arren, lurzoruak guztiz deskarbonaturik ageri dira, prezipitazioen ondoriozko garbiketa handiagatik. Horrek xurgatze-ahalmen eskasa dakar, eta, ondorioz, pH-ak azidoak izan ohi dira. Hori bereziki nabarmena da pinudiak haztera zuzendutako lurzorueta. Bertan, orbelak azidifikazio-prozesuan laguntzen du.

Bestalde, sega-belardietara eta labore belarkaretara zuzendutako lurzoruak, tuparrietan garatutakoak, pH neutrokoak edo zertxobait alkalinoak dira. Ongarrien ekarpenak eta lurzoruen hobekuntza kimikoek horretan lagundu dute ziur aski. 6tik beherako pH balioak asetasunaren adierazletzat hartzen dira aldaketa-oinarrietan (aldaketa-oinarrien 50etik beherako ehunekoak). Hori faktore erabakigarria da lurzoruen erabilera-ahalmena sailkatu eta esleitzeko.

Lurrazaleko horizonteeek materia organiko ugari eduki ohi dute: % 5etik gorako batez besteko balioa (lurzoruaren masa lehorrarekiko). Balio hori zertxobait handiagoa da pinudira zuzendutako lurzoruetan gainerako erabileretan baino. Hala ere, haietan materia organikoak eboluzio txikiagoa du.

Materia organikoaren ehuneko handiek, neurri batean handiak diren buztin-educiekin batera, lurzoruetan truke kationikorako ahalmen handia dakarte berekin. Ahalmen hori lodiera osoan agertzen da, eta balio maximoak lurrazaleko horizonteetan azaldu ohi dira. Batez besteko balioa 40 milibaliokide/100 g lur ingurukoa da. Balio altutzat, oro har, 20 milibaliokide/100 g-tik gorakoak hartzen dira.

- **Ezaugarri fisikoak eta makromorfologikoak**

Aztertutako lurraldean, lurzoru gehienek egitura orekatuak dituzte (frankoak eta franko-buztintsuak). Elementu lodien eduki eskasa izan ohi dute (zatikia > 2 mm), material kolubialean garatutako lurzoruetan izan ezik. Kasu batzuetan (lubisolak), egitura-kontrastea dute lurrazaleko horizonteen eta lurrazal azpikoaren artean. Azken horiek buztin ilubialez aberastuta daude (Bt horizontea).

Lurzoru horien eboluzioa buztineko ilubiazio-ezaugarrietan antzematen da (buztinaren lekualdatzea lurzoruaren goiko horizonteetatik behekoetara), geruza moduan (kutanak), Bt horizonteak osatzen dituzten agregatuetan. Ezaugarri horiek dira azterlanaren esparruko lurzoruaren antzinatasunaren eta egonkortasunaren adierazle nagusiak.

Zatiki organikoen eta mineralen arteko asoziazioa faktore erabakigarria da lurrazaleko horizonteen egiturazko ezaugarrietan. Pinudipean garatutako lurzoruek (eboluzio txikiagoko materia organikoa dute) asoziazio organo-mineral ahulagoa dute, eta egitura gutxi zehaztua, tamaina irregularreko agregatuekin. Gainera, nabarmendu beharra dago horizonte horiek hidrofoboak direla. Bi faktoreak garrantzitsuak dira lurzoruaren portaera hidrologikoan.

Belardipeko eta laborepeko lurzoruek, oro har, egitura pikortsuak dituzte (agregatu txikiak eta uniformeak) eta lurrazaleko horizonteetan ez dira hidrofoboak. Horrek lurzoruaren iragazkortasun handiagoa dakar.

Aztertutako lurzoruen egitura orekatuak, lurzoruaren horizonteetan egitura masiborik ez egoteak eta porositate handiak haiek aireztatzen laguntzen dute. Beraz, ez dira sarriak lurzoruaren oxigenazio urria adierazten duten drainatze eskasaren ezaugarriak (kolorezko orbanak burdin oxidoa jariatzearen ondorioz); lurzoru alubialetan, malda txikian kokatutakoetan eta iragazkortasun txikiko azpiko materiala dutenetan izan ezik. Era berean, egitura nagusiek sustrai-garapena bultzatzen dute (belardi azpiko lurzoruetan oso trinkoa da).

Lurzoruaren sakonera eraginkorra (A eta B horizonteak), oro har, neurritzotik txikira artekoa da, eta hori eboluzio ertaineko lurzoruen (kanbisolak) nagusitasunarekin lotuta dago. Neurritzko malda handiko esparrua da, eremu batzuetan higadura-prozesu aktiboak dituen.

Zenbaitetan, lurzoruaren eta finkatutako harkaitzaren arteko kontaktua bat-batekoa da (kontaktu "litikoa"). Irristatze-prozesuekin zuzenean lotuta dago hori; zehazki, geruzen antolaera maldaren aldekoa denean.

b. Unitate kartografikoak

Gipuzkoako lurraldean dagoen kartografia edafologikoa FAO (1975) sailkapenean oinarrituta dago. Unitate horiek osatzen dituzten lurzoru motak FAO (1990) bertsioaren eta Soil Taxonomy-ren (1994) arabera sailkatu dira (horiek dira gehien hedatutako araudiak). Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen Departamentuak argitaratutako "Gipuzkoako geomorfologia eta edafologia" azterlanetik ateratako planoak erantsi da. Ikus 10. kapituluko (Ingurune naturala. Edafologia. Unitate kartografikoak) 3. planoak.

Hona hemen aztertutako lurraldeko unitate kartografiko nagusiak:

- **Kanbisol humikoa**

Baldintza hezei eta erlatiboki hotzei lotutako unitatea da. Baldintza horietan materia organiko ugari metatzen da. Lurzoru mota honen ezaugarri nagusia A horizonte unbrikoa da, pH azidokoa eta lodiera nabarmenekoa. Lurzoru hau elikagai-elementuetan pobrea da, baina baso-produkziara ondo moldatzen da.

Aztertutako eremuaren barruan, batez ere iparraldean hedatzen da: Jaizkibel, Ulia, Igeldoko itsasertzeko zerrenda, etab.

- **Flubisol eutrikoa – Lubisol ortikoa**

Lurzoruen asoziazio honek ibaien haranak edafikoki ezaugarritzen ditu. Flubisol eutrikoa, 50 cm-tiko gorako sakoneran ezaugarri hidromorfikoekin (geruza freatikoaren ondorioz) edo gabe, lautada alubialen formazio edafikoa da. Simaurtze sarrien ondorioz neurri batean antropikoa den A horizonte trinkoa eta materia organikoan aberatsa du bereizgarri.

Lubisol ortikoa lautada alubialetan ere ageri da, legarrak metatzen diren eremuei lotuta. Baina, batez ere, ibai-jatorriko terrazetan dira formazio nagusia. Ezaugarri nagusia oso harritsua izatea du. Harriak gunen batzuetan lurzoruen gainazalera ere iristen dira.

Topografia lauaren gainean, lurzoru-asoziazio horrek nekazaritza-balio handia du. Lubisol artikoaren kasuan, balio hori murriztu egiten da harriak lurzoruen gainazalera iristen direnean.

- **Gleysol eutrikoa**

Unitate hau ibaien amaierako tarteetako lautada alubialei dagokie. Lautada horiek mareen eraginpean daude. Ezaugarri nagusia, topografia lauaz gainera, lurrazaletik gertu dagoen geruza freatiko oso murriztailearen presentzia da. Lurzoru honen eragozpen bakarra da lurrazaletik gertu dagoen hidromorfia handia. Baina arazo hori erraz konpon daiteke, oinarritzko drainatze-elementuak eraikita. Horrenbestez, oso nekazaritza-ahalmen handiko lurzorua da.

- **Kanbisol eutrikoa – Lubisol gleikoa**

Aztertutako eremuaren iparraldeko erdian gehien hedatutako unitatea da. Lurzoru hauen jatorrizko materiala tuparria da; beraz, egitura fina eta eroankortasun txikia dute. Irristatzeak izan ditzakete.

Mendi-hegalen goialdeetan eta higaduraguneetan agertzen dira eboluzio eta lodiera txikieneko lurzoruak (kanbisol eutrikoen motakoak). Tarteko eta behealdeko eremuetan, berriz, lubisola nagusitzen da.

Lurzoru hauek baldintza kimiko egokiak dituzte. Aldiz, ez dituzte oso baldintza fisiko onuragarriak, higaduraguneetako lurzoruen lodiera txikiagatik nahiz sustrai-garapena zailtzen duen drainatze txarragatik. Larreak ondo egokitzen dira asoziazio honetako lurzoruetara.

- **Kanbisol distrikoa**

Unitate hau aztertutako eremuaren hegoaldeko erdian nagusi da. A horizonte okriko bat eta B horizonte kanbiko bat izatea du bereizgarri. Lurzoru mota honen aipatzeko beste ezaugarri batzuk dira: O horizonteak (organikoak), koniferoen ustiapenarekin lotuak, hori izanik lurraldeko erabilera nagusia; pH guztiz azidoa; baseetako asetasun-maila baxua; eta lurzoruaren neurrizko lodiera, 50 cm ingurukoa.

Ondorioz, lurzoru pobrea da, produkzio-ahalmen mugatukoa. Alderdi negatibo hori areagotu egiten da malda handietan kokatzeagatik.

c. Balorazioa

Aztertutako esparruan, baldintza topografikoak dira lurzoruen erabilera-ahalmena gehien mugatzen duen faktorea. Lurzoru gehienek garapen-maila neurrizkotik altura bitartekoa dute, eta emankortasun-baldintza onargarriak dituzte. Alabaina, malda handiak egoteak lurra lantzeko ahalbideak mugatzen ditu. Drainatze eskasaren, sakonera txikiaren, eta haitz eta harri ugarien ondoriozko mugak toki jakin batzuetan besterik ez dira ageri. Horregatik, lurzoru horiek neurrizkotik txikira bitarteko erabilera-ahalmena dute.

Lurzoruaren sakonera eraginkor handia, emankortasun onargarria eta malda txikia bi egoeratan biltzen dira; alde batetik, haran hondoetako mendi-hegaletan, ibilgu nagusiei lotuta; eta, bestetik, banalerro lauetan edo oso malda leunekoetan. Lehenengo kasuan, lurzoruen erabilera mugatuta dago drainatze motelagatik eta mesedegarriak ez diren ezaugarri kimikoengatik. Bigarren kasuan, berriz, mugak emankortasun txikiaren ondoriozkoak dira. Nolanahi ere, bi kasuetan muga arinak dira. Aztertutako eremuan, erabilera-ahalmen handiko lurzoru horien azalera eraginkorra oso txikia da.

4.2.5.- HIDROLOGIA

Eremua Ekialdeko Kantauriko Arro Hidrografikoan dago bilduta. Esparru hori Kantauri itsasora isurtzen duten arro motz eta emaritsuek osatzen dute. Aztertutako Eremu Funtzionaleko ibilgu nagusietara (Oria, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa) beste ibilgu txiki batzuek jotzen dute. Uhar-ibilguak izan ohi dira, lursail zabalak estaltzeko adinako zuhaitz erako sarerik osatzera iristen ez direnak.

Laburbilduta, atal honetan deskribatuko diren arroen ezaugarriak hauek dira:

- Oriaren arroak 882,5 km²-ko azalera du, eta haren ibilgu nagusiak 82,7 km-ko luzera. Haran nagusiak hego-ipar norabidea hartzen du Lasarteraino, eta bertan ekialde-mendebalde norabidea hartzen du.
- Urumearen arroak 279 km²-ko azalera du, eta haren ibilgu nagusiak 59,4 km-ko luzera. 1.136 m-ko gehieneko kota du, eta ibilgu nagusiaren malda % 1,5ekoa. Arroak, oro har, hego-ekialde ipar-ekialde orientazioa du.
- Oiartzun ibaiaren arroak 85,27 km² ditu eta aztertutako ibaien txikiena da. Ibilgu nagusiak 16,6 km-ko luzera du. Ibaiak, Pasaian itsasoratu aurretik, senaia zabala osatzen du, Pasaiko portua hartzen duena hain zuzen.
- Bidasoaren arroak 700 km²-ko azalera du, eta haren ibilgu nagusiak 69 km-ko luzera. Gipuzkoako tarte bukaerako sektoreari dagokio, Endarlatzatik ibaian behera. Zati horretan, ibaiak, malda txikiagatik, urpetze-lautada zabala sortu du; eta, Behobiara iristean, mareen ekintzaren eta metaketaren eraginez, Txingudiko padurak eratu ditu.

Aipatutako arroen oinarritzko ezaugarriak ondorengo taulan azaltzen dira:

IBAIA	AZALERA (km ²)	LUZERA (km)	BATEZ BESTEKO PLUBIOMETRIA (mm/urte)	URTEKO BATEZ BESTEKO ISURKETA (m ³ /s)
Oria	882,5	82,7	1.547	28,3
Urumea	279,0	59,4	2.500	13,7
Oiartzun	85,3	16,6	2.333	3,7
Bidasoa	700	69	2.100	28,7

a. Lur gaineko hidrologia

- **Lur gaineko drainatze-sarea**

Eremu funtzionala aipatutako lau arro hidrografikoetan bildutako lurretan kokatu arren, esparru horretako ibilgu gehienak oso bide laburreko errekek eta errekaetoak dira, malda handikoak eta, gehienbat, urtaroko erregimenekoak.

- **Oriaren arroa**

Oria ibaia da Gipuzkoako Lurralde Historikotik igarotzen diren ibai guztietatik arro handienekoa. Ibaiaren zati bat Nafarroako Foru Erkidegoari dagokio. Aizkorri mendilerroko erreka biltzaileetatik abiatuta sortzen da. Seguratik ibaian behera, Etxegarartetik jaisten den Urtsuaran ibaiaren ekarpenak jasotzen ditu. Beasainen Estanda ibaiarekin bat egiten du. Horrek Arriarango urtegiak erregulatutako azpiarroa du, Goierri hornitzeko. Goialde osoan, arroa iragazkortasun txikiko material detritikoen gainean garatzen da. Haranak zabalak dira ibaiaren goialdea izateko, eta gune askotan lodiera txikiko metaketa alubialak daude. Ordizia eta Alegia artean, eskuinaldetik, Agauntza, Amundarain, Ibiur eta Amezketa ibaiak euren urak isurtzen dituzte. Ibai horiek Aralar mendilerroan sortzen dira. Aralar mendilerroa mendigune batik bat karstikoa da eta iturburu ugari ditu. Gainera, fenomeno epikarstikoen garapen handia du: haitzuloak, leizeak, dolinak, etab.

Leitzaran ibaiak Andoainen isurtzen ditu urak. Oso ibai emaritsua da, haren arroaren plubiometria altuaren ondorioz, eta Oriaren azken ibaiadar garrantzitsua da. Oriak Lasartera iristean norabidea bat-batean aldatzen du, itsasertzeko katearen erliebeekin topo egitean. Hala, bide zuzenenari jarraitu beharrean, Donostian itsasoratzeko, hainbat meandro egiten ditu itsasorako irtenbidearen bila; eta, azkenean, Orion aurkitzen du irtenbide hori, Donostiatik nahiko mendebaldera.

Arroan giza populazio handia dago finkatuta, Oriaren ardatzaren inguruko zenbait hirigunetan banaturik. Ardatz hori, gainera, komunikabide garrantzitsua da. Oriaren beraren eta ibaiadar askoren amaierako tartetean, behealdeko inguruetakoz gizatiartzeak kontraste egiten du oso biztanle gutxiko eta oso ondo kontserbatutako eremu batzuekin, hala nola, Aralar eta Aizkorri mendilerroekin.

- **Urumearen arroa**

Urumea ibaia Bortzirietako (Nafarroa) mendigune paleozoikoaren erliebe menditsuetan sortzen da. Mendigune hori litologia batik bat arbeltsukoa da. Horrek sorraziti ditu bai arroaren bai goialdeko ibilguen malda handiak. Eremu honetan bi azpiarro nagusi garatu dira, Urumearena berarena eta Añarberena. Azken hori urtegi baten bidez erregulatuta dago, Donostialdeko eskualdea hornitzeko.

Ereñotzutik behera, ibaiaren ibilbidearen materialak aldatzen dira, eta Donostian itsasoratu arte Kretazeoko flysch faziesak nagusitzen dira. Bertan, ibaiak hareharriz osatutako itsasertzeko katea mozten du. Behealde horretan arroa leundu egiten da, ibaiak malda txikiagoa du eta ureztatze-ibar garrantzitsua sortzen da. Hala, Hernanitik Donostiaraino metaketa alubial ugari pilatu dira (puntu batzuetan 50 m-ra ere iristen dira).

Urumearen goialdea Goizueta inguruan dago (Nafarroako Foru Erkidegoa). Ondoren, tarte batean, ibaiak Gipuzkoa eta Nafarroa arteko muga ezartzen du. Azken kilometroak Gipuzkoari dagozkio osorik. Hartze-arroaren izaera geologikoa dela-eta, haren urak gutxi mineralizatuta daude.

Oro har, hoberen kontserbatutako arroetakoa da; nahiz eta azken kilometroetan, Hernanitik aurrera, oso antropizatuta dagoen. Behealdean, 160.000 biztanle inguru biltzen ditu.

- **Oiartzunen arroa**

Oiartzun ibaiaren arroak 85,27 km² ditu eta Gipuzkoako lurraldetik igarotzen diren ibaien txikiena da. Arroaren goialdeak publiometria altua du. Aiako Harriko material granitikoaren eta arbel paleozoikoaren gainean garatzen da, malda handiak ditu eta haranak oso ahokatuta daude V forman. Erdialdeko beheko ibilbidetik aurrera litologia aldatu egiten da Kretazeoko material detrikikoetara batik bat, maldak leunagoak dira, urpetze-lautada bat sortzen da eta, gune batzuetan, terraza-metaketa garrantzitsuak ere badira.

Arro luzanga da eta bi ibilgu nagusi ditu. Horiek Oiartzungo merkataritzagunetik ibaian gora elkartzen dira. Ibaiak Pasaiaiko portua hartzen duen senaiara isurtzen ditu urak.

Arroaren goialdearen osaera litologikoaren eraginez, ibai honen eta bere ibaiadar gehienen urek gatz-kontzentrazio txikiak dituzte. Horrek oso eroankortasun txikiak sorrarazten ditu. Oso ibai laburra da. Goialdea oso ondo kontserbatuta dago ibai-habitatari dagokionez. Beheko erdiak tarte aldatuagoak ditu, ertz urpegarrietan hiri- eta industria-kokaleku ugari, eta azpiegiturak ere ezarri baitira.

- **Bidasoaren arroa**

Bidasoaren arroa Nafarroako Foru Erkidegoari dagokion lurraldean hedatzen da batez ere. Gipuzkoako tartea bukaerako sektoreari dagokio, Endarlatzatik ibaian behera. Zati horretan, ibaiak, malda txikiagatik, urpetze-lautada zabala sortu du; eta, Behobiara iristean, mareen ekintzaren eta metaketen eraginez, Txingudiko padurak eratu ditu. Arro txiki horien portaera hidrologikoa eta berariazko emariak Oiartzun eta Urumea ibaien arroetako antzekoak dira, oso plubiometria altuekin. Batez besteko ekarpenei eta emariei buruz arro horietarako kontuan hartutakoa baliozkoa da ere Bidasoaren arrorako Gipuzkoako zatian.

• **Lur gaineko uren kalitatea**

Oraingo alderdi hau definitzeko, "Ur-masen egoera orokorra mugapen, kategoria eta motaren arabera egoera biologikotik, ekologikotik eta kimikotik abiatuta. EAE 2012" eskainiko informazioa erabili da, Euskal Ur-Agentziak burututa.

- **Oriaren arroa**

Azken urteetan, nagusiki, hondakin-urak arazteko sistema martxan jarri delako eta, oraindik orain, paper-fabrika batzuk, presentzia garrantzitsua duen industria Oria bailaran, itxi direlako, uraren kalitate fisiko-kimikoa pixkanaka hobegotzen joan da. Karga kutsatzaileak gutxi gera-behera % 95 murriztu dira. 2003an Oria Garaiaiko hondakin-urak tratatzen dituen Legorretako EDARA martxan jarri zen. 2012.urtean Adunako Edarra jarri zen martxan eta honekin batera Oria Erdi-behearen saneamendu sistema. Lasarte-Usurbileko saneamendua eta honen konexioa Hernaniko Urumearen kolektorearekin oraindik gauzatzear dago, 2015eko udaberrian jada martxan egotea espero da. Honek guztiak noski, Oria Behearen kalitatea hobetzean parte hartu du, oraindik ibaiaren beheko zatian adierazitako arrazoiengatik kutsadura existitzen bada ere.

- **Urumearen arroa**

Azken urteetan zehar, kutxadura neurriaren gutxitzeko joera nabarmentzen da Urumea ibaian. Honen arrazoia saneamenduko proiektuak gauzatzearen ondorioa da. Ixurien % 95a, gutxi gora-behera, Urumeako Hodi Biltzaile Nagusiari dago lotuta eta Loiolako EDAREan dira tratatuak eta. Ergobian zenbait ixurki uretara zuzenean joaten direnak egon arren, itxuraz bolumen urriak suposatzen dute.

Saneamendua gauzatzeko prozesuan bi une azpimarratzen dira bere garrantziagatik. Lehenengoa 70. urtean gertatzen da, paper-fabriketako isurki gehienak jasotzen direnean. Bigarrena gertatzen da 1992 eta 1997 urteen artean Donostia, Astigarraga eta Hernaniko udalerrietatik datozen isurkiak lotzen diren unean; gainera, oso kutsatzaileak diren zenbait enpresen ixtea ematen da.

Urumea ibaiaren egoera gaur egun nahiko ona da, zeren ibaiaren habitata orokorrean ongi zaindua dago, Hernanitik beherako zatia ezezik. Zentral hidoelektrikoek gutxieneko emariak geroz eta hobeago betetzen dituzte eta ardatz nagusian dauden zortzi naza edo uharkek bere arrain-hazkuntzaren eskala dute. Ibai osoaren IBMWP puntuazioa altua da. Honek adierazten du urak garbiak direla, Ergobiakoa ezezik, eta puntu honetatik bere ahokadurararte non bere egoera "txarra ona baino" baita.

- **Oiartzunen arroa**

Oiartzun ibaiaren kalitate fisiko-kimikoa nabarmen hobeagotu da azken urteetan, kutsadura organikoaren gutxitzea erregistratuz. Hobekuntza honek zerikusi dauka arroaren saneamendu prozesuarekin. Gaur egun isurkien % 95a jasotzen da. Bestalde Arditurriko meatokietan egindako lanek errekatxoko zinkaren maila jaisteko balio izan dute, baina oraindik balore altuak erregistratzen dira.

Beste adierazleei dagokienez, azken urteetan kutsadura organikoaren gutxitzea nabarmentzen da. Era berean, kalitate biologikoaren eboluzio baikorra nabari da. Saneamendua gauzatu aurreko urteetan, indize biotikoa balore urriak lortzen zituen, alderantziz, gaur egun, erregistratutako puntuazioa, nagusiki, kalitate on eta oso oneko ibaiaren goialdeko zatiei dagokie, bere kalitatea hiriko zatietan murriztuz. Ibaiaren bukaeran errekupeketa urriagoa izan da, zeren zatia zenbait isurkiengatik hunkitua ikusten den. Autobidean dagoen zubiaren alboko kontrol puntuan zein Pasaia badien, ur masaren egoera “ona baino txarragoa” da.

- **Bidasoako arroa**

2007ko kanpainako datuen arabera, baita aurreko denboraldietan ere, Bidasoa ibaiak, nagusiki, kalitate oneko urak aurkeztzen ditu. Hau, ibaiako habitatetaren egoerarengatik eta arrora isurki gutxi botatzearen ondorioa da. Kantauri ekialdeko ibairik ondoen zaindutakoa da. Endarlazako zatian, egindako laginketa guztietan, uraren kalitate fisiko-kimikoa oso altua da. Sarritan ez da azaltzen ez kutxadura organikorik ezta ere metalenik. Uraren kalitate biologikoari dagokionez, seriearen laginketa ezberdinetan lortutako IBMWPeren puntuazioak nagusiki altuak dira eta uren kalitate ona adierazten dute.

Behobia auzoa baino beherago dagoen ibai zatian, uraren okerragoa da “ona baino txarragoa” kalitatea lortuz. Bestalde, Santiagoko zubia baino beherako ibaiko zatietan, Txingudiko eremuan, ur masaren egoera orokorra ona da.

Jaizubia errekaen beste aldean, Urdanibia hotelaren ondoan kokatutako kontrol puntuak kutsadura pixkat azaltzen du, ur masaren egoera orokorra “ona baino txarragoa” delarik.

• **Balorazioa**

Ondorio gisa, ibilgu nagusien egungo egoera ertain eta onargarri artekoa dela esan daiteke, dagokion ibilguaren arabera. Hala ere, azken urteetan hobetze aldera jo du, garatu diren eta garatzeko bidean dauden saneamendu-planen esker.

Eremu Funtzionalean bilduta dauden, ibilgu nagusien ibarrei eta ibaiadarrei dagokienez, oro har, eta salbuespenak salbuespen, urtaroko erregimenekoak dira eta oso aldakorak, urte osoan zehar emari-zirkulazioa badute ere, eta ez dute kalitate-arazo aipagarriren zantzurik. Lurraldean barreiatutako kutsadura-iturri gisa, aipatzekoa da esparruan nagusitzen den nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera, eta, eta tokian tokiko iturri puntual gisa, arro isurlean dagoen jarduera kutsatzaileraren bat edo beste (aire zabaleko erauzteak, industriak, zaborteziak, etab.).

Horrenbestez, lur gaineko hidrologiari balio ertain-handia eman zaio; neurri handi batean, ibai-uren kalitatea hobetze aldera administrazioak egiten ari diren inbertsioak eta ahaleginak kontuan izanda.

b. Lurpeko hidrologia

- **Dauden akuiferoak**

Eremu Funtzionalean dauden materialen deskribapena oinarri hartuta (azterlan honetako geologiari buruzko 4.2.3 atalean azaltzen da), esparrua, hidrogeologikoki, honela ezaugarritu daiteke:

Batik bat buztintsuak diren formazioak lur gaineko isurketa errazten duten material iragazgaitzez osatzen dira.

Batik bat karedunak diren formazioetan, karstifikazio-prozesuak antzeman diren gunetan, tuparri-mailek mugatutako akuiferoak ager daitezke. Bestalde, eremu horietan, egiturak bidea ematen du lerrokatutako akuiferoak egoteko. Akuifero horiek bat datoz zamalkadura aurreekin edo eten nagusiekin.

Flysch motako formazioek (batez ere, material iragazkor eta iragazgaitz txandakatuez osatzen dira) bidea ematen dute geruza iragazkorrenetan sartutako akuifero txikiak egoteko. Horrek behin-behineko jarioguneak sorrarazten ditu.

Azkenik, batik bat pikortsuak diren metaketek eta formazioek (besteak beste, jatorri alubialeko metaketa kuaternariak, etab.), egoera aldatuenean, bidea eman dezakete maila iragazkorrenetan barrena ura zirkulatzeko, pikor arteko porositatearen ondorioz. Horrek behin-behineko maila piezometrikoak sorrarazten ditu.

Ikuspegi praktikotik, maila piezometriko egonkorra ezarrita duten eremu bakarrak Urumea, Oria eta Bidasoa ibaien metaketa alubialak dira, ibilguen mailen arteko lotura nabarmenaz (hirurak erregimen iraunkorrekoak dira).

- **Baliabidearen balorazioa**

Lurpeko hidrologiari balio ertain-altua eman zaio. Horrek baliabidearen oso zaurgarritasun handia adierazi nahi du.

4.2.6.- LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK

Ikuspegi biogeografikotik, azterlanaren eremua haran atlantikoen eta itsasertzeko zerrendaren eskualde naturaletan kokatzen da, *Vegetación de la Comunidad Autónoma del País Vasco* (Aseginolaza & al., 1986) liburuan egiten den eskualde naturalen arabera banaketari jarraituz. Eskualde horien ezaugarri nagusia tenperatura leuneko eta prezipitazio ugariko klima da, Kantauri itsasoarekiko hurbiltasunaren eta altitude baxuaren eraginez.

Flora, oro har, eurosiberiarra eta atlantikoa da.

Azterlanaren eremuak hirigune txikiak eta ertainak, eta lurraldean sakabanatutako baserri ugari biltzen ditu. Giza presio handi horrek jatorrizko landaredia nabarmen aldatzea ekarri du berekin (urbanizazioak, industriaguneak eta komunikabideak direla medio), abeltzaintzarekin, ikatza lortzeko ustiapenarekin eta, duela gutxiago, zura ustiatzearekin lotutako eraldaketek gain. Zura ustiatzeari dagokionez, gehienbat koniferoen basoberritzeak egin dira eta, horien azpian, denborarekin, landaredi potentziala ordezkatzeko duen sastrakadiari dagozkion espezieak agertu dira. Horiekin batera, sail landatuen, belardien eta larreen mosaikoak itxuratzen du Euskal Herriko landare-paisaia tipikoa.

Industria-jarduera biziak, oro har, presio handia eragiten du ibaiertzeko ekosistemen gainean, horiek erabat aldatzeraino. Esparru batzuetan, bertakoak ez diren espezieekin ere landareberritu dira. Oria, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa ibaien haranetan eta ibaiadarretan egon ohi da naturaltasun handieneko ibaiertzeko landaredia, bai eta bertako landarediaren gune garrantzitsuenak ere.

Eskualde honetan gehien hedatutako landa-erabilerak hauek dira: behi-hazkuntza, batez ere esnetarako (horretarako behar diren larre eta bazka-laboreekin); fruta-arbolen sailak (batez ere sagarrondoak); eta *Pinus radiata*, *Quercus rubra*, *Fagus sylvatica* eta *Platanus sp.* espezieen baso-ustiapenak. Haran hondoen zati handiena industrialdeek eta hirigune urbanizatuak hartzen dituzte. Zuhaitz-landaredi natural gutxi-asko helduaren arrastoak arboladi txikietara edo zuhaitz bakanetara mugatzen dira.

Ondorengo ataletan, Eremu Funtzionalean dauden landare-formazioak deskribatzen dira, landare-paisaiaren zatitzat. Gainera, unitate nagusiak eta horien kontserbazio-balioa zehazten dira.

a. Landaredi potentziala

Landaredi potentzialtzat hartzen da egungo klimarekin, topografiarekin eta gainerako baldintzekin orekan egongo litzatekeena, gizakien jarduera eta haien abereena etenez gero, eta landaredia bete-betean garatzera iritsiz gero.

Landaredi potentzialaren kontzeptua, segida ekologikoaren kontzeptuarekin batera, funtsezkoa da egungo landaredia ulertzeko, eta lurraldea landareberritzeko jardunak planifikatzeko. EAEko landaredi-maparen arabera (1/25000 eskalakoa da), azterlanaren eremuko landaredi potentzialak egitura honi jarraituko lioke:

- Harizti eta hostozabalen baso mistoak, eta harizti azidofiloak Lurralde zati handiena hartuko lukete. Pagadiak ere zati handiak hartuko lituzkete estai menditarrean.
- Ameztiak hareharrien nagusitasuna duen itsasertzeko zerrenda eozenoa hartuko luke batez ere. Andoaingo mendietako enklabe edo eremu txiki askotan ere egongo litzateke.
- Haltzadiak ibaiertz guztietan hedatuko lirateke, eta ibaien behealdeko tarte guztietan ibaiertzeko baso handiak sortuko lituzkete.

Itsasertzeko landarediari dagokionez, populazioek eta haien eraginpeko eremuek paduretako eta kostaldeko hareatzetako landaredi-lur zabalak hartzen dituzte. Itsasertzeko lerroaren zatirik handiena itsaslabarretako landarediari dagokio.

b. Egungo landaredia

Antzinako *Quercus robur* hariztiek egungo lurzoru aberats eta sakonen ondarea utzi dute. Haiei esker, gaur egun, Eremu Funtzional ia osoa nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioarako erabiltzen da. Landaredi-unitateen artean, egun, belardi eta soro atlantikoak, fruta-arbolen sailak (batez ere sagarrondoak) sakabanatuta dituztela, dira nagusi landare-paisaia. Jatorrizko basoak, oro har, eremu osoan barreiatutako erakusgarri txikietara murrizten dira. Normalean hedadura eta heldutasun eskasa dute.

Haran hondoen zatirik handiena bide-azpiegiturek, industrialdeek eta bizitegi-eremuek hartzen dute.

Egungo landaredia 1:100.000 eskalan irudikatu da. EAEko sistema kartografikotik aterea da (1/25.000 eskalan egina da). Ikus "Ingurune naturala. Landaredi-unitateak" 10. kapituluko 4. planoa.

c. Landaredia unitateak. Balorazioa

- **Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa**

Unitate honetan, hurrenez hurren izandako eraldaketetatik gorde diren edota lehen antropizatutako eremuetan leheneratu diren bertako basoaren aztarnak biltzen dira. Aztarna horiek bat datoz aztertutako Lurralde zatirik handienak hartuko lukeen asoziazioaren optimoarekin. Gainera, haritzen eta lizarren baso mistoa, eta harizti azidofiloaren litezkeen hondar-aztarnak ere biltzen ditu.

Lehenengo baso motan, *Quercus robur* haritz pedunkulatua nagusitu arren, eskualdeko zuhaitz eta zuhaixka gehienak barne hartzen dira. Era askotako zuhaitz-eta zuhaixka-geruza du, belar-geruza bezalaxe. Harizti azidofiloak, berriz, askoz ere espezie gutxiago ditu, eta iratze-oihanpearen oparotasuna du bereizgarri.

Baso misto horren ohiko kokapena ibarrak, haran estuak eta malda handiko mendi-hegalak dira, azidotasun txikiko lurzoruen gainean. Bertan, Euskal Herriko beste baso batzuetan ez bezala, besteen gainetik nagusituko den zuhaitz-espezierik ez dago, ingurumen-baldintzek ez baitute horretarako biderik ematen. Hala, haritzak, hazkunde motelekoa, eite txikikoa eta azidofiloa denez, tarteka beste espezie batzuei uzten die lekua, batik bat egonkorak ez diren eta lur-jausietarako joera duten eremuetan. Haran estuen hondoetan, eten nabarmenik gabe, *Alnus glutinosa* haltzadiari uzten dio lekua. Izan ere, aipatutako espeziea egoera topografiko horretan agertzen diren basogune ugartan nagusitzen da.

Gainerako baso hostoerorkorren antzera, gizakiaren ekintza bizia jasan du eta asko murriztu da. Zenbaitetan laborantzarako lur desegokiak hartzen dituztenez, malda handiak edota haitza azaleratzen deneko lodiera txikiko lurzoruak direla-eta, atal ugari ditu; batzuk egoera egokian eta beste batzuk, gehienak, zertxobait aldatuagoak.

Zuhaitz-geruza desagertzeak lahardia garatzea dakar berekin. Lahardiak zenbaitetan lurzorua estali egiten du sare trinko-trinko eta sartzinarekin. Hain zuzen, lahar horietatik, ondoren, lehen zuhaitz-espezie kolonizatzaileak ernetzen dira, hala nola, lizarra edo sahatsa. Horiek, pixkanaka, baso heldurantz aurrera egiten dute. Egoera horretan daude belardien arteko heskaiak. Horregatik, hain zuzen, bertako basorako erreserba garrantzitsua dira.

Harizti azidofiloaren masa gutxi-asko puruei dagokienez, gaur egun, haritz pedunkulatuaren sail txikiak eta, betiere, gutxi-asko aldatuak gordetzen dira, tamaina ertaineko zenbait zuhaitzekin edo nabaritasun txikiko bigarren geruza osatzen duten zuhaixkekin.

Azterlanaren esparruan, formazio horren masa garrantzitsuenak zenbait erreka-jaisten diren malda handiko eremuetan daude; adibidez, Abaloizko (Andoain-Lasarte) ibarreko, Añarbeko, Leitzarango, Jaitzubia haraneko eta Enderako sakaneko basoguneak daude.

Landare-formazio horiek **natura-balio handikotzat** har daitezke; izan ere, haran atlantiko askoren baso adierazgarriak izanik, baso txikien mosaiko batera mugatuta daude gaur egun.

- **Txilardi/otadi/iratzedia eta elordi lahardia**

Aztertutako eremuan, hariztien landare-estalki zuhaizkara desagertu ondoren agertzen den sastraka bi mota hauetakoa izan daiteke: txilardi/otadi/iratzedia eta elordi lahardia.

Lehenak proportzio desberdinetan txilarra, otea eta iratzea nagusitzen direneko landare-multzoak biltzen ditu. Oteak tamaina handia hartzen du hazten utziz gero. Oso sastrakadi trinkoak sortzen ditu. Horrek basoa leheneratzeko aproposak diren lurzoru garatuagoak eta ez hain oligotrofoak daudela adierazten du. Txilarra, berriz, tamaina txikiagokoa da eta ez da otea bezainbeste nagusitzen, inguru oligotrofoetan eta lehorretan salbu. Izan ere, otea ez da hain egokia basoa garatzeko. Iratze arruntak, leku askotan gizakiaren ekintzaz lagunduta, trinkotasun handiko populazio monoespezifikoak erraz sortzen ditu. Lurzorua erabat estaltzera iristen da.

Oro har, formazio horiek jatorri sekundariokoak dira eta jatorrizko basoa desagertu ondoren sortu dira. Era berean, *Pinus radiata* pinudien “basoak soildu” ondoren azkarren agertzen den estalkia da. Aztertutako Lurralde zati batzuetan hedadura handia hartzen du, esaterako, Talagaiña-Mendizorrotzen, Jaizkibel mendian, Aiako Harrian, etab.

Elordi-lahardiei dagokienez, basoen mugako formazio ezaugarriak edo orla arantzadunak dira, eta haien andeatzearen lehen etapa adierazten dute. Formazio hori baso mistoen eremuan agertzen da batez ere, baina baita harizti azidofiloetan ere. Basoaren esparru aldatuenak aukeratzen ditu. Belardien, larreen eta sail landatuen lursailak banantzen dituzten heskaietako asko osatzen dituzte, eta bertako zuhaitzen landareentzako babesleku dira. Bertan lahardiak sarri agertzen dira, baina nekez hartzen dituzte kartografiatu daitezkeen hedadurak.

Bi multzoen **natura-balioa ertain-txikitzat** har daiteke.

- **Haltzadi kantauriarra**

Ibilgu guztietan, potentzialki, ibaiertzeko basoak azaltzen dira. Aztertutako esparruan, baso horiek haltzadi kantauriarrez osatzen da. Galeria moduko baso-formazioak dira, haltza nagusi dutenak. Ibilguak inguratzen dituzte, eta iraunkorki istildutako sakonuneetan edo oso lurzoru hezeetan ere azaltzen dira. Gaur egun, haran hondoetako giza presio handiak formazio horietako asko desagertzea, eta belardietan eta sail landatu gisa drastikoki eraldatzea ekarri du berekin. Beharrezkoa zenean, lurrak drainatu ere egiten ziren. Kasurik hoberenean, zuhaitz-errenkada gutxi batzuetara murriztuta daude, astigar zurien sailekin batera. Batzuetan, astigar zuriak daude haien orde.

Oso aberatsak dira espezieetan. Izan ere, espezie propioez gain, hariztiarenak eta baso mistoarenak daude, etenik gabe haltzadiarekin nahasita.

Erreka askotan eta ibai nagusietan haltzadien gunek gutxi-asko aldatuak gordetzen dira. Adibide gisa, Jaitzubia haraneko, Oiartzun eta Irungo erreka ahokatueta, Leitzaran eta Urumearen tarte batzuetako... gunek daude.

Kontserbatzeko **balio handiko formazioa** da, eta hariztia besterik ez du pareko.

- **Belardi eta sail landatu atlantikoak**

Aزتutako esparruko unitate hedatuena da, eta ia osorik hartzen du hura. Baserrien inguruko mendi-oin gehienak hartzen ditu.

Belardiak landare belarkaren formazioak dira, aziendarentzako bazkara zuzendutakoak. Oro har, segatze eta simaurtze bidez lortzen dira. Lurra ez da harrotzen eta espezie exotikorik ere ez da ereiten. Horregatik esan daiteke hala lortutako belardiak formazio erdinaturalak direla, Quercus robur hariztien serieetan kokatutakoak. Beste batzuetan, lantze eta bazka-espezieen ereite bidez lortzen dira, eta ondoren erein eta ongarritu egiten dira. Halakoetan, formazio artifizialak dira.

Esparruko labore nagusiak artoa, arbia, erremolatxa eta bestelako bazka-espezieak dira, giza kontsumorako barazkiez gain. Eremu horietan agertzen diren belar txarrak irauli eta nitrogenatutako lekuetako berezkoak dira.

Muga batzuetan eta bazterreko esparru batzuetan heskaiak eta baso txikiak azaltzen dira. Horiek funtsezko eginkizuna dute basoetako berezko landare-espezie ugariaren kontserbazioan.

Larre eta sail landatu atlantikoek **natura-balio ertain-txikia** dute.

- **Baso-sailak**

Pinus radiata edo *P. insignis* pinuan, *Quercus rubra* haritz gorrian eta *Fagus sylvatica* pagoan oinarritutako basoberritzeek lursail handiak hartzen dituzte mendi-hegaletan, baserriaren hurbileko ingurutik urrunduz gero.

Funtsezko eginkizuna enbalaje, altzari, paper-ore eta abarretarako zura lortzea dute. Ustiapena baso-soilketa bidez egin ohi da, zuhaitzak garapen egokira iritsi ondoren.

Zuhaitzen pean hazten den landaredia azpian duen lurraren eta horri ematen zaion erabileraren arabera dago; baina, oro har, belar- eta zuhaixka-espezie aitzindariak osatzen da.

Naturaren ikuspegitik **balio ertainekotzat** har daiteke.

- **Itsasertzeko landaredia**

Itsasertzeko zerrendan dauden landare-formazioek berez ez dute formazio "nagusi" bat osatzen Eremu Funtzionalaren osotasunaren barruan. Hala ere, haien ezaugarriak kontuan izanda, bidezkotzat hartu da atal honetan sartzea.

Izendapen horren pean hiru mota hauetako landaredi-unitateak biltzen ditugu, EAEko landaredi-mapen izendapenaren arabera (1/25.000 eskala):

- Itsasertzeko labarretako komunitateen konplexua.
- Kostaldeko hareatzetako landaredia.
- Paduretako landaredia.

Itsaslabarretan, landareak garatzeko oso baldintza txarrak daude. Hala, ingurune horietako landare gehienek euren fisiologia edo morfologia aldatu dute baldintza horietara egokitzeko. Olatuen zuzeneko zipriztinen edo haizearen ondoriozko gatz-ekarpen etengabeekin batera, inguru mota horietako lurzoruauren zaugarritasuna eta haize gogorrak daude. Nolanahi ere, landare mota batzuk ezin hobe egokitu dira giro horretara.

Dunak eta hondartzak dira Euskal Herriko itsasertzeko landarediaren habitat andeatuenetakoak. Euskal Herriaren geologiak berak aukera gutxi ematen du duna-eremuetako hondartzak finkatzeko eta, horrekin batera, gizakiak eremu horiek nahiago dituen hiriguneak finkatzeko, lurraldean ia ez dago komunitate mota horren aztarnarik.

Itsasertzeko inguruneari lotutako landarediaren kasu guztietan bezala, formazioen banaketak lotura estua du itsasoarekiko distantziarekin eta haren eraginarekin.

Padurak eta estuarioak dira lurraren eta itsasoaren arteko beste lotura-kate bat; baina, haietan, landarediak harreman estuagoa du lotura horretan. Padurak ibaien bokaleetan agertzen dira. Bertan, ibaien ur geza eta itsasoaren ur gazia nahasten dira. Marea zenbat eta aldakorragoa izan, ur gaziak are eta eragin handiagoa izango du itsasadarrean. Horrek erabat baldintzatzen du bertako landaredia mota. Ibaian gora egiten dugun neurrian eta itsasoaren eragina txikiagoa den heinean, ibaiertzeko ohiko landaredi-elementuak agertzen dira.

Antzina padura-eremuak inguru honetan nahiko ugariak baziren ere, gaur egun, giza presioaren ondorioz gero eta urriagoak dira. Eremu Funtzionalean, Bidasoaren bokalera eta Oriaren bazterretako tarte jakin batzuetara mugatzen dira.

Itsaslabarren kasuan bezala, paduretan landaredia banda moduan antolatzen da, itsas eraginarekiko hurbiltasunaren arabera. Hala, itsas eragina handiagoa den inguruetan, ur gazia onartzen duten espezieak besterik ez dira agertzen; eta, lehen landaredi-bandatik urruntzen garen neurrian, gazitasuna gutxiago onartzen duten espezieak besterik ez dira ageri.

Unitate honek **natura-balio handia** du, Eremu Funtzionalean adierazgarritasun eskasa baitu.

- **Landaredi erruderal nitrofiloa**

Unitate honetan, eremuan guztiz aldatutako edo gizatiartutako esparruak sartu ditugu, hala nola: industriaguneak, herriak, urbanizazioak, eremu lorategidunak, harrobiak eta meatzeak, zaborteak eta alfer-lurrak.

Unitate honek **natura-balio oso txikia** du.

4.2.7.- FAUNA

Aztergai dugun esparruko ornodunen fauna atlantikokoa eta Europako erdialdekoka da, baina jatorri mediterraneoko espezieak ere ageri dira.

Egungo fauna erlaitz kantauriarrean faunak izan duen bilakaeraren ondorio da, eta baldintza klimatikoek eta gizakiaren jardunak baldintzatzen dute. Izan ere, aztergai dugun esparruan gizakiaren jarduna oso bizia izan da antzinatek. Horren guztiaren ondorioz, behealdeko eta, batez ere, Kantauriko espezieak ageri dira. Dena den, nagusi diren baldintza klimatiko onberei esker, espezie mediterraneo batzuk badira, espezi ubikistez eta giza presentziari lotutako beste batzuek gain.

Memoria honen helburua da Lurralde Plan Partziala gauzatzeak faunaren gainean sor dezakeen inpaktua baloratzeko behar adina informazio ematea.

a. Fauna-komunitateak

Atal honetan, egun azterlanaren eremuan bizi diren fauna-komunitate nagusiak deskribatzen dira. Fauna komunitatetzat hartzen da ingurune jakin batean bizi diren eta bertako baliabideak ustiatzen dituzten espezieen multzoa. Lehen adierazi bezala, lan-eskala dela-eta, ez da komeni fauna-komunitate bakoitzean dauden espeziak zehatz-mehatz deskribatzea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren azterlan honetara jo behar da: Euskal Autonomia Erkidegoko ornodunak (1989).

Hona hemen bereizitako fauna-komunitate nagusiak:

- **Hariztiko eta baso mistoko fauna-komunitatea**

Fauna-komunitateak ordezkaritza garrantzitsua du azterlanaren eremuan, masa batzuk kontserbazio-egoera onargarrian baitaude, batez ere ibarrei lotutakoak. Hori da landarediaren atalean aipatutako Abalotz, Leitzaran, Jaitzubia eta abarren kasua.

Eremu Funtzionalean dauden gainerako hariztiek oso azalera txikia dute edota garapen eskaseko fasean daude. Horregatik, ezin izan da fauna-komunitate ezaugarriak garatu.

Komunitate honetako espezieak basokoak dira, nahiz eta espezie ubikistak ere badiren.

Duen interesagatik, batez ere komunitate ornitikoa nabarmentzen da. Izan ere, ondo egituratutako komunitatea da eta interes handiko espezieak biltzen ditu.

- **Ibaiko eta ibaiertzeko komunitatea**

Eremu Funtzionaleko ibaien ibilgu nagusiak (Bidasoa, Oiartzun, Urumea eta Oria) dira komunitate honen erakusgarri nabariak azterlanaren esparruan, bertako errekaak garrantzi txikikoak baitira.

Bidasoa, Urumea eta Oria ibaietako faunak estuarioaren eragin nabarmena du, ur gazikarak estoetaraino duen efektuagatik.

Oro har, ibaien goialdeetan urak kalitate bikaina du eta ur-habitata ondo kontserbatuta daude. Ibaian behera egoera okerragoa da, bai egiten diren isurketengatik, bai aipatutako habitaten egoera kaskarragatik, urteetan zehar jasandako presio indartsuagatik.

Oria ibaiaren beheko tarteko arrain fauna sei espesiez osatua dago, hauen kopurua aldakorra izanita. Gaur egun, amuarrainaren kopurua, isolatutako zenbait laginetan, urria da.

Oiartzun ibaian, Ugaldetxoren mailan, arrain fauna berreskuratzen ari da, amuarraina, ezkailua, aingirak eta mazkar kopuru txiki batez gain, birpopulatutako izokin aleren bat ere aurkitu da.

Urumea ibaian ere arrain faunaren egoera hobetuz doa. Ergobian, gaur egun, sei espezie azaldu dira: korrokoa, platuxa eta aingiraz gain nagusiki ezkailua, amuarraina eta izokina.

Bidasoa ibaian beste arroetan iraungitako arrain espezieak mantentzen jarraitzen da, kolaka, izokina eta itsas amuarraina bezalako migratzaileak nagusiki. Horrez gain, anproi aleren bat ere behatu da. Gainera, Gipuzkoako ibaien artean Bidasoan bakarrik azaltzen da zarboa era naturalean.

Eremu Funtzionaleko ibaietarako espezierik enblematikoena Atlantikoko Izokina da, Urumea, Oiartzun eta Oriako ibaietan berrezartzeko programa baten helburua izanik, Bidasoak berriz populazio naturala duelarik. Azken urteotan, Gipuzkoako Foru Aldundiak heldu, arrainkume eta jubenilen presentziaren kontrola darama, hala nola arrain-eskailera eta laginketen ikuskaketa, azterketa eremuan kokatutako estazio ezbedinetako arrantza elektrikoarekin.

- **Landazabaleko fauna-komunitatea**

Fauna-komunitate honek baserriaren ustiapenarekin lotutako belardietan eta sail landatuetan bizi diren espezieak biltzen ditu. Hostozabalen zuhaitzi txikiak eta baso-sailak, eta otalur txikiren bat ere sartu dira.

Komunitate honetan bildutako espezieak dira habitataren gizatiartze-baldintzak hoberen onartzen dituztenak.

- **Itsasertzeko labarretako eta paduretako fauna-komunitatea**

Itsasertza, oro har, malkartsua da, itsaslabar ugarikoa eta behealdeko eremu gutxikoa. Hala ere, ez dira ohikoak itsas hegaztiak hazten direneko koloniak, printzipioaz pentsatzekoa denaren aurka. Haitz-egiturak harkaitzetako berezko hegazti jakin batzuk finkatzeko bidea ematen du. Horietako batzuk banakan dira EAEn.

Ebakidura leuntzen eta landaredia belarkaraz estaltzen den lekuetan, kaio-kolonia gutxi batzuk kokatzen dira. Hori da, hain zuzen, itsasertzeko lerroan habiak egiten dituzten espezieetakoak. Orientazio egokia eta malda leuna duten guneeetan, isurialde atlantikoan ohikoak ez diren espezieen populazio batzuk topa daitezke.

Padura-eremuek ornodunen komunitate bereizgarriak hartzen dituzte. Komunitate horiek urteko ziklo oso berezia dute eta migrazio-garaian hegazti ugari bertaratzen dira.

Hala ere, aztertutako eremuko padurak ez dira handiak eta nahiko aldatuta daude. Beraz, padura gehienetan, fauna nahiko egoera ezegonkorrean dago. Hegazti txikiak, paseriformeak eta habitat horretako berezko txoriak besterik ez dira hazten paduretan. Eremu horiek zeharkatzen dituzten ur gezako kanalak oso garrantzitsuak dira urlehorrak hazteko, hoberen kontserbatutakoek komunitate aberatsa biltzen baitute.

b. Fauna-intereseko eremuak

“Euskal Autonomia Erkidegoko ornodunak” azterlanaren arabera, eremu funtzionalaren barruan fauna-intereseko eremu hauek mugatu daitezke (ikus “Ingurune naturala. Fauna-intereseko eremuak” 10. kapituluko 5. planoa):

- **Mendizorrotz ingurua**

Oriotik Igeldoraino doan itsasertzeko zerrenda hartzen du, Mendizorrotzeko mendilerroaren bi hegala bilduta, Orio eta Usurbil artean. Mendizorrotzetik Igeldora doan tartean, berriz, itsasora ematen duen mendi-hegala besterik ez da aintzat hartu. Bertan, espezie mediterraneoak agertzen dira. Gainera, EAEko isurialde atlantikoan banakak diren ugaztun-espezieak ere badira.

- **Jaizkibel-Jaitzubia eta Txingudi ingurua**

Jaizkibel mendia, Jaitzubia harana eta Txingudiko padurak hartzen ditu. Jaizkibelen espezie mediterraneoak ageri dira, EAEn ohikoak ez diren beste espezie batzuek gain. Itsaslabarretan, laridoen populazio garrantzitsuak daude.

Txingudiren interesa hegazti migratzaileen babesleku gisa duen garrantzia datza. Jaitzubin, berriz, ugaztun-komunitate aberatsa dago. Eremu hau Europako espezieak sartzeko esparrua da.

- **Bidasoa ibaiaren ingurua**

Bidasoa ibaiaren ibilgua (Gipuzkoako ibilbidean) eta haren bazterretako galeria moduko basoak biltzen ditu.

Inguru honen interesa arrain-espezie batzuentzat (esaterako, izokina edo kolaka) urte askotan EAEko bizirauteko gune izatea da. Baina, beste arrazoi batzuk ere gehitu daitezke, hala nola, EAEn oso urriak diren espezieen presentzia (hegazti eta mamiferoak nagusiki).

- **Aiako Harria - Añarbe ingurua**

Bidasoa eta Urumea ibaien artean hedatzen da, eta Aiako Harria eta Urdaburu mendiak biltzen ditu.

Ur-inguruneari lotutako faunaren aberastasunaz gain, bertan dauden harrapariek eremuaren interesa justifikatzen dute. Era berean, habitat-aniztasun handia dagoenez, espezie ugari daude ere.

- **Adarra-Mandoegi mendien ingurua**

Adarra-Mandoegi eta Ipuliñoko mendilerroetatik hedatzen da, Urumea eta Araxes ibaien artean.

Ondo egituratutako ornodun-komunitate aberatsagatik nabarmentzen da eremu hau. Bertan, Leitzaran ibaiaren garrantzi handia nabarmendu beharra dago. Leitzaran ibaia amuarrainetan aberatsa da eta interes handiko espezieak barne hartzen ditu.

- **Ernio-Andatza eta Pagoeta mendigunearen ingurua**

Ernio, Pagoeta eta Andatza mendigunea eta inguruko esparrua hartzen ditu. Oso zabala denez, habitat atlantikoen aniztasun handia du. Horien barruan, ugaztunen ugaritasuna nabarmentzen da gehienbat. Gainera, ugaztun horietako batzuk interes handikoak dira.

c. Balorazioa

Gizakiaren jardunak floraren gainean, zeharka, faunan ere izan du eragina. Hala, esparru honetan, animalia-espezieak ez dira at geratu haranak eta mendiak estaltzen zituzten jatorrizko basoek jasan dituzten aldaketa guztietatik. Baso-masa txikietara murrizteraino bertako habitat bereizgarriak pixkanaka-pixkanaka ahultzen joan diren ekintzen artean, abeltzaintza, artzaintza, espezie exotikoen landaketa eta ikazkintza daude.

Eskala txikiagoan, baina ingurune bereziei eraginda, industria- eta hirigintza-garapenak baliabideak urritzea eta ingurunean berori andeatu duten elementuak gaineratzea ekarri du.

Horri guztiari faunak berak jasandako ekintzak gehitu behar zaizkio: ehizaren eta arrantzaren aurrean egun dauden jarrerak (gizarte- eta kirol-jarduera bilakatu dira), basoberritzeak, espezieak sartzeak eta birsartzeak, eta, azkenik, euren haztegietatik ihes egindako espezie arrotzen inbasioa.

Espezie moldaerraz batzuk denetako inguruneak kolonizatzeko gai izan dira eta baldintza berrietara egokitzea lortu dute. Exijentzia ekologiko zorrotzak dituzten elementu batzuk, ordea, desagertu egin dira, euren jarduerak garatzeko ingurune egokiak aurkitu ezinean.

Oro har, mendebalde-ekialde noranzkoan, gehien urbanizatu eta industrializatutako guneetan, giza presio bizienerako guneetan, nekazaritza-jarduerari dagokienez ere, andeatze-gradiente bat antzematen da ingurunean. Mendebalderantz gradiente hori arina da, baina iraunkorra hala ere.

Eremuan bizirautea lortu duten baso naturalaren arrastoen garrantzia ez datza elementu nabariak barne hartzeko duten ahalmenean (hedadura txikia dutenez, espezie sentikorren presentzia mugatuta dute), hondarrekoak izatean, duten berezko balioan eta duten potentzialtasunean baizik. Nolanahi ere, lur gaineko hidrologiari buruzko atalean, lurraldean dauden errekaen balorazioa egin da. Bertan, urtaroko ibilguak direla eta zenbaitek jarduera jakin batzuen ondorioz kalitate-arazoak dituztela adierazten da.

Esparruko ibai-sistema nabarienei dagokienez, esan beharra dago kaso guztietan, gutxinaka-gutxinaka hobekuntza egiaztatu dela eta Urumea ibaiak jasaten duen karga gorabehera, ingurunea izokinarentzat leheneratzen ari dela. Oria ibaia egoera okerragoan dago. Zelulosa fabrikatzen ziharduten eta ibilgura isurtzen zuten zenbait industriak jarduera utzi izatea eta ezarritako arazketa sistemak eragin onuragarria izaten ari dira ibaiaren leheneratzean. Oiarzun ibaiak ere hobekuntzak izan ditu burututako saneamendu sistemei esker. Bidasoa ibaiak, beheko tartean baldintzarik onenak ditu eta Gipuzkoako berezko izokin-ibaia da.

Oro har, faunari dagokionean, esan dezakegu jardun aurreko egoera orokorra nahiko pobretuan gaudela, lehen adierazitako faktoreak elkartzearen ondorioz. Bestalde, Eremu Funtzionalean dauden espezie gehienak arruntak eta probintzian oso hedatuak izanik ere, erkidegoarentzat garrantzia duten edota arriskuan dauden espezieen euskal katalogoan sartutako zenbait espezie antzeman dira, Mehatxatutako Espezien Euskal Katalogoa hauen artean eta zenbait kasutan ontzat emandako Kudeaketa Planak izanik.

4.2.8.- PAISAIA

a. Deskribapen orokorra

Atal honek Donostiako Eremu Funtzionalean bildutako lurraldea paisaiaren aldetik aztertzea du helburu. Azterlanaren lurralde-esparruari dagokion paisaiaren inbentarioa egiteko, "Euskal Autonomia Erkidegoko paisaiaren mapa. 1:25.000 eskala" (1990) lanean oinarrituz, "Singular eta Bikainak diren EAEko Pasaien Katalogoa"ren informazioa ere osagarri hartuz.

Azterlanak barne hartzen duen lurraldea Donostiako eskualdeari dagokio. Bertako paisaiaren ezaugarri nagusia konplexutasuna da, oso lurralde-zati txikian denetako erabilerak batera egoteak sorrarazitako konplexutasuna.

Ohiko egitura mosaikoa da, lursail-zatiketaren eta elkarren aldamenean dauden erabileren aniztasunaren ondorioz; hori guztia landaredia nabarmen nagusi duen erliebe malkartsuaren gainean. Landarediaren nagusitasun hori klima onberaren ondorio da, landare-estalki ia jarraitua egoteko bidea ematen duelako. Hala ere, kasu gehienetan, horrek ez du esan nahi estalki hori berezkoa denik. Lurraldea ustiatu eta populatzeko egitura tradizionalen, eta komunikabide-sare konplexuaren bidez lotutako hirigune eta industriagune berrietan islatzen da giza jarduera.

Egungo egoeran, Donostiaren eragin-eremua zabaltzen ari dela, gordetzeko paisaia-balio interesgarrienak dira landaredi naturalaren arrasto urriak eta euskal landa-paisaiaren tradizioari gehien eusten dioten eremuak.

b. Paisaia-unitateak. Balorazioa

Atal honetan, Donostiako Eremu Funtzionalean dauden paisaia-unitate nagusiak deskribatzen dira. Haiek behar bezala ulertzeko, kokapenari dagokionez, "Ingurune naturala. Paisaia-unitateak" 10. kapituluko 6. planoa (1/100.000 eskala) kontsultatu behar da. Plano hori EAEko ingurumen-kartografiaren sistematik aterea da (1/25.000 eskala).

Unitateak baloratzean kontuan hartzen diren kalitate-balioak, alde batetik, ingurumen-educiekin, eta, bestetik, elementu estetiko edota hautemanezko jakin batzuekin edota horien arteko harremanekin lotuta daude. Era berean, bai faktore biofisikoekin eta morfologikoekin, bai eta balio ekologiko-kulturalekin ere lotutako hauskortasun-balioak kontuan hartzen dira.

- **Nekazaritzakoa, belardi eta labore-lur atlantikoen nagusitasunarekin, ibai-eragina duen ingurunean**

Unitate honek hedadura handiena hartzen du azterlanaren esparruan. Honako hauen arteko konbinazioa da: belardi atlantikoak (elementu nagusia da), laborerako lursail txikiak, *Pinus radiata*ko sailak eta landaredi naturalaren hondarrak. Labore-lurrek hedadura txikia dute, baina paisaia-aniztasunaren elementu garrantzitsuak dira geometriaren eta kromatismoaren aldetik. Aniztasun hori are eta handiagoa da fruta-arbolak dauden guneeetan, lursail txikietan nahiz tokian-tokian.

Paisaia mota horretan sastrakadi-formazioak ere sarritan agertzen dira, batez ere ondasunak mugatzeko, edota zuhaitz-formazioetako orla-inguruetan (egitura oso aldatuta badute ere).

Mosaiko horren gainean, tarteka baina oso sarri, baserriak eta abeltzaintza-ustategi txikiei lotutako azpiegitura batzuk azaltzen dira, landa-bideen nahiko sare trinkoarekin batera.

Paisaia mota hori ezin hobe egokitzen da Lurralde ezaugarri fisiografikoetara. Baserriak eta labore-lurrak malda txikieneko inguruetan daude. Malda handieneko tokiak, ordea, larre gisa erabiltzen dira. Profil leunak gogortu ahala, landaredi naturaleko baso-sailak edo hondarrak aurkitzeko aukera handiagoa da. Horiek, gainera, haltzen formazio linealak nagusitzen diren ibarretan ere sarri agertzen dira.

Balio historikoa eta artistikoa duten baserriak egotea elementu interesduntzat har daiteke, bai paisaia mota honetan, bai eta hurrengoan ere. Gainera, ustategi mota horien tradizioa azpimarratu behar da. Izan ere, baso-sailei dagokienean salbu, antzinako erabilera-sistemei eustea dakarte. Sistema horien ezaugarri nagusia ingurune baldintzei behar bezala egokitzea eta baliabideak iraunkorki kudeatzea da.

Oro har, paisaia zabalak dira, nahiko aniztasun handikoak eta oso gizatiartuak. Hala ere, azpiegitura handi gutxi daude. **Kalitate ertain-handiko eta hauskortasun ertaineko** paisaia da. Izan ere, zuhaitz-landarediko masa gutxi izan arren, fisiografiak lagundu egiten du inpaktuak xurgatzen.

- **Nekazaritzako eta basoko mosaikoa, ibai-eragina duen ingurunean**

Paisaia-unitate hau aurrekoaren elementu berberetz osatzen da. Bien arteko desberdintasuna da honakoan zuhaitz-formazioak ugariagoak direla larre eta labore-lur atlantikoaren aldean. Oro har, hiriguneetatik gehiago aldentutako inguruak dira eta/edo malda gogorrak dituzte. Unitate honetan zuhaitz-azalera areagotzearen arrazoia da formazio natural gehiago eta Pinus radiatako baso-sail ugariago egotea.

Bertako landare-formazio gehiago egoteak, aurreko unitatearekiko, naturaltasun-maila areagotzea dakar. Gainera, taxonen aniztasun handiagoa dago eta formazioak egituraren aldetik konplexuagoak dira. Azalera/formazio erlazio hobea dute. Ibar hondoetako baso-sailak mendi-hegal erdiko inguruetara hedatzeak, era berean, haltzadi kantaurretik baso misto atlantikoaren edo Quercus robureko hariztiaren motara gehiago hurbiltzen diren komunitateetara aldatzea dakar. Hala, beste espezie batzuen artean, mendiko zumarra, astigarra, gorostia eta ereinotza daude, geruza belarkara, zuhaixkara eta lianoideen erakusgarri aberatsarekin batera (xeheatasun gehiagorako, ikus landarediaren inbentarioa). Azkenik, esan beharra dago formazio mota horiek babeslekua direla fauna-espezie ugariarentzat.

Estetikaren aldetik, bertako basoak elementu nabarmen positiboak dira paisaian. Bereziki ezaugarria da kolore-aldaketen eta hostoa erortzearen ondoriozko aniztasun kromatikoa, urtarokotasun nabarmenagatik areagotua. Ertzetan eta barrualdean lerro kurbatuak eta bihurriak nagusitzen dira, eta egitura izurtsua eta irregularra da.

*Pinus radiata*ko sailei dagokienez, zuhaitz-masak izan arren, bertako basoetatik asko urruntzen dira, ekologiaren eta paisaiaren konplexutasunari dagokionez. Formazio mota horiek oso sarriak dira paisaian, nekazaritzarako erabiltzen ez diren eremuetan. Estetikaren aldetik, kromatikoki oso masa homogeneoak dira, oso egitura trinkokoak, eta lerro bertikalak eta profil zorrotzak dituzte nagusi. Mugaketa eszenikoari dagokionez, paisaiari naturaltasuna eta lerro-harmonia kentzen dioten lerro zuzenak nabarmentzen dira.

Bi formazio mota horiek paisaian agertzeak, belardiak eta labore-lurrak tartekatuta, eredu kromatikoaren, egiturazkoaren eta geometrikoaren aniztasuna areagotzea dakar, naturaltasunaren kaltetan.

Horrenbestez, unitate honen **kalitatea ertaintzat** eta **hauskortasuna txikitzat** hartzen da.

- **Mosaiko mistoak**

Unitate horretan, mota askotako osagaiak (hostozabalak, sailak, sastraka, etab.) dituzten mosaikoak biltzen dira, ibai-eragina eta eragin karstikoa duten inguruneetan. Oso paisaia anitzak dira, **hauskortasun txikikoak**, eta, oro har, paisaia zehaztuagoak dituzten unitateen arteko iragaite-esparruak dira. **Kalitate ertain-handia dute**, substratu karstikoetan kokatutako mosaikoengatik eta bereziak izateagatik.

- **Hiri-ingurunea**

Hiri-paisaiaren barruan, etxebizitzak, kaleak eta plazak ez ezik, urbanizatzeko dauden lursailak, hiri-parkeak eta hirigunearekin lotutako bestelako ekipamenduak sartzen dira. Gainera, industrialdeak ere barne hartzen dira. Lur lau gutxi dagoenez, hirigune eta industriagune nagusiek ibai-ibilguen aldameneko inguruak hartzen dituzte. Unitate honetan landaredia urria da edo ez dago, eta naturaltasunik ez duten elementu antropikoak nagusitzen dira. Gainera, inguru horietan, bereziki, bertako azpiegitura lineal ugariak biltzen dira. Unitate hau, oro har, **kalitate eta hauskortasun txikikotzat** har daiteke.

- **Itsaslabarrak eta hondartzak, itsas eragina duen ingurunean**

Unitate honetan bitzen dira bai itsaslabar zorabigarriak, bai eta horien ondoren datozen erliebe gutxi-asko leunen iparraldeko mendi-hegalak ere (Mendizorrotz, Igeldo, Santa Klara uhartea, Urgull, Ulia eta Jaizkibel). Era berean, jende gehien biltzen duten Gipuzkoako hondartzak sartuta daude.

Landare-paisaia, batik bat, belardiek eta sastrakadiak osatzen dute; eta gune malkartsuenetan bertako zuhaitz-masa batzuk geratzen dira. Basoberritutako guneak ere badira.

Unitatean, zalantzarik gabe, itsasoa eta horrek lehorreko ingurunearekin duen harremana nagusitzen dira. Harreman horrek, bortitza nahiz lasaia izan, ikuspegi paregabeak ematen ditu.

Giza jardunaren arrastoak ugariak badira ere, baldintza klimatiko eta topografiko latzetako inguruetan, gizakiak ia esku hartu ez dueneko aztarna txiki batzuk geratzen dira. Haiei kontrajarrita, unitatean zenbait hirigune biltzen dira. Horietako batzuek nazioarteko ospea dute, bertako paisaiak osatzen dituzten elementuen artean gordetako orekari esker.

Kontraste kromatikoak, formalak eta egiturenak ugariak dira. Zenbaitetan, lerroek berezitasun handia ekartzen dute. Adierazitako guztian oinarrituta, **kalitate eta hauskortasun oso handiko** unitatea da, batik bat behatzaileen kopuru potentziala kontuan hartuz gero.

4.2.9.- KULTURA ONDAREA

Azterlan honen eskala kontuan izanda, lurraldean dauden ondare-elementuak zein kategoriatan atxikita dauden ezagutzera emango da besterik gabe; Lurralde plan Partzialaren garapenarekin lotutako ingurumen-azterlanak idazteko garaian kontuan har daitezten. Ingurunearen deskribapen honetan, multzo monumentalen kategorian sailkatutako ondasun arkeologikoak eta arkitektonikoak sartu dira. Hain zuzen, horiek adierazletzat hartuko dira azterlan honetan aztertzen diren eraginetarako.

a. Ondare arkeologikoa

- **Lotesleak ez diren ondare-elementuak**

Aztergai den Eremu Funtzionalean bildutako udalerrietan, inbentarioan jasotako ondare-elementu arkeologiko ugari daude. Azterlan honen eskala dela-eta, elementu horiek, lotesleak ez direnez, Lurralde plan Partzialaren proposamen bakoitzerako ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazioan aztertu beharko dira.

- **Ustez interes arkeologikoa duten eremutzat deklaraturako ondare-elementuak**

Atal honetan arkeologia-aztarnategiren bat izateko zantzu garrantzitsuak dituzten esparruak, orubeak edo eraikuntzak biltzen dira. Hori uster daramaten arrazoiak dira, batetik, material arkeologikoak, gainazalean agerian dauden eraikuntza-egitura edo lur gainean ekintza antropologikoen ohiko aldaketak egotea, eta, bestetik, eremuan beste garai batzuetan gizakia egon dela adierazten duten iturri dokumentaletan eta/edo bibliografikoetan jasotako berriak izatea.

Sarritan ez da jakiten aztarnen kontserbazio-egoera zein den eta zein ezaugarri dituzten (estratigrafia, potentziala, sekuentzia kulturala, etab.).

Eremu Funtzionalean bildutako udal-mugapeei dagozkien ustezko arkeologia-esparruen deklarazioak egiteko ebazpenetan ezarritakoa beteko da.

Legeriaren ikuspegitik, urriaren 8ko 234/1996 Dekretuan, ustezko arkeologia-eremuak zehazteko araubidea ezartzen da (205. EHAA, 1996ko urriaren 23koa). Dekretu horren 7. artikuluan adierazten da ustezko arkeologia-interesekotzat deklaraturako eremuaren, orubearen edo eraikuntzaren balio arkeologikoa finkatzen duen azterlan arkeologikoa (azterlan horren beharra 7/1990 Legearen 49. artikuluan jasotzen da) azalak harrotzea dakarren edota deklarazioaren xede den elementuan eragina duen obra-proiektu bati buruzkoa izan behar duela. Azterlan arkeologikoa dagokion eremua ebaluatu behar du, eta beharrezko elementuak jaso behar ditu, Foru Aldundiak 7/1990 Legearen 49. artikuluko 21. paragrafoan adierazten den proiektu arkeologikoaren beharra erabaki dezan. Horretarako, informazioa jasotzeko eta lurra aztertzeko ohiko teknikak erabiliko dira, eta potentzial arkeologikoa eta kontserbazio-egoera egiaztatzeko zundaketa eskuzkoak nahiz mekanikoak egin ahal izango dira.

- **Multzo monumentaltzat deklaraturako ondare-elementuak**

Ondare arkeologikoaren elementu batzuk multzo monumentaltzat deklaratu dira ekainaren 24ko 137/2003 Dekretuaren bidez. Horren indarrez, kultura-ondasuntzat kalifikatu dira, multzo monumentalaren kategoriarekin. Estazio megalitiko batzuentzat babes-araubidea finkatu da. "Kultura-ondarea. Estazio megalitikoak" 10. kapituluko 7. planean adierazita daude, 1/100.000 eskalan.

- **Andatzako estazio megalitikoa.** Udalerriak: Aduna, Aia, Andoain, Donostia, Usurbil, Zizurkil.
- **Igeldoko estazio megalitikoa.** Udalerriak: Donostia, Orio, Usurbil.
- **Igoi-Akolako estazio megalitikoa.** Udalerriak: Astigarraga, Donostia, Errearteria, Hernani.
- **Jaizkibelgo estazio megalitikoa.** Udalerriak: Hondarribia.
- **Oiartzungo estazio megalitikoa.** Udalerriak: Oiartzun.
- **Oindi-Mandogiko estazio megalitikoa.** Udalerriak: Andoain, Berastegi, Elduain, Urnieta, Hernani.
- **Txoritokietako estazio megalitikoa.** Udalerriak: Astigarraga, Errearteria.

b. Ondare historiko arkitektonikoa

- **Santiago bidekotzat kalifikatutako eta inbentarioan jasotako kultura-ondasunak**

Mota horretako elementuak legez babestuta daude, izaera loteslearekin. Kalifikatutzat hartzen dira hala bideratu direlako, edota Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen lehen xedapen gehigarrian hala ezarri delako. Ondasun horietarako berariazko babes-araubidea ezarri da. Modu osagarrian, 7/1990 Legean ezarritakoa bete beharko da. Ondasun horien barruan, Santiago bidekotzat kalifikatutako ondasunak bereizten dira. Horiek babes berezia dute (22.1 artikulua). Gainera, urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretua dago, Santiago bidea kultura-ondasuntzat kalifikatzen duena, multzo monumentalaren kategoriarekin (2000-02-11ko EHAA, 23. artikulua; aldaketa 2002-06-10eko EHAAkoa da).

Egoera hau Lurralde plan Partzialean kontuan izan da, Mugikontasun Ereduaren edukien arabera, hiriarteko oinezkoen bide-sareen ezarpenekin eta Done Jakua bidearen koordinazio bereziarekin, interes orokorreko zuzkiduna elementu izanik.

- **Multzo monumentaltzat deklaraturako ondasun higiezinak**

- **Hernaniko hirigune historikoa:** Hernaniko hirigune historikoa: 1996-01-16ko EHAA. 544/1995 Dekretua, abenduaren 29koa, Hernaniko (Gipuzkoa) hirigune historikoa kultura-ondasun gisa monumentu-multzo izendapenaz sailkatzeko eta hura zaintzeko babes-arauak ezartzeko dena.
- **Errenteriako hirigune historikoa:** Errenteriako hirigune historikoa: 1996-05-28ko EHAA. 101/1996 Dekretua, maiatzaren 7koa, Errenteriako (Gipuzkoa) hirigune historikoa kultura-ondasun gisa monumentu-multzo izendapenaz sailkatzeko eta hura zaintzeko babes-arauak ezartzeko dena.
- **Hondarribiko hirigune historikoa:** Hondarribiko hirigune historikoa: 2001-01-30eko EHAA. 2/2001, Dekretua, urtarrilaren 9koa, Etxebeste, Casadevante, Zuloaga eta Joana Eroaren etxeei, Panpinot kaleko etxe-sailari, harresiei eta Karlos V.aren gazteluari buruzko espedienteak Hondarribiko (Gipuzkoa) hirigune historikoari buruzkoan bateratzeko, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen aginduetara egokitzeko, eta Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa deklaratzeko dena.

- **Monumentutzat edo multzo monumentaltzat deklaraturako edo deklaratzeko proposaturako ondasun higiezinak. Udal plangintzaren arabera, babestutako edo babesteko proposaturako bertako ondasun higiezinak.**

Azterlan honen eskala dela-eta, Eremu Funtzionalak inguratzen dituen lurraldeetako elementuak dokumentu honez gain, datozen azterlanetan aztertu beharko dira.

4.2.10.- HIRI GARAPENA

Eremu Funtzionalaren garapena, gutxi gorabehera, honela banatzen da: bizitokiak hartutako 2.700 ha, jarduera ekonomikorako eremuek hartutako 1.300ha, Ekipamendu publikorako esparruek hartutako 900 ha, eta komunikabide-sareetara eta azpiegitura-elementuetara zuzendutako 700 ha.

Hiri-garapen gehienak, orain artean, haranen behealdean eta itsasertzean kontzentratu dira, pilaketa handiko gune jakin batzuetan goragoko eremuetarantz hedatu badira ere. Egungo hiri-zonakatzearen mapan antzematen denez, hiri-garapenak batik bat +50 kotaren azpitik biltzen dira. Kota hori modu intentsiboan besterik ez da gainditzen, +50 eta +100 koten artean azken boladan finkatzen ari diren hiri-hedapenen bidez. Oraingoz, Aiete eta Miramongo garapenek, Donostian, eta Irurain gaineko industria-poligonoek, Urnietan, besterik ez dute +100 kota nabarmen gainditzen.

Donostiako Eremu Funtzionalan finkatutako biztanleak 400.000 baino zerbait gehiago dira. Horietatik, 388.000 biztanle hiri-ingurunean daude, eta gainerako 16.000k landa-ingurunean.

Egun, Eremu Funtzionalak gutxi gorabehera 179.000 etxebizitzako parkea du. Horietatik, 174.000 hiritarrak dira, eta 5.000 landatarrak.

Donostiako hiri-eremuen batez besteko dentsitatea hektareako 59 etxebizitzakoa da. Dentsitate hori oso onargarritzat har daiteke eta Lurralde ezaugarri topografikoetara egokitzen da. Dentsifikazio puntual handieneko eremuak Pasaia portuaren, Donostiako erdiaren, eta Irun, Hernani, Lasarte eta Andoingo hiriguneen inguruan biltzen dira.

Donostiako Eremu Funtzionalan indarrean dagoen hiri-plangintza udal-antolamenduko 13 planek osatzen dute. Plan horiek bereiz egin eta onartu dira, batzuetan hirigintza-irizpide desberdinekin eta oso garai desberdinetan.

Laburbilduz, gaur egun, udal-egitura da eremu funtzionaleko administrazio-antolamenduaren eta hirigintza-kudeaketaren erreferente nagusia.

Eremu Funtzionala osatzen duten 13 udalerriek berezko nortasuneko hiriguneen multzoa osatzen dute. Hirigune horiek egitura dibertsifikatua eta orokorrean neurritzkoa badute ere, udal-banantzearen adierazleak aztertuz gero, tokian-tokian desoreka nabarmenak dituztela ikusten da:

- Udalerrri batzuen jarduera ekonomikoa batez ere hirugarren sektorekoa da (esaterako, Donostia eta Hondarribia). Beste batzuen, ordea, nagusiki industrialak da (adibidez, Lezo, Andoain, Usurbil, Lasarte-Oria eta Hernani).
- Erreneria eta Lasarte-Oriako udalerriek lanpostuen defizit handia dute. Beste batzuetan, aldiz, adibidez Oiartzun, Astigarraga eta Usurbilen, soberako eskaintza dago.
- Udalerrri batzuek, hala nola, Pasaia, Erreneria eta Lasarte-Oriak, lurzoru urbanizagarriaren erreserba urriak dituzte; beste batzuek, ordea, adibidez Hondarribia, Lezo, Oiartzun eta Usurbilek toki-erreserba garrantzitsuak dituzte.
- Bigarren bizitokiak batez ere Hondarribian eta Donostian biltzen dira.

Nolanahi ere, hamahiru udalerriek osatzen duten multzoan daude haien homogeneotasunaren gakoak, funtzionalki hiri-konurbazioa batean bilduta daudelako eta oreka orokor nabariko lurralde-unitatea eratzen dutelako. Oreka hori, batik bat, biztanleriaren neurrizko banaketan eta tokiaren zatiketa konpentsatuan oinarritzen da.

4.2.11. AIREAREN KALITATEA

Atal honetan Donostialdeko airearen kalitatea aztertu da, betiere Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren "EAEko airearen kalitatea kontrolatzeko sarean" eskura dauden datuen arabera. Sare hori osatzen duten estazioetan, denbora errealean neurtzen dira SO₂, NO_x, CO, PM₁₀ eta O₃ gisako kutsatzaileak. Neurketa horiei esker kalkula daiteke Airearen Kalitate Indizea (AKI), 1073/2002 Errege Dekretuak ezartzen duenari jarraituta –1073/2002 Errege Dekretua, urriaren 18koa, ingurumen-airearen kalitatearen ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa, betiere sufre dioxidoari, nitrogeno dioxidoari, nitrogeno oxidoari, partikulei, berunari, bentzenoari eta karbono monoxidoari dagokionez (260 zk. BOE, 2002ko urriaren 30ekoa)–. Adierazlea airearen kalitateari buruzko 6 tarteren arabera kalifikatzen da: ona, onargarria, neurritzkoa, txarra, oso txarra eta arriskutsua.

Donostialdean 8 estazio daude (Jaizkibel, Lezo, Ategorrieta, Easo, Puio, Tolosa hiribidea, Añorga, Hernani), 2013. urtean estazio guztietan Airearen Kalitate Indizeak onak edo onargarriak izan dira.

Egun kop., airearen kalitatearen eta eskualdearen arabera	Ona	Onargarria	Neurrizkoa	Txarra	Oso txarra	Arriskutsua
Donostialdea	271	94	0	0	0	0

4.2.12. ZARATA

Indarrean dagoen akustikari buruzko araudiaren betetze-maila oso desberdina da, bai arauari berari dagokionez, bai Eremu Funtzionala osatzen duten hamahiru udalerriek eta horrekin lotuta dauden beste Administrazio batzuek (Foru Aldundiak, Eusko jaurlaritzak, ADIFek, ETSek eta abar) egin duten garapenari dagokionez. Ildo horretan, aldagai horren erreferente zehatzak ingurumen-ebaluazioko azterlanetara bideratuko dira, Lurralde Plan Partzialean proposatutako esku-hartzeen etengabeko garapenarekin egin beharrekoetara.

Oro har, eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak 2000. urtean landutako “Euskal Autonomia Erkidegoko Zarata Mapan” oinarrituta, Eremu Funtzionalan –EAEren osotasunean bezalaxe–, garraioa eta industria-eremuak dira kutsadura akustikoa sortzen duten iturri nagusiak. Hartara, eremu funtzionalan barnean hartzen diren udalerri guztiek “inpaktua” dutela definitu da, betiere industria-poligonoen banaketari erreparatuta. Garraio-sareari dagokionez, berriz, adierazi zen AP-8/AP-1, A-15, GI-3410, GI-2134 eta GI-636 errepideetatik 10 metrora neurtutako soinu-mailak 70 dB(A)-tik gorakoak zirela. Miranda Ebro-Irun ADIFen lineak 65 eta 70 dB(A) arteko mailak eragin zituen eremu funtzionalan, eta ETSren Donostia-Hendaia lineak 60 eta 65 dB(A) arteko maila eragin zuen tarte horretan bertan.

Aditzera emandako agerlekuan deskribatutako Eremu Funtzionalaren egoera akustikoaren bilakaera ezagutzeko, ausaz aztertu da Eremu Funtzionalan barnean hartzen den udalerri baten zarata-mapa, eta horretan oinarrituta aditzera eman daiteke oraindik ere garraio-azpiegiturek eta industria-instalazioek eragiten dutela udalerrian inpakturik handiena. Zarata-mailarik handienak bi garraio-azpiegiturak edo gehiagok bat egiten duten inguruetan sortzen dira.

Gauzak horrela, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunaren azterketa hura egin zenetik 14 urte pasa direnean, Eremu Funtzionalean beste bide-ardatz batzuk gauzatu dira eta beste industria-eremu batzuk ezarri dira (Donostiako bigarren ingurabidea, Urumearen autobidea, Araso, eta abar). Horrek, segur aski, egoera hura aldatu du, eta ez beti zentzu negatiboan.

4.2.13. ARRISKU NATURALAK: UHOLDEAK

Eremu Funtzionalean gertatzen diren arrisku naturalei dagokienez, uholde-arriskua nabarmentzen da fenomeno sismikoen, higaduraren, eta abarren gainetik; izatez, lau ibai nagusik gurutzatzen dute eremu funtzionala: Bidasoa, Oiartzun, Urumea eta Oria ibaiek. Lehen hiruek itsasoan isurtzen dituzte urak. Lurralde konfigurazio natural horren ondorioz, egungo hiri-kokaguneetako batzuek uholde-arriskua dute.

Uholde-arriskuari buruzko Europako egungo Zuzentaraua ezarri izanak, alor horretako araudi sektorialekin batera –Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Plan Hidrologikoan eta EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Arloko Planaren aldaketan jasoak, 2013an onartuak biak–, Donostiako (Donostialdea-Bidaso Behera) Eremu Funtzionalean honako Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremu hauek definitu dira:

- Oria ibaia Andoainen
- Oria ibaia Lasarten
- Oria ibaia Usurbilen
- Añorga erreka Igaran, Benta Berrin eta Ondarretan
- Urumea ibaia Landarbasoren (Hernani) eta Loiolako Lorategi Hiriaren (Donostia) artean
- Oiartzun ibaia eta Karrika erreka Altzibar auzoan
- Oiartzun ibaia eta Lintzirin erreka Arragua eta Larzabal inguruan Oiartzunen eta Errenterian

- Bidasoa ibaia Behobiatik Amuteraino, Artia, Dunboa eta Jaitzubia errekek barne, Irunen eta Hondarribian

Ibai-jatorriko ur-goraldiekin lotutako Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremu horiez gain, kostaldeko urekin lotutako beste Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremu batzuk ere definitu dira. Itsas jatorriko Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremu berri horiek honako hauek dira:

- Donostia-Kosta, Donostiako hiru hondartzak eta Urumea ibaiaren bokalea hartzen dituena.
- Urumea-2, Urumearen behealdeko uholdearekin, batez ere Txomin aldean. Ibai-jatorriko fenomeno onoriozko Urumeako Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuarekin gainjartzen da.
- Irun-Hondarribia, uholdeekin Txingudi aldean, Jaitzubiko errekan eta Artia errekan Irungo zonetan. Ibai-jatorriko fenomeno onoriozko Bidasoko Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuarekin gainjartzen da.

Bestalde, lurralde-inplikazioa kontuan harturik, ezinbestekoa da Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Plan Hidrologikoan eta EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Arloko Planean finkatutako araudia aipatzea. Ildo horretan, behar-beharrezkoa da 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiekin lotutako gaur egungo uholde-orbanak, gertatzeko probabilitate handia, ertaina eta txikia, hurrenez hurren, eta lehentasunezko fluxu-eremua ezagutzea, zeren araudi sektorial horren arabera, urpean gera daitezkeen zona bakoitzak eta lehentasunezko fluxu-eremuak inplikazio zehatza baitu.

URA (Uraren Euskal Agentziaren) web-orrian adierazi da urpean gera daitezkeen zona horien egoera eguneratua.

4.2.14. LURZORU KUTSATUAK

IHOBEk “Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua kutsa dezaketen jardueren kokalekuen inbentarioa” egin zuen. Inbentario horretan, kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak zer kokalekutan garatzen diren identifikatzen da.

Eremu Funtzionalaren barruan kokaleku ugari inbentariatu da, eta adieraz daiteke, adibidez, Irungo udalerrian 141 kokaleku jaso dela. Hauek dira kokaleku dentsitate handia duten beste zona batzuk: Lasarte-Oria, antzinako N-1 errepidearen inguruan; Hernani, Eziago poligonoan; Pasaia, portuaren inguruan; Lezo, Gaintxurizketako korridorean; eta abar.

Aurreko guztia aintzat hartuta, Lurralde Plan Partzialean proposatutako esku-hartzeen etengabeko garapenarekin egin beharreko ingurumen-ebaluazioko azterketetara bideratzen dira aldagai horren erreferente zehatzak.

4.3.- BALIO HANDIKO INGURUMEN BALIABIDEAK

Euskal Jaurlaritzako Ingurugiroko Sailordetzaren Ingurumen Partaidetzak eta Biodibertsitatearen Zuzendaritzak emandako eta iturri askotatik ateratako informazioaren arabera, oraingo atalean sartzen da Eremu Funtzionalaren barruan balio handiko baliagarrien ondorengo zerrenda hau(ikusi 10. kapituluko 8.1 eta 8.2 planoetan):

- Natura 2000 sarea: Aiako Harria, Jaizkibel, Leitzarán ibaia, Oria ibaia, Txingudi-Bidasoa, Uliako, Urumea ibaia, Txingudi.
- Natura-gune babestuak: Aiako Harriko Parke naturala, Leitzarango Biotopo babestua eta Txingudiko Plan Berezia
- Zuhaitz bereziak: Berioko artea, Igarako haritza eta Hernaniko Ginkgoa.
- Natura-Interes eremuak (LAZ): Uliako itsalabarrak, Adarra-Usabelartza, Mendizorrotz errekatxoa, Atxulondo-Abalo, Oria ibaiaren Paduren gunea, Bidasoaren Padura eta Terrazak, Jaizkibel mendia.
- Espazio Natural garrantzitsuen katalogo irekia: Uliako itsaslabarra, Adarra-Usabelartza, Jaizkibel mendiaren handitzea, Aiako Harriaren eta Oartzungo goi-ibarraren handitzea Atxulondo-Abalo, Aguinagako urtegia, Oria ibaiaren padura gunek, Bidasoaren padurak eta terrazak, Jaizkibel mendia, Aia Harria eta Oartzunen goi-ibarra eta Leitzarán Ibaia.
- Euskal Autonomi Erkideko Inguru Hezeen Lurralde Plan sektoriala: Babes bereziko gunek: Txingudi, I Oria ibaia, Santa Barbarako putzua. Leizarán, Zelai eta Jaizkibeleko arroetako higroturbosa esparruak, Hegoaldeko zuhaitz-igelaren putzuak, Atsokabar y Egiluze.
- Isurialde Kantauriarako Ibaian eta Erreken Ertzak antolatze Lurralde Plan Sektorialak babestutako ur ibilbide guztiak.
- Isasertza Babesteko eta Antolatze Lurralde Plan Sektoriala: Eskualdeko itsasertz guztia.

- Igarobide ekologikoak: Espazio guñeak: Aiako Harria eta Jaizkibel. Adarra-Usarbeltza lotura eremua, Lotura korridoreak; Aiako Harria-Jaizkibel, Aralar-Aiako Harria, ibaien tarteak: Urumearen goialdea, Jauzubia, Landarbaso, Leitzaran, Urumea y Usoko.
- Espezien interes bereziko eremuak T.H.en onartutako Kudeaketaren Planekin: hegoaldeko zuhaitz-igela, Bisoi europearra eta Pirinioko desmana.
- Euskal Autonomi Erkideko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Euskal Katalogoa: Jaizkibel, Murgita, Santa Clara, Mendizorrotz, Igeldo, Añarbe, Endara, Oiartzun Goikoa, Pagogana eta Portoberri bezalako balore paisajistiko handiko arroak.
- Interes geologiko puntuak: ikusi 10. Kapituluko 8.1 planoan sartutako puntuak.

Aurrez seinalatutako baliabidez gain, lanaren eskala arrazoiengatik kartografiatu ezin izan diren beste hauek kontuan hartu dira azterketa honetan:

- Landaredia: 42 aipamen eremu funtzionaleko espazio naturaletan, “Euskal Autonomia Erkidegoko flora baskularreko zerrenda gorriaren” arabera (2010). 29 bat-etortze florarako “eremu sentikorrekin”, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak emandako zerrendaren arabera.
- Landaretza autoktomoaren bazterrak: Oria eta Bidasoa ingurunekeko estuarioarekin zerikusi duen landaretza, Añarbe eta Aiako Harrian pagadi azidofiloaren orbanak, Harizti/Atlantiar baso mistoaren orban esanguratsuenak Eremu Funtzional osoan zehar sakabanatuak.
- Arriskuan dagoen Fauna: Lehentasuneko banaketaren esparruak (17 kointzidentzia) Interes Bereziko Eremuak (17 kointzidentzia) eta Puntu sentikorrak (7 kointzidentzia).

4.4.- INGURUMEN UNITATE HOMOGENEO INTEGRATUEN DEFINIZIOA. **BALORAZIOA**

Lurralde Plan Partzialean, aztertutako lurralderako hiru lurralde-unitate nagusi bereizi dira, baliabide naturalen iraunkortasuna eta garapena bateragarri egiteko helburuarekin. Horietatik abiatuta lortutako ingurune naturalaren antolamenduak jadanik zenbait ingurumen-unitate homogeneo ezartzen ditu.

- a. Ingurune naturala lehentasunez babestu eta kontserbatzeko esparruak
- b. Landa-ingurunearen nagusitasuneko esparruak
- c. Hiri multzoak eta hiri inguruak

4.5.- ONDORIOAK ETA INGURUNEARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Donostiako Eremu Funtzionalak honako udalerri hauek biltzen ditu: Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil. Eremu funtzionalaren kokapen geografikoa dela-eta, oro har, temperatura leunak eta oso prezipitazio ugariak ditu. Lurraldean gradienteak nabarmen areagotzen da ekialdetik mendebaldera.

Litologiaren ikuspegitik, lurraldeak material mota ugari biltzen ditu, haren historia geologiko zabala dela eta. Litologia hedatuena Goi Kretazeokoak dira. Dauden materialek tektonika konplexua jasan dute. Eremua, oro har, faila batek banantzen du. Faila horrek Aiako Harriko, Bianditzeko, Urdaburuko, Adarrako... erliebe malkartsuak eta malda handidunak zatitzen ditu, eta elkartu egiten ditu material paleozoikoak eta triasikoak flysch kretazeoarekin.

Geomorfologiari dagokionez, esparrua itsasertzak banatzen du. Itsasertzak, kostalerrak ez ezik (Mendizorrotzetik Jaizkibeleraino), honako hauek biltzen ditu: Oriaren itsasadarreko eta Donostia-Irongo kanpoko igarobideak, itsasertz aurreko erliebeak eta haranak, eta ekialdeko erliebeak (Aia, Adarra, Udalar).

Eremuko lurzoruek garapen-maila neurritzotik altuera bitartekoa dute, eta emankortasun-baldintza onargarriak dituzte. Lurzoruen sakonera eraginkor handia, emankortasun onargarria eta malda txikia bi egoeratan biltzen dira; alde batetik, haran hondoetako mendi-hegaletan, ibilgu nagusiei lotuta; eta, bestetik, banalerro lauetan edo oso malda leunekoetan. Bi egoera horiek, batez ere, Lurralde tarteko zeharkako sektorean eta ibaien bokaletan bat egiten dute.

Aztertutako lurraldeko lau ibilgu nagusiak (Oria, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa) erregimen iraunkorrekoak dira, eta mareen eragina dute ere. Uren kalitatearen egoera, Bidasoarena ezik, erdizkakoa edo onargarria da, baina azken urteotan, zenbait industrien itxierari eta garatutako eta garatzen ari diren saneamendu planei esker, aldeko joera du. Bidasoako ibaiak, orokorrean, kalitate handiko urak dauzka.

Hidrogeologiari dagokionez, maila piezometriko egonkorra ezarrita duten eremu bakarrak Urumea, Oiartzun eta Bidasoa ibaien metaketa alubialak dira, ibilguen mailen arteko lotura nabarmenez.

Landarediari dagokionez, belardiak eta soroak, eta, ondoren, koniferoen basoberritzeak dira lurraldean gehien hedatutako unitateak. Ingurumen-balio handieneko unitatetzat harizti azidofiloa, hostozabal atlantikoen baso mistoa eta haltzadi kantauriarra nabarmentzen dira. Horiek, lurralde osoan, paisaia honen gizatiartze handiari eutsi dion landaredi naturalaren aztarna gisa barreiatuta azaltzen dira. Atal honetan, era berean, itsasertzeko landaredia sartzen da. Eremu Funtzionalean dauden gainerako unitateak jatorrizko landarediaren ez hain andeatutako arrastoak dira, eta basoberritzeen artean eta erabat antropizatutako paisaian iraun dutenak.

Gizakiaren jardunak floraren gainean, zeharka, faunan ere izan du eragina. Oro har, mendebalde-ekialde noranzkoan, gehien urbanizatu eta industrializatutako guneetan, giza presio bizeneko guneetan, nekazaritza-jarduerei dagokienez ere, andeatze-gradiente bat antzematen da ingurunean. Mendebalderantz gradiente hori arina da, baina iraunkorra hala ere. Bestalde, balio handiko gunetzat hartzen dira ibilguak eta ibaiertzak, animalia- eta landare-espezieen igarobide ekologikoak direlako, baso mistoaren eta hariztiaren hondarrak, eta, garrantzi txikiagoarekin, ingurunea saretzen duten palaxuak.

Lurraldeko paisaiarik ederrenak dira itsaslabarrak eta hondartzak, itsas eragina duen ingurunean, eta, jarraian, belardi eta soro atlantikoen nekazaritza-unitatea, ibai-eragina duen ingurunean.

Eremu Funtzionaleko ondare-elementuak ugariak dira eta lurralde osoan sakabanatuta daude. Ondasun historiko-artistikoak eta ondasun arkeologikoak ere biltzen dituzte.

90 hamarkadak hazkundearen bideari berriro heltzea ekarri zuen, bai Eremu Funtzionalean. Izan ere, urte horietan, suspertze sozioekonomiko nabaria izan zen, birmoldaketaren ondoriozko egoera zailaren ondoren. 2008-2014 bitarteko ekonomi atzeraldiak ez du hazkuntza demografikoa gelditu, hori bai hazkuntza motelagoa izan da, hala ere, produkzio ehunaren murrizketa sortu du.

Gaur egun, udal-egitura da Eremu Funtzionaleko administrazio-antolamenduaren eta hirigintza-kudeaketaren erreferente nagusia. Eremu Funtzionala osatzen duten hamahiru udalerrien multzoan daude haien homogeneousotasunaren gakoak, funtzionalki hiri-konurbazioa batean bilduta daudelako eta oreka orokor nabariko lurralde-unitatea eratzen dutelako. Oreka hori, batik bat, biztanleriaren neurrizko banaketan eta tokiaren zatiketa konpentsatuan oinarritzen da.

Donostiako Eremu Funtzionalaren ingurune naturalak, era berean, denetako baliabide naturalak biltzen ditu (azterlan honetan “balio handiko ingurumen-baliabideak” epigrafean jaso dira). Horietako batzuk arau ugariren babespean daude.

5.- PLANEAN KONTUAN HARTUTAKO ANTOLAMENDU HAUTABIDEEI BURUZKO INGURUMEN EBALUAZIOA

5.1.- BALDINTZA OROKORRAK

5.1.1.- ALDEZ AURRETIKO ARLOA

Lurralde Plan Partzialaren ingumen ebaluazioaren hasierako hausnartze garrantzitsutzat komeni da jakinaraztea dokumentu hau azpiegitura eta hirigintza koordinazio, lurralde integrazioa eta aldebakarreko ezaugarriko sektore planifikazio eta esku-hartze sorta baten eremu eta ingurumen balorizazio instrumentutzat konfiguratu dela batez ere, izan ere ingurumen azterlan, proiektuen garapen, espediente eta/edo obren burutzeen tramitazio administratiboen neurri batean bateratutako fase ezberdinetan baitaude kasu askotan.

Beraz, kontuan hartu beharko da Lurralde Plan Partzialaren proposamenek kasu askotan ez dutela suposatzen landa lurzoruaren kontsumo edo artifizializazio berririk, baizik eta jada martxan dauden aurreikusitako lurralde integrazio eta/edo koordinatze ezinbesteko arauak osatzen dituztela.

5.1.2.- INGURUMEN FISIKOAREN BABESIK HANDIAGOA LORTZEKO EREMUEN KUANTIFIKAZIOAREN AZTERKETA OROKORRA LURRALDE PLAN PARTZIALAREN ZEHAZTAPENEN APLIKAZIOEN OINDORIOZTAT

Ingurumen babes bereziko eremu funtzionalen lurralde azalerak ondorengoak dira Lurralde Plan Partzialeko ingurumen fisikoaren antolamenduan:

- Babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzoruak 184 km²
- Landa habitata eta/edo hiri inguruko esparru berdeak finkatzeko babes bereziko lurzoruak 84 km²
- Ibai korridoreak 8 km²

Beraz, Lurralde Plan Partzialean, eremu funtzionaleko 376 km²ko azalera guztitik 276 km²ko azalera izango da ingurumen babes bereziaren helburua, lurralderen ia % 75a.

Lurralde Plan Partzialeko babesik handieneko kategorien artean 192 km²ko azalera totala okupatzen da, babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes bereziko lurzoruen eta ibai-korridoreen artean konkretuki, Eremu Funtzionalako Lurralde %50 baino gehiagora iritsiz. Gaur egun ordea Aiako Harria parkea, 68 km²; KGT Jaizkibel, 25 km²; Txingudiko Plan Berezia eta ibilguen artean, 6 km², 104 km²ko babesik handieneko azalerara iristen da bakarrik, lurralde guztiaren % 27,6a, beraz, babesik handienaren emaitza Lurralde Plan Partzialaren alde dagoela argi dago.

5.1.3.- LURRALDE PLAN PARTZIALAREN GARAPEN HORIZONTEKO HIRIGINTZA EDO/ETA AZPIEGITURA OKUPAZIO BERRIAK JASATEKO GAI DIREN EREMUEN KUANTIFIKAZIOAREN AZTERKETA OROKORRA

Donostiako Eremu Funtzionalaren azalera osotik -376 km²-, egungo hiri-garapenaren lurralde-esparruak 56 Km² inguru hartzen ditu, hots, azalera osoaren % 15. Garapen hori honela banatuta dago: 27 Km² -kokaguneei dagozkie, 13 Km² jarduera ekonomikoko eremuei, 9 Km² ekipamendu publikoko zonei eta 7 Km² komunikazio-sareetara eta azpiegitura-elementuetara zuzenduta daude.

Hiri-garapen gehienak haranetako eta kostaldeko behealdeko zonetan kontzentratu dira orain arte, espazio-asetasun handiko puntu konkretu batzuetan zona garaia goetarantz hedatu badira ere.

Lurralde antolamendu eredu hau jarraitzen da Lurralde Plan Partzialean, garapen berri multzo bat aurreikusiz, zaharkitutako sareen barne eraldaketa eta kanpoko zabaltze multzoen bidez, orain arte landa lurrak izandakoen okupazioa dakartzatenak.

Planaren 16 urteko denbora horizontean hirigintza edo/eta azpiegitura okupagarritzat Lurralde Plan Partzialean aurreikusitako kanpoko lurzoru berrien azalerak, aurreikusi daitezken benetako hazkundearen dagozkien harrotasun ratioak barne:

- Etxebizitza lurzoruetan, kanpoko lurzoruen okupazio berrien ahalmen maximoaren eskaintza 420 Ha-koa da. Gainontzeko aurreikusitako etxebizitza operazioak barne eraldaketen prozesuei dagozkie.
- Jarduera ekonomikoen lurzoruak Planaren horizontean gehienez 210 Ha okupatzeko.

- Kanpoko komunitate ekipamenduen (hondakinen tratamenduen gunea, kartzela zentro berria, Aritzetaiko triangela etab.) gehienez 1 km²ko okupazio berria.
- Kanpoko komunikabide sareetan (EAEko Trenbide Sare Berria) 2 km²koa.

Lurralde Plan Partzialean aurreikusitako etorkizuneko zabaltzeetatik, kanpoko etxebizitza lurzoru berriaren 420 Ha eta kanpoko industria lurzoruaren 210 Ha, indarrean dagoen hirigintza plangintzako lurzoru urbanizagarritzat finkatuak daude gaur egun.

Ondoriotzat, parametro hauek orokorrean, okupazio maila gehienez 70,3 km²raino igotzea suposatzen dute, bere artifizializazio indizea % 15etik % 19ra pasatuz. Ratio hau onargarri da, ordain gisa, Lurralde % 75aren zaintze integralaren eta era berean, Lurralde Plan Partzialean konfiguratutako lurralde erreserben eremuetako babesteko ardura garrantzitsuko xedapenak ereduaren bermatzen direla kontuan hartuz.

5.2.- HARTUTAKO HAUTABIDEAK

Lurralde Plan Partziala sektore plangintza eta interbentzio serie batzuen koordinazio urbanistiko eta azpiegiturarako, lurralde integraziorako eta espazio eta ingurugiro baloraziorako instrumentu gisa eratu da; serie horietako asko, fase nahiko trinkoetan barneraturik daude. Alternatibak aurkeztu arren, kontsentsu publiko eta sozialak hasieratik aukeratutako soluzioaren alde egin zuen, eta aurrekoarekin batera ebatzi zen Planean beste alternatibarik ez planteatzea.

Hauek dira egungo IIBEren azterlanean burututako ingurumen ebaluazio orokorraren funtsezko nukleoa osatzen duten Lurralde Plan Partzialeko aukera nagusiak:

- Eremu Funtzionaleko ingurumen fisikoaren antolamendu orokorraren proposamena.
- Mugikortasun ereduaren eskema orokorraren ezarpena eta berari lotutako esku-hartzeen aukera sorta baten adierazpena.
- Uraren ziklo integralaren eta zerbitzuen azpiegituren proposamenak.
- Hiri-ingurunearen antolamendu orokorra, hirietako ibai korridoreak, hiriarteko eta hiri inguruko parkeak, lurralde erreserbak, izaera estrategikodun eremuak eta etxebizitza eta jarduera ekonomikoen lurzoruen dimentsionatze orokorra.
- Komunitate ekipamendu orokorraren proposamena.

Antolamendu aukera hauetatik Lurralde inpaktu berrien esku-hartze sortzaile nagusiak izaera estrategikodun eremuetan aurreikusitako esku-hartze batzuetan eta kanpoko bideen azpiegituretan zentratzen dira.

5.3.- EZ ESKU HARTZEKO AUKERAREN INGURUMEN EBALUAZIOA

Dokumentu honek oinarri duen planen eta programen ingurumen-ebaluazioari buruzko dekretuak arauz ezarritako edukiari erreparatuta, eta Lurralde Plan Partzialean aintzat hartutako antolamendu-alternatiben azterketari jarraituta, “0” alternatiba edo “ez esku hartzeko” alternatiba aplikatzearen emaitzazko ondorioak ebaluatu behar dira.

Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren kasu zehatzean “0” hautabidetzat edo “ez esku hartzeko” hautabidetzat lurraldean eragina duten estrategia hauetakoren bat har daiteke:

1. “Administrazioak ez esku hartzea” lurralde-antolamenduaren gainean eta, muturreko liberalismoaren ikuspegitik, lurraldea okupatzeko sistemaren autorregulaziora jotzea, ekimen pribatuko eragileengandik datozen hazkunde-eskaeren eta lurzoru-eskaintzen joko librearen bidez.
2. “Lurralde gainean ez esku hartzea”, lurzoru gehiago hartzea eskatzen duen hedadura oro geldiaraztearen ondorioz, eta hazkundera egungo hiri-eremuak trinkotzeko eta dentsifikatzeko estrategien bidetik eramatea.

Lehen kasuak (“administrazioak ez esku hartzea” Lurralde okupazioan), hirigintzaren eta azpiegituren antolamenduan ziurrenik anabasa ez ezik, aurreikusi eta kontrolatu ezinezko inpaktuak ekarriko lituzke, eta inpaktu horiek konponbiderik gabeko eraginak sorraraziko lituzkete. Horrenbestez, esan dezakegu aukera hori guztiz baztertzekoa litzakeela.

Bigarren kasuan (“Lurralde gainean ez esku hartzea”, lurzoruaren hiri- edo azpiegitura-okupazio oro baztertzegatik), landa-ingurunea egungo egoeran gordetzea lortuko litzateke, lurralde gehiagoren hirigintza-okupazioko prozesua geldiarazita. Baina, hiri-ingurunean egiten diren jarduerak (bigarren eta hirugarren sektorekoak) garatzeak berezkoak dituen eskabide sozial eta funtzional guztiak egungo lurralde-esparruen barruan gauzatu beharko lirateke soilik. Horrek, epe ertainean, gero eta hiperkontzentrazio eta dentsifikazio handiagoa ekarriko luke eta, ondorioz, hiri-ingurunearen kolapso funtzionaleko eta ingurumen-andeatze kritikoko egoera iritsiko litzateke.

Horrenbestez, dagokigun kasuan (Donostiako Eremu Funtzionalaren lurraldea etorkizunean antolatzeko jarraibideak finkatzea), “ez esku hartzea” aukera (kontuan hartutako bi adieretan) ez da, egiaz, ingurumenaren aldetik estrategia onargarria, ingurune naturala babestearen eta garapen iraunkorrerako oinarritzko parametroak modu bateratuan optimizatzearen ikuspegi orokorretik.

5.4.- HAUTABIDEAK BALORATZEKO INGURUMEN IRIZPIDEAK

Donostiako Lurralde Plan Partzialaren kasuan, hautabideak baloratzeko ingurumen-irizpideak kasuistika orokorrera eta lurralde-eskala zabalekora mugatzen dira. Betiere, Lurralde iraunkortasuna lortzeko ikuspegi bateratzaileak izan behar dira; barnean hartuta, ingurunearen gainean sorrarazitako afektazio negatiboa ez ezik, proposamenen ondoriozko gizarte-onura osagarri guztiak, bai eta Lurralde Plan Partzialean lurraldeko ingurumena leheneratzeko neurri osagarri gisa jasotako neurri babesleen, zuzentzaileen eta konpentsatzaileen ondorioa ere.

5.5.- PLANEAN AURREIKUSTEN DIREN ANTOLAMENDU ALTERNATIBA NAGUSIEN **DESKRIBAPENA ETA BALORAZIO OROKORRA**

Aurreratu den moduan, Lurralde Plan Partzialak ingurune fisikoaren babes maximorako proposatutako antolamenduak 192 km²-ko azalera hartzen du guztira –zehazki “babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes bereziko lurzoruen” eta “ibai-korridoreen” artean–. Eremu funtzionalaren Lurralde % 50 baino gehiago hartzen du.

Ehuneko hori gaur egun babes maximoko epigrafe beraren barruan biltzen den azalerarekin alderatuta (Aiako Harriko parkea, 68 km²; Ulia eta Jaizkibelgo kontserbazio-bereziko zona, 25 km²; Txingudiko Plan Berezia eta Lau-Haizetakoa eta ibai-ibilguak, 6 km²), 104 km²-ko babes maximoko azalera soilik lortzen da, Lurralde osotasunaren % 27,6; hortaz, babes handieneko saldoa nabarmen dago Lurralde Plan Partzialaren alde (ia bikoiztu egiten du).

Lurralde Plan Partzialak ingurune fisikoa antolatzeko sustatutako beste babes-irudi batzuetara jotzen bada, eremu funtzionalaren 376 km²-ko guztizko azaleratik 276 km²-ko azalera dago ingurumen-babes bereziaren mende, hau da, Lurralde ia % 75. Gainera, hiri inguruko landa-lurzorua dago, eta, lurralde-escalan babes-elementurik ez badu ere, Lurralde Plan Partzialak proposatzen du berori landa-habitat finkatutzat kalifikatzea. Hiri inguruko landa-lurzorua azalera 22,6 km² da guztira.

Hiri multzoei dagokionez, aurreratu da, era berean, esku artean diren ekimenek, oro har, okupazio-maila 70,3 km²-ra gehituko dutela gehienez, eta, hartara, haren artifizializazio-indizea % 15etik % 19ra pasatuko dela.

Azken finean, Lurralde Plan Partzialean finkatutako irizpideak bere gain har daitezke, baldin eta kontuan hartzen bada ereduaren Lurralde ia % 75en babes integrala bermatzen dela eta, horrez gain, babes-zuhertasun handiak antolatzen direla Lurralde Plan Partzialean konfiguraturako lurralde-erreserben esparruetan.

Planteatutako antolamendu-alternatibaren xehetasun-maila handiagoan sartuta, Lurralde gainean beste inpaktu batzuk eragin ditzaketen esku-hartze nagusiak “eremu estrategikoetan” aurreikusten diren jardunetako batzuetan oinarritzen dira. Izan ere, horietan biltzen dira, halaber, Lurralde Plan Partzialean Eremu Funtzionalerako txertatutako mugikortasun-eskema orokorreko elementuak, uraren zikloko elementuak, zerbitzu-azpiegiturak eta ekipamendu komunitarioak. Ondoren deskribatuko dira.

A. LASARTE-ORIAKO, ZUBIETAKO GOIALDEETAKO ETA ARITZETAKO IZAERA ESTRATEGIKOKO EREMUAK

Lurralde Plan Partzialean eremu hauetarako aintzat hartzen diren esku-hartze gehienak plangintza fase aurreratuan daude, baita gauzatze fasean ere. Haatik, Lurralde Plan Partzialean antolamendu orokorreko proposamenean islatu dira. Zehazki aipatzen dira Arzabaletako Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentro berria, Gipuzkoako espetxe berria eta Eskuzaitzetako jarduera ekonomikoetarako poligono berria –lur-mugimenduak egin dira jada–.

Eragiketa horrek Oria Behereko eskualdearen barruan duen inpaktua orekatzeko, Lurralde Plan Partzialak Lasarteko kotxetegietako industria-zona zaharraren bizitegi-transformazioko prozesua (1.000 etxebizitza) publikoki sustatzea proposatzen du, eta, aldi berean, hirugarren sektoreko jarduera berrien industrialde bat sustatzea (hori ere interes publikoko ekimen gisa), Lasarte erdialdean kokatutako Michelin industria-instalazioko lurzoru zaharkituak transformatuta.

Azpiegitura alorreko osagarri moduan, Oria ibaiaren ezker aldean, Lasarte eta Oria artean, bide-mugikortasuneko elementu berriak eta ibilbide bigunak garatzea aintzat hartzen da, horrela irisgarritasun-kanal berriak sortuko baitira Usurbil, Lasarte, Zubieta eta Oriatik Zubietako goialdeetako jardueren eta zuzkidura-ekipamenduen zona berrietarantz.

Oria Beherearen barruan interes estrategikokotzat jotzen den zona gisa sartzen da, halaber, Aritzetako triangeluaren esparrua, enklabe ezin hobe eta etorkizun hurbilean kokaleku periferikoa eta eskualde-irisgarritasun onekoa beharko duten interes orokorreko ekipamendu bereziak ezartzeko.

Eremu honen ingurumen-ebaluaziorako, dokumentu honen hurrengo kapitulura jo behar da, eta bere inpaktuaren analisi zehatza honako hauetan ezarritako hirigintzako plangintza-tresnaren bitartez egindako dokumentuetan jasotzen da: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, eta aplikatzekoa den legeria sektorialaren nahiz bidezko lankidetzahitzarmenen arabera formulatutako azpiegiturak garatzeko plan bereziak.

B. URUMEAKO KORRIDOREKO IZAERA ESTRATEGIKOKO EREMUA

Urumearen korridorean, eremu urbanizatuetako uholde-arriskuaren prebentzioa da Lurralde Plan Partzialaren lehentasun maximoa. Lehentasuna duen helburu horretara jotzen dute esparru estrategiko horretan bat egiten duten esku-hartze estruktural guztiak; izatez, kanpoaldeko iragaitzazko bide-sarea (bigarren ingurabidea eta Urumeako autobia) gauzatuta dago, baita Urumeako autobiatik Donostiako hirigunera sartzeko bidea ere.

Abiadura Handiko Trenaren trenbide-azpiegitura berria Urumeako haranean ezartzeko jarduna gero eta definituago dago. Azken proiektuen arabera, Abiadura Handiko Trena Donostiako hiriguneraino, hots, Atotxako geltokiraino sartuko da, iragaitzazko gisa, hirugarren hari baten bidez. Gainera, Atotxako geltokian jada eraikitzen ari dira autobus-geltoki berria. Konfiguratu gabeko elementu bakarra Urumea ibaiaren ezker aldean, Astigarraga parean, aurreikusten den trenbide-sare berriaren Trenak Aurreratzeko eta Aparkatzeko Postuaren (PAET-TAAP) plataforma da.

Lurralde Plan Partzialaren ikuspuntutik, Donostiako eremu funtzionalean, datozen urteetan, izango diren funtsezko hirigintza-transformazioetariko bat Donostiako hirigunea Amaratik Urumeako haranean zehar Hernaniraino hedatzea izango da. Eremu horretan aurreikusten diren eta garatzen ari diren eragiketa berrien sekuentzia hau da: hiri-birmoldaketa Loiolan, bizitegi-hedapeneko eragiketak Txominen eta Antzitan, hiri-berrantolamendua eta ibai-ibilguaren berrantolamendua Sarrietan eta Martutenen, bizitegi-zabalgune berria Astigarraga eta Ergobia artean, Martindegiko eta Akarregiko ibarren garapena jardura ekonomikoen ezarpen berriko zona gisa, eta bizitegi-garapen berriko eragiketak Hernanin, Florida eta Zinkuenea artean kokatutako industria-zonetako batzuen deslokalizazioaren bitartez.

Eragiketa horiek guztiak jada aintzat hartzen dira Donostiako, Astigarragako eta Hernaniko udal-plangintzako dokumentuetan. Lurralde Plan Partzialaren kasuan, hiri-transformazioko eragiketa zehatz horien sekuentzia osoarekin batera, hainbat esku-hartze estruktural orokor garatu beharko da: Urumea ibaiaren ibilguaren berrantolamendu orokorra eta ibaiertzen hiri-fatxada moduko tratamendu integratua, antzinako GI-131 errepidearen transformazio globala, barneko ardatz hiritar berri gisa, eta etorkizuneko hiri-sekuentzia indartzea ADIF trenbide-sareko aldiriko geltokien kokalekuan.

Eremu honen ingurumen-ebaluaziorako, dokumentu honen hurrengo kapitulura jo behar da, eta bere inaktuaren analisi zehatza honako hauetan ezarritako hirigintzako plangintza-tresnaren bitartez egindako dokumentuetan jasotzen da: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, eta aplikatzekoa den legeria sektorialaren nahiz bidezko lankidetzahitzarmenaren arabera formulatutako azpiegiturak garatzeko plan bereziak.

C. PASAIAKO BADIAGO IZAERA ESTRATEGIKOKO EREMUAK

Lurralde Plan Partzialaren lurralde-antolamenduko jardunaren barruan, agerleku bakarra hartu da aintzat eremu honetan –kanpoko dartsenaren proiektua baztertu da–. Izatez, barnealdeko portu-barrutiaren portu-jarduerak finkatzearen esparru orokorraren barruan, arian-arian berrantolatuko da Badiaren inguruko hirigintza- eta azpiegitura-antolamendua.

Badia berrantolatzeke jardun horrekin batera garatuko da Lurralde Plan Partzialaren trenbide-sare berriaren etorkizuneko konfigurazioan planteatutako jarduna. Aintzat hartu da UIC zabalera txertatzea porturako trenbide-loturetan, baita Pasai Antxoko salgaien trenbide-zabaltza deslokalizatu edo murriztu ahal izatea ere. Etorkizunean Lezon intermodala eraikiko dela kontuan izanik, portuaren eremu horretan aldiriko zerbitzua solik mantenduko da, eta horrek laguntzako plataforma logistikoak izango ditu.

Lurralde Plan Partzialaren irizpide orokor gisa mantenduko da jarduera ekonomiko berrietarako eta/edo ekipamendu orokorretarako eta hirugarren sektoreko zuzkiduretarako erabiltzea –barnealdeko portu-barrutia transformatzeko hipotesi guztietarako– ingurumen-mailan gogaikarriak diren portu-jarduerak deslokalizatzearen ondorioz

Eremu honen ingurumen-ebaluaziorako, dokumentu honen hurrengo kapitulura jo behar da, eta bere inpaktuaren analisi zehatza honako hauetan ezarritako hirigintzako plangintza-tresnaren bitartez egindako dokumentuetan jasotzen da: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea eta/edo Pasaiaiko Portuko Zerbitzu Eremua Antolatzeke Plan Berezia, eta aplikatzeko den legeria sektorialaren nahiz bidezko lankidetzak-hitzarmenen arabera formulatutako azpiegiturak garatzeko plan bereziak.

D. LEZO-GAINTXURIZKETA KORRIDOREKO IZAERA ESTRATEGIKOKO EREMUA

Lurralde Plan Partzialean Lezo-Gaintxurizketa korridorearen azpiegitura- eta hirigintza-garapenaren alternatiba hartu da aintzat. Pasaiaiko portuko barne-barrutian, portu-jarduerari jarraipena emateko aukeraren aldeko apustua modu iraunkorrean bideragarri egingo litzateke, eta Irungo hirigunearen transformazioan laguntzeko elementua ere izango litzateke, Irungo trenbide-jarduerak eta/edo trenbidearekin lotzen diren hirugarren sektoreko jarduerak Lezo-Gaintxurizketara eramateko aukera eskainita.

Lurralde Plan Partzialak Lezo-Gaintxurizketa korridorerako ezarritako esku-hartze guztia 625 ha inguruko esparruaren gainean hedatzen da. Azalera orokor horretatik, 80 ha Altamirako muinoa konfiguratzeko proposatutako barrutiari dagozkio –betiere Usategietako hiri arteko landa-parkearen parte gisa–, beste 40 ha, berriz, Usategietako lepoko korridore ekologikoarekiko elkargunean berdeguneak finkatzeari dagozkio eta 68 ha “hiri inguruko landa-lurzorutzat” definitu dira.

Gainerako 437 ha-ko azalera horretatik, 377 ha inguru jada okupatuta daude hirigintza-garapenekin eta Lurralde osotasunean barreiatutako poligonoekin, baita bertan dauden komunikabide-sistema orokorrekin ere (AP-8/AP-1 autobidea, GI-636 errepidea, Adif, Euskotren eta GI-2638 errepidea). Gainerako 60 ha libre interstizialetan, Gipuzkoako plataforma logistikoetako eta intermodaletako polo nagusia sortzea planteatu da, eta polo horrek lotura zuzenak izango ditu errepide-sare orokorrarekin, trenbide-sare orokorrarekin eta portu-sistemearekin.

Eremu honen ingurumen-ebaluaziorako, dokumentu honen hurrengo kapitulura jo behar da, eta bere inpaktuaren analisi zehatza honako hauetan ezarritako hirigintzako plangintza-tresnaren bitartez egindako dokumentuetan jasotzen da: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, eta aplikatzekoa den legeria sektorialaren nahiz bidezko lankidetzahitzarmenen arabera formulatutako azpiegiturak garatzeko plan bereziak.

E. TXINGUDIKO IZAERA ESTRATEGIKOKO EREMUA

Eremu horretako hirigintza-etorkizuna planifikatzeko, Lurralde Plan Partzialak arreta berezia jarri die Irungo hiria zeharkatzen duten komunikabide-ardatz nagusiak transformatzeko eragiketen aurreikuspenei. Hartzen den estrategiak eragin zuzena izango du Txingudiko ingurumen-baliabideen zaintza naturalistikoko politikaren gainean eta Hondarribia udal-barrutiaren hegoaldearen antolamenduan –Irungo udal-barrutiarekin muga egiten duen Zubietako ingurunean–.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren posizionamenduari zein hiritar kopuru handi baten eskaerei jarraituta, erabaki da Lurralde Plan Partzialaren horizontean ez planteatzea bigarren ingurabidea etorkizunean Donostialdearen ekialdean mugaraino luzatzeko aukera. Hauek dira, horrenbestez, Lurralde Plan Partzialean Irungo Benta eta mugaren artean aintzat hartzen diren esku-hartze bakarrak: AP-8/AP-1 autobidea hiru erreitara zabaltzea noranzko bakoitzean eta beste bi lotune zabaltzea, bat Irungo hirigunerako sarbide gisa, eta bestea, Lanbarrenen, Lezo-Gaintxurizketa korridorerako eta Pasaiaiko porturako sarbide gisa.

Bidaso Behereko etorkizuneko errepide-sarearen plangintza hori osatzeko, berraztertu egingo dira GI-636 errepidea Irungo Benta eta Zubieta artean –Irunen eta Hondarribian– bikoizteko hasierako aurreikuspenak. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Irungo eta Hondarribiko Udalek aurreikusi zuten bide laster bat eraikitzea, horren helburua zen zeharkaldiko eta barneko joan-etorrietako trafiko trinkoak hartzea –trafiko astunak barne– eta etorkizunean bide laster hori Behobiaraino luzatzea, N-121 errepidearekin lotzeko. Haatik, orain hasierako aurreikuspen horien aurrean, trafiko horiek AP-8/AP-1 autobiderantz bideratzeko estrategia nagusitu da. Horretarako, autobide hori hiru erreitara zabalduko da noranzko bakoitzean, eta haren ondoan Irun hegoaldeko perimetroko ingurabidea antolatuko da, betiere autobidean eraiki beharreko Irungo hirigunearekiko sarbide berrian oinarrituta.

Trenbide-azpiegiturari dagokionez, finkatu egin dira, antza, UIC zabalerako trenbide-sare berriaren ardatz iragaitz nagusiak eremu funtzionalean izango duen trazadurari buruzko aurreikuspenak; izatez, jada eraikitzen ari dira Andoain eta Astigarraga artean. Horrekin batera, erabaki da –itxuraz erabaki hau ere finkatuta dago– hirugarren hari bat antolatzea Astigarragatik Iruneraino ADIFen gaur egungo sarean. Hartara, zabalera mistoko sare iragaitza osatuko da edo hirugarren ari bat osatuko da Donostia-hirigunerako, Pasaiaiko Porturako, Lezon programatutako intermodalerako eta Irungo geltokirako sarbidea izango dena.

Era berean, ematen du behin betiko argitu dela Donostiako Aireportuaren tratamendua, eta finkatu egin dela gaur egungo dimentsionamenduan mantentzeko aukera.

Azpiegituren berrantolamendu orokorreko gertaleku horretan, garrantzi estrategiko berezia hartu du Irungo gaur egungo trenbide-instalazioen espazioak; izan ere, Irun eta Hondarribiko konurbazioaren barruan gehieneko hirigintza-zentraltasuna duen enklabe bat osatzeko gunea izango da halaberharrez. Era berean, Txingudiko badiako ingurumenaren babes-espazioak behin betiko antolatza zuzenduko den politika finkatzeko eta sustatzeko aukera paregabea da.

Eremu honen ingurumen-ebaluaziorako, dokumentu honen hurrengo kapitulura jo behar da, eta bere inpaktuaren analisi zehatza honako hauetan ezarritako hirigintzako plangintza-tresnaren bitartez egindako dokumentuetan jasotzen da: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, eta aplikatzekoa den legeria sektorialaren nahiz bidezko lankidetzahitzarmenen arabera formulatutako azpiegiturak garatzeko plan bereziak.

Planak “izaera estrategikoko eremuetarako” formulatzen duen antolamenduaz gain, Lurralde Plan Partzialak beste proposamen finkatu batzuk jaso ditu Eremu Funtzionaleko mugikortasun-eskema orokorra osatzeko, uraren ziklo integrala eta zerbitzu-azpiegiturak osatzeko eta ekipamendu komunitarioak osatzeko, horiei guztiei dagozkien nolabaiteko ekarpenak egiten baititu.

Proposamen horiek –finkatuak zein ekarri berriak– kontsulta daitezke Lurralde Plan Partzialaren memoriaren 3., 4. eta 7. planoetan. Dokumentu honek eskaintzen duen ikuspegitik, proposamen horien ingurumen-ebaluazioa dokumentu honen hurrengo kapituluari jorratuko da. Proposamen horietako bakoitza, berriz, garatu ahala tramitatu beharreko ingurumen-ebaluazioko azterketen mende izango da –izatez, horietako gehienak halaxe ari dira izaten edo halaxe izan dira jada–.

5.6.- **KONTUAN HARTUTAKO ALTERNATIBEN INGURUKO IRITZIAK**

Lurralde Plan Partzialaren Aurrerapen erakusketa publikoaren aldiaren emaitza gisa, 39 iradokizunen lehen emanaldia gauzatu da Donostiako eremu funtzionaleko lurralde antolaketaren inguruan iritzien aukera zabala islatuz.

Lurralde Plan Partzialaren irizpide, helburu eta ebazpen orokorren dokumentuan aurkeztutako edukiak laburtzen ziren, eta ingurune naturalaren eta lehen sektorearen babesaren oraingo dokumentuan dauden irizpideetan oinarrituz, erantzuna emanez.

Azkenik, 2008ko urrian, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Uren Sailburuordetzako Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzak. 2008ko Irailaren 24ko Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpena helarazi zuen, Donostiako eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren ereduna izango zen dokumentua azalduz.

Lurralde Plan Partzial honek 2010. urtean hasierako onarpena izan ondoren, jendaurreko informazioko tramitea pasa zuen eta alegazioak aurkeztu ziren. Alegazio horietan askotariko iritzi kontrajarriak agertu ziren; alabaina, oro har, nabarmendu da ingurumen-balioekiko eta lehen sektorearekiko errespetu handia azalduko duen garapen txikiko eredu baten aldeko iritzia, espazio berri urri erabiliko dituen bizitegi-kokaleku berrietarako, jarduera ekonomikoetarako edo azpiegituretarako –birmoldatzeko eta birsortzeko lanek izango dute lehentasuna, eta ez garapen berriek.

Garapen txikiko eredu baten ideia bera jaso egin da 2015eko alegazioetako iritzian, urte bereko martxoan lurralde-plan partzial honek hasierako onarpena lortu ondoren.

5.7.- KONTUAN HARTUTAKO HAUTABIDEEN INGURUMEN EGOKITASUNA JUSTIFIKATZEA

Lurralde Plan Partzialeko ingurune egokitasuna oraingo dokumentuan jarritako metodologiaren arabera justifikatzen da, eta 6. kapituluari identifikatu eta baloratzen diren inpaktu eta eraginaren eta, bestetik 7. kapituluari azaltzen diren proposatutako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen artean azterlan honetan agerian uzten saiatzen garen proportzionaltasuna eta bat-etortzea aztertuz.

6.- INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

6.1.- LURRALDE PLAN PARTZIALAREN HELBURUEK IZAN LITZAKETEN INGURUMEN ONDORIOEI BURUZKO AZTERKETA

Donostiako (Donostialdea-Bidaso Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala jardun arautzaile eta erregulatzailerik bat da, barnean hartzen duen lurralde osotasunerako proposamenak biltzen dituena. Ingurumen-ondorioetarako erraz uler daitekeen jarduna eskaintzeko asmoz, barnean hartzen dituen antolamendu-irudi guztiak zehaztuko dira, zerrenda zenbakitu eta bildu baten barruan, eta irudi horiei balorazio-analisi bat txertatu zaie, kapitulu honetan egin beharreko lanean aurrera egiteko.

1. **Ingurune fisikoaren antolamendua.** Donostiako (Donostialdea-Bidaso Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialak honako antolamendu-irudi hauek sortu ditu, dagokien esanahiarekin:

- *Zonifikazio orokorra*

Babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzorua.

Ingurune fisikoa nagusi duten lurraldeko esparruak dira, eta horientzat proposatzen da balio naturalistikoak eta paisaiari dagozkionak indartzea, nekazaritzako eta basozaintzako ustiapeneko jardura eta eraikuntza bateragarriak mantentzea eta, hala badagokio, hiri inguruko parkeetan integratutako jardura eta eraikuntza bateragarriak agertzea.

Ibai-korridoreak. Barnean hartzen ditu izaera funtsean ibaitarra duten lurraldeko esparruak, eremu funtzionaleko ibai nagusien ibilbidean zehar kokatuak. Ibaiaren behe-ibilgua, lehentasunezko fluxuaren eremua, urpean gera daitezkeen ibarrak, ibarbakoak eta ur-bazterreko zuhaitz-zerrendak hartzen dituzten espazio libreen segidak osatzen du, baita haien ertzetan berdegune gisa edo oinezkoentzako ur-bazterreko pasealeku gisa taxututako gainerako espazio libreak ere.

Landa-habitata eta/edo hiri inguruko esparru berdeak finkatzeko babes bereziko

lurzorua. Landa-habitata nagusi duten lurraldeko esparruak dira, eta horientzat aldeztu da lehen sektoreko landa-jarduerak eta -eraikuntzak finkatzea eta hobetzea eta Lurralde Plan Partzialean planteatutako hiriarteko eta hiri inguruko landa-parkeetan integratutako jardura eta eraikuntza bateragarriak mantentzea edo, hala badagokio, garatzea.

Hiri inguruko landa-lurzorua. Gaur egungo hiri-garapeneko eremuen inguruan dauden eta landa-habitata eta ingurune naturala nagusi diren lurralde-esparruak biltzen ditu, eta horien hirigintza-okupazioa ez da aintzat hartzen lurralde-plan partzial honen denbora-horizontean. Etorkizunean udal-plangintzak eta/edo udalaz gaindiko plangintzak argitu ahal izango dute habitat natural finkatu gisa mantendu edo hiri-garapenenari txertatu beharko zaizkion.

- *Antolamendu Xehatua*

Hiriarteko landa-parkeak. Udalaz gaindiko eskalako berdeguneak finkatzeko etorkizuneko eskualde-konurbazioaren barrualdean finkatzen dira, berdegune horiek paisaia zaintzea eta ingurune fisikoa kontserbatzea bermatuko dute, inguruarekin bateragarriak diren lehen sektoreko jarduerak irautea eta indartzea ahalbidetuko dute eta hiriguneetatik hurbil baina haien kanpoan dagoen landa-ingurunean kokatzeko ezaugarri egokiak dituzten ekipamendu eta zuzkidura bereziak kokatzeko aukera eskainiko dute.

Hiri inguruko landa-parkeak. Eremu horiek hirien kanpoaldeko hurbileko landa-inguruaren gaineko jolas-hedapenaren lehentasunezko eremu gisa arautu dira, eta bertan izaera ludikoa duten jarduera eta instalazioen presentzia bateragarri egingo da ingurune naturalaren kontserbazioarekin eta horren ingurumen- eta paisaia-balioak begiratzearekin, baita inguruarekin bateragarriak diren lehen sektoreko jarduerak finkatzearekin eta indartzearekin ere.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako eremu estrategikoak. Nekazaritza eta basoak antolatzeko Lurralde Plan Partzialaren arabera, kokaleku batzuk arautu dira nekazaritza eta abeltzaintza garatzeko, 17/2008 Legean neurri zuzentzaile eta konpentsatzaile gisa konfiguratu zirenak. Guztira 24 eremu dira, eta Lurralde Plan Partzialaren ingurune fisikoaren antolamendu orokorrari buruzko 2. planoan mugatu dira modu adierazgarrian.

Lurralde Plan Partzialean ingurune fisikoaren antolamendurako aurreikusten den zonifikazioaren azalpenetik ondoriozta daitekeenez, baliabide naturalak erreferentziatzeko aktiboak dira antolamendu-irudi guztietan, eta, egindako araudia abiapuntu izanik, gaur egun askotan ez duten babesa izan dezakete.

Hauek dira adierazpen hori frogatzen duten zenbakiak: eremu funtzionalaren 376 km²-ko azalera osotik 276 km²-ko azalera dago Lurralde Plan Partzialeko ingurumen-babes bereziaren mende, hau da, Lurralde ia % 75.

Adierazitako 276 km² horietatik, 192 km²-tan baliabide horiek babes-kategoriarik handiena izango dute (“babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes bereziko lurzorua” eta “ibai-korridoreak”); hartara, eremu funtzionalaren Lurralde % 50 baino gehiago hartuko dute.

Gaur egun, ordea, Aiako Harriko parkearen, 68 km², Ulia eta Jaizkibelgo kontserbazio bereziko eremuaren, 25 km², eta Txingudiko Plan Bereziaren, Lau-Haizetako Plan Bereziaren eta ibai-ibilguen, 11 km², artean, gehieneko babeseko 104 km²-ko azalera soilik lortzen da, hau da, Lurralde osotasunaren % 27,6.

Aipatutako gehieneko babes-irudi horien barruan sartzen ez den 76 km²-ko azalera, nolahi ere, babes-joera duten beste irudi batzuekin dago lotuta: ingurune naturala kontserbatzeko irudiekin, ingurumen- eta paisaia-balioak zaintzeko irudiekin eta lehen sektoreko jarduerak –ingurunearekin bateragarriak direnak– sustatzeko irudiekin.

Horrenbestez, argi dago gaur egungo egoerarekin alderatuz gero, Lurralde Plan Partzialak saldo hobea duela Lurralde baliabide fisikoak, naturalistikoak eta paisajistikoak babesteari dagokionez. Ildo horretan, nabarmendu behar da Lurralde Plan Partzialean ingurune fisikorako ezarritako antolamenduak bildu dituela gaur egun baliabide horiek dituzten elementu babestu guztiak.

Babes hori, halaber, “hiri inguruko landa-lurzorua” irudiaren mende antolatutako azaleretara zabal daiteke, irudi hori ez baita inolako jardunaren mende egongo aztertutako Lurralde Plan Partzialaren denbora-horizontean, eta, gainera, bertan dauden baliabideetarako babes-zuhurtasun handiak gordetzen ditu.

2. **Hiri-ingurunearen antolamendu orokorra.** Donostiako (Donostialdea-Bidaso Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialak honako antolamendu-irudi hauek sortu ditu, dagokien esanahiarekin:

Hiri multzoak. Gaur egun azpiegiturak eta/edo hirigintza-garapenak –finkatuta daudenak– okupatutako lurzorua eta hirigintza-okupaziorik gabeko lurzoru osagarriak biltzen ditu. Udal-plangintza orokorrak ezarriko du lurzoru horien kategorizazio eta kalifikazio xehatua.

Ibai korridore hiritarrak. Ingurune fisikoa antolatzeko mapan definitutako ibai korridoreen tarte hiritarrei dagozkie.

Hiri inguruko landa-lurzorua. Gaur egungo hiri-garapenaren eremuen inguruko ingurunean barnean hartzen diren lurralde-esparruak, etorkizunean landa-habitat finkatu gisa kalifika daitezkeenak edo hirigintza-zabalpen berri baterako eremuei atxiki dakizkiekeenak. Horietan, baldintzatzaile gainjarritzat gehitzen da adierazitako esparruetan dauden naturagune babestuetarako onartutako erregulazio eta kudeaketa-plan guztiak aplikatzea.

Izaera estrategikoko eremuak. Ingurumenaren, azpiegituren eta hirigintzaren arloan antolamendu xehatuko proposamenak dituzten esparruak dira.

Horrez gain, lurraldea artifizializatzen duten inplikazioak dituzte, eta mugikortasun-ereduaren eskema orokorra dute, elementu hauekin lotzen dena: oinezkoen eta bizikleten oinarritzako hiri arteko sarearen etorkizuneko konfigurazioarekin, errepideen sare orokorrarekin, trenbide-sareekin (ADIF, ETS, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berria, hots, AHT), horiei dagozkien geltoki eta intermodalitateko elementuekin, eta portu- eta aireportu-azpiegiturekin. Gainera, udal-plangintzan planifikatu beharreko jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eta bizitegi-parkearen antolamendua eta dimentsionamendua ezartzeko jarraibide orokorrak izango dituzte, baita uraren ziklo integralerako, zerbitzu-azpiegituretarako eta ekipamendu komunitario orokorrerako proposamen orokorrak ere.

Zenbakizko ondorioetarako, Donostiako (Donostialdea eta Bidaso Beherea) Eremu Funtzionalak guztira 376 km²-ko azalera du; gaur egungo hiri-garapenak 56 km² inguru hartzen du, hau da azalera guztiaren % 15 inguru. Garapen horren zatirik handienak haranetako eta kostaldeko behealdeko eremuetan metatu dira orain arte, espazio-asetasun handiko puntu zehatz batzuetan eremu garaia goetarantz hedatu badira ere.

Garapen hori honela banatuta dago: 27 km² bizitegi-kokaguneei dagozkie, 13 km² jarduera ekonomikoko eremuei, 9 km² ekipamendu publikoko eremuei eta 7 km² komunikazio-sareetara eta azpiegitura-elementuetara zuzentzen dira.

Lurralde Plan Partzialean eutsi egiten zaio lehen aipatutako lurralde-antolamenduari eta hainbat garapen berri aurreikusi da, zaharkitutako ehunen barne-transformazioaren emaitza gisa; beste lurzoru batzuk okupatzea ekarriko duten kanpoko hainbat zabalpenak ere aurreikusi dira.

Planak hartzen duen denbora-horizontean, hauek dira hirigintza-garapenak eta/edo azpiegiturak okupatzeko aurreikusi diren kanpoko lurzoru berriak –betiere aurreikus daitezkeen benetako hazkundearen harrotze-ratioak barne–:

- Bizitegi-lurzoruan, 420 ha-ko edukierako gehieneko eskaintza. Aurreikusten diren gainerako bizitegi-eragiketak barne-birmoldaketako prozesuei dagozkie.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruan Planaren horizontean gehienez 210 ha okupatzeko.
- Kanpoko ekipamendu komunitarioetan (hondakinen tratamendu-zentroa, espetxe berria, Aritzetako triangelua, eta abar) gehienez okupazio berriko 100 ha.
- Kanpoko komunikabide-sareetan (Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria) 200 ha inguru.

Horrenbestez, parametro horiek, osotasunean, okupazio-maila gehienez 70,3 km²-ra arte gehitzea ekarriko dute, gaur egungo okupazio-maila 56 km² denean. Eremu funtzionalean lurzorua artifizializazio-indizea % 15tik % 19ra gehitzea ekarriko luke horrek. Ondoren ingurumen-mailan aztertuko da gehikuntza hori.

6.2.- INPAKTUAK IDENTIFIKATU ETA BALORATZEA

6.2.1.- AURRETIAZKO IRITZIAK

Une honetatik aurrera nabarmendu behar da Lurralde Plan Partzialean, dokumentu arauemailea denez, inpaktuak identifikatu eta baloratzeko, hark oinarri hartzen duen plangintza fase bakoitza kontuan hartu dela; ez, ordea, plangintzatik ondorioztatzen diren esku hartzeko proiektuak, edota ingurunearen gainean sorrarazten diren zuzeneko jarduketak. Beraz, Lurralde gainean esku hartzeko berriazko ekintza berriak planteatzen direneko programetan edo proiektuetan identifikatu eta xehetasunez ebaluatu beharko dira inpaktuak; baita, hala badagokio, dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzea ere, zehaztapen-maila handiagoaz.

Aurretik azaldutakoa oinarri hartuta, atal honetan aurrera eramandako jarduna aurretiazko irizpide hauek izan dituzte euskarri:

- Lurralde Plan Partzialak egindako ingurune fisikoaren gaineko antolamenduan oso argi geratzen da hark babes handiagoa ematen diela eremu funtzionalari dagokion Lurralde baliabide naturalei, egun duten egoeraren aldean. Izan ere, gaur egun babestutako elementu guztiak barne hartzen ditu, eta agerian den arrazoiagatik salbuesgarria da: aurkeztutako baliabide guztietarako burututako antolamenduaren izaera positiboa.
- Hiri-ingurunearen antolamenduari dagokionez, Lurralde Plan Partzialean bizitegi-lurzorurako jasotako aurreikuspenetan ez da okupazio berririk aurreikusi erabilera horretarako (alegia, udal-planetan programatu ez den okupazio berririk). Hala, egun dauden okupazio gehienak finkatzen ditu. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruei dagokienez, Lurralde Plan Partzialak okupazio berriko 3,3 km² gehitu ditu, egun daudenak finkatzeaz gainera. Azkenik, ekipamendu komunitarioei dagokienez, Lurralde Plan Partzialak, era berean, okupazio berriak aurreikusten ditu, egun daudenak finkatzeaz gainera.
- Aurretik aipatutako okupazioa finkatuei edo ez finkatuei dagokienez, gehienak Lurralde Plan Partzialean “izaera estrategikoko eremuak” izeneko barruan sailkatzen dira, eta ondoren datorren ingurumen-ebaluazioaren xede izan behar dutela uste da. Horietan, halaber, mugikortasun-eskema orokorrari, uraren ziklo integralari, zerbitzu-azpiegiturei eta ekipamendu komunitarioei dagokien eskema orokorreko elementuen zati handi bat jasotzen da.

- Aipatutako ebaluazioari erantsi zaizkio, era berean (unitate bakarraren barruan), finkatutako edo finkatu gabeko proposamenak, mugikortasun-eskema orokorrari, uraren ziklo integralari, zerbitzu-azpiegiturei eta ekipamendu komunitarioei lotutakoak, “izaera estrategikoko eremuetan” bilduta ez daudenak. Horiek, orobat, okupazio berriak dakartzate eta, banaka aztertzeke, dagokien nahitaezko ingurumen-ebaluazioetara jo behar da. Lan honetan, “Bestelako proposamenak” epigrafearen baitan biltzen dira.

6.2.2.- INPAKTUAK IDENTIFIKATU ETA BALORATZEA

6.2.2.1.- Metodologia

Lurraldea antolatzeke horrelako dokumentu baten konplexutasunak atal hau bi mailatan jorratzea eskatzen du:

- Helburuen mailan
- Proposamenen mailan

Lurralde Plan Partzialaren helburuen ingurumen-eraginei buruzko analisian, lehenik eta behin, oinarritzat hartuko da haren edukia ingurumen-ebaluazio oro arautu behar duten garapen iraunkorraren printzipioekin bat datorrela; planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duen urriaren 16ko indarrean dagoen 211/2012 Dekretuaren 2. artikulua araberak.

Proposamenen inpaktuei buruzko analisia egiteko, “izaera estrategikoko eremuetan” jasotako proposamen guztien ondoriozko inpaktuak aztertuko dira, 6.2.1 atalean azaldutako justifikazioaren arabera. Horretarako, 2008ko irailaren 24an Ingurumen Kontseilariordetzak egindako “Donostiako (Donostialdea - Bidaso behekoa) eremu funtzionalerako Lurralde Plan Partzialaren ingurumen-inpaktuari buruzko baterako ebaluazioaren erreferentziako dokumentuan” aipatutako alderdiak analizatuko dira.

Inpaktuak baloratzeko, honako hauetan xedatutakoaren arabera baloratu dira: Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/1998 Legea Orokorraren 45. artikulua eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 4. eranskineko 8. puntua (2013-12-11ko BOEn).

Aurretik aipatutako legeriari jarraituz; azkenik, balorazioa inpaktu-mailen eskala honen arabera egin da eta esanahi hau hartzen du:

- Ingurumen-inpaktu BATERAGARRIA: Berehala zuzentzen da jarduerari utzi ondoren, eta ez du neurri babeslerik edo zuzentzailerik behar.
- NEURRIZKO ingurumen-inpaktua: Inpaktua zuzentzeko ez da behar neurri babesle edo zuzentzaile intentsiborik, eta hasierako ingurumen-baldintzak leheneratzeko denbora bat behar da.
- Ingurumen-inpaktu LARRIA: Ingurunearen baldintzak leheneratzeak neurri babesleak edo zuzentzaileak hartzea eskatzen du, eta, neurri horiekin ere, leheneratzeko denbora luzea behar da.
- Ingurumen-inpaktu KRITIKOA: onar daitekeen atalasearen gainetik dagoena. Eragin honen bidez, ingurumen-baldintzen kalitatea iraunkorki galtzen da, leheneratzeko aukerarik gabe, neurri babesleak nahiz zuzentzaileak hartuta ere.

Hortaz, uste da Lurralde Plan Partzialaren zehaztapen batzuek ondorio positiboak izan ditzaketela ingurumenaren gainean (hori ere jasotzen da aipatutako balorazioan).

6.2.2.2.- Lurralde Plan Partzialaren helburuen ingurumen-eraginak

Lurralde Plan Partzialaren helburuen ingurumen-eraginak identifikatzeko, ingurumen-ebaluazio oro arautu behar duten garapen iraunkorraren printzipioak berrikusi dira; planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duen urriaren 16ko indarrean dagoen 211/2012 Dekretuaren 2. artikulua araberak. Hona adierazitako printzipioak:

- a) Lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzoruak eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.**

Lurralde Plan Partzialean bete egiten da dagoeneko artifizializatutako lurzoruen erabilera intentsiboa lehenesteko printzipioa. Horretarako, berriazko neurri batzuk hartu dira, etorkizuneko hirigintza- eta azpiegitura-garapenak lehentasunez barneko birmoldaketa-eremuetan kontzentratzeko. Horren adibide dira: Pasaia badiak, Irungo trenbidegunea, eta Lasarteko kotxetegiak eta Andoaingo Bazkardoko zona zaharkituak industriatik bizitegiarako birmoldaketa, besteak beste.

Aldi berean, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babesteko, ingurune fisikoa antolatzeke figura batzuk sortu dira. Horietarako guztietarako, lurzorua erreferentziazko aktiboa da. Izan ere, "Nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoen" figura sortu da. Horiek kokalekuak arautzen dituzte, nekazaritza eta abeltzaintza garatzeko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera. Eremu horiek (guztira 23 dira) zehazki mugatuta daude Lurralde Plan Partzialaren ingurune fisikoaren antolamendu orokorreko 2. planoan, eta honako hauek dira:

1.- Igeldo	7.- Urnieta iparraldea	13.- Zamora	19.- Jaitzubia
2.- Igara	8.- Urnieta hegoaldea	14.- Iturriotz	20.- Hondarribia
3.- Usurbil-Guarde	9.- Andoain	15.- Oiartzun	21.- Olaberria
4.- Aginaga	10.- Gartziategi	16.- Gurutze	22.- Artia
5.- Zubieta	11.- Lau Haizeta	17.- Altamira	23.- Lastaola
6.- Lasarte	12.- Frantzilla	18.- Jaizkibel	

b) Hiri-segregazioa eta hiriaren barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, eta, horretarako, hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuak sustatzea.

Hiri-segregazioa eta hiriaren barreiadura saihesteko, Lurralde Plan Partzialaren apustu argia da hiri-taldekatzeak sortzea eta horiek pixkanaka berezko hiri zati gisa konfiguratzea. Horretarako, haien barruko hiri-kohesioa finkatu behar da eta oreka optimizatu behar da bizitegi-erabileren, jarduera ekonomikoko erabileren, zuzkidurako eta hirugarren sektoreko sistemaren eta, baita ere, kanpoko hiri ingurunearen artean.

Hiri multzo horietarako, Lurralde Plan Partzialak, era berean, etengabeko jarraitutasuneko eta erabateko osotasun funtzionaleko hiri-bilbe gisa konfiguratzea jotzeko estrategia proposatzen du, ekipamendu osagarriak gehitzea eta hutsik edo zaharkituta dauden espazio-zirrituak berrantolatzea izanik horretarako bidea.

Aurrekoaren arabera, Lurralde Plan Partzialean, era berean, proposatutako mugikortasun-eskemak eremu funtzionalaren barruko mugikortasunaren arazoa tratatzeko lehen estrategiatzat planteatzen du trafikoak sortzea eragozteko disuasio-neurriak ezartzea eta lehentasunez garraio publikoa sustatzeko neurriak ezartzea. Testuinguru horretan neurri jakin batzuei lehentasuna ematen zaie, hala nola bizitegia eta lana bezalako hirigintza-erabilerak nahastea, zuzkidura-ekipamenduak eta hirugarren sektorekoak lurralde osoan dibertsifikatzea, oinezko eta bizikletentzako ibilbide bigunen ordezkari sare bat sortzea, eta garraio-sare publikoaren prestazioak optimizatzea.

Interes orokor handiko gai espezifiko gisa, Lurralde Plan Partzialean, halaber, "ibilbide bigunen sare" bat sortzeari buruzko proposamenak ere sartzen dira, oinezkoek eta bizikletek aukera izan dezaten hiriguneak elkarrekin konektatzea ahalbidetuko duten eta hiriguneetatik kanpoko lurralde periferikora iristeko erraztasunak emango dituzten zirkuitu espezifikoetatik zirkulatzeako. Ildo horretatik, Lurralde Plan Partzialean sartu egin da Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean jasotako sarean (Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013an prestatu zuen Lurralde Plan Sektorial hori), trazadura berrien proposamenen bat gehituta, "Txirrindulari eta oinezkoentzako hiriarteko sarearen" figura sortu du.

c) Lurzoruaren antropizazioa murriztea, lurzoria jasangarritasun handiagoaz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.

b) atalean sartutako lurzoruari buruzko erreferentziak bat datoz iraunkortasun-printzipio honekin. Izan ere, ekitaldi honetako a) atalen aipatutakoak ere erantsi zaizkio. Gogoan izan behar da, aipatutako atalean adierazten zela adierazitako printzipioa bete beharra, hiri barruko birgaitze-eremuetan etorkizuneko hirigintza- eta azpiegitura-garapenak lehentasunez kontzentratzeko neurriak hartuta (Pasaiaiko badia, Irungo trenbidegunea, eta Lasarteko kotxetegiko eta Andoaingo Bazkardoko zona zaharkituak industriatik bizitegira birmoldatzea, besteak beste).

d) Natura-baliabideen erabilera iraunkorra sustatzea: ura, energia, lurzoria eta materialak.

Lurralde Plan Partzialaren funtzionaltasunak berak berekin dakar, inplizituki, adierazitako baliabideen erabilera iraunkorra sustatzea, Eremu Funtzionalean dagoeneko abian daude aurreikuspen guztiak lurraldean koordinatzeko eta/edo integratzeko ezinbesteko jarraibideak barne hartuta.

Gainera, Lurralde Plan Partzialean, aipatutako printzipioa betetzen da. Horretarako, hamahiru udalerrietako hiri-antolamenduko plan orokorretara eta Lurralde-Plan Sektorialetera jotzen du. Hain zuzen, horietan jasoko dira bidezko zehaztapenak energiaren aurrepenaren eta eraginkortasunaren inguruan, energia berriztagarriak erabiltzearen inguruan, arkitektura bioklimatikoa bultzatzearen inguruan, eta hiri-hondakinak murriztu eta baliaraztearen inguruan.

e) Habitatak eta espezieak, ingurumen naturala eta konektagarritasun ekologikoa zaindu eta hobetzea.

Lurralde Plan Partzialean errespetatu egiten da printzipio hori. Horretarako, unitate espazial handien kategoriak sortzen ditu, ingurune fisikoa antolatzeak konfiguraturutakoak. Horien konfigurazioak eta banaketak bermatu egiten dute korridore ekologikoen sare bat finkatzea; eta bultzatu egiten dute espazio natural babestuen kanpoko eremuen koherentzia eta konektagarritasuna, biodibertsitatea kontserbatu eta hobetzeaz gainera.

Illo horretatik, gainera, interes berezia du "Ibai-korridoreen" figura. Ingurune fisikoaren kategorizazio horren barruan sartzen dira Oria ibaiaren ibai-korridorea, Urumea ibaiaren ibai-korridorea, Oiartzun ibaiaren ibai-korridorea, Jaitzubiko errekaaren ibai-korridorea eta Bidasoa ibaiaren ibai-korridorea.

f) Paisaia eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.

Lurralde Plan Partzialak ingurune fisikoari buruz formulaturutako antolamenduak bultzatu egin ditu alderdi horiek, horiek bultzatzera zuzendutako figura bana sortuta. Izan ere, hiri-ingurunea antolatzeak proposamen guztiak haiek biltzen ditu zenbait helbururekin, besteak beste: haiek ez sakabanatzea, eta adierazitako balio estetiko eta kulturalen gainean nahi ez diren eraginak saihestea.

g) Energia aurrezteak, efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.

Lurralde Plan Partzialean, aipaturutako printzipioa betetzen da. Horretarako, hamahiru udalerrietako hiri-antolamenduko plan orokorretara eta lurralde-plan sektorialetara jotzen du. Hain zuzen, horietan jasoko dira bidezko zehaztapenak energiaren aurrepenaren eta eraginkortasunaren inguruan, energia berriztagarriak erabiltzearen inguruan, arkitektura bioklimatikoa bultzatzearen inguruan, eta hiri-hondakinak murriztu eta baliaraztearen inguruan.

- h) Aire garbia bermatzea, baita zarata eta argi-kutsadura handien pean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.**

Enuntziatuko iraunkortasun-printzipioarekin koordinatuta, Lurralde Plan Partzialak hura oinarri dituen zenbait antolamendu-figura sortzen ditu; hau da: Lurralde baliabide naturalak babesten dituenak. Ildo horretatik, hamahiru udalerrietako hiri-antolamenduko plan orokorretara eta lurralde-plan sektorialetara jotzen du. Horietan, aipatutako printzipioarekin bat datozen zehaztapenak bilduko dira.

- i) Ur-masen egoera ekologiko egokia lortzea, baita baliabidearen erabilera jasangarria ere.**

Lurralde Plan Partzialak, Eremu Funtzionaleko ibaien ibilgu nagusietan zehar, “Ibai-korridorearen” eta “Ibai-korridore hiritarraren” figurak ezartzen ditu, eta finkatzen du horien araudia bateragarria dela “Lurrazaleko urak babesteko” Lurralde Antolamenduko Gidalerroen antolamendu-kategoriarekin. Berori garatuta dago EAEko Ibaien eta Erreken ertzak Antolatze indarrean dagoen Lurralde Plan Sektorialarekin. Bertan, ingurumen arloko helburu nagusiak dira uraren kalitate egokia zaintzea eta dibertsitate biologikoaren galera geldiaraztea, habitaten funtzionamendu iraunkorra babestu eta leheneratuta. Hortaz, aztergai den lurralde-dokumentuaren helburuen baitan daude

Baliabidearen erabilera iraunkorrari dagokionez, ikus agiri honetako d) atala.

- j) Aldaketa klimatikoaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.**

Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna gutxitzera zuzendutako arintze- eta egokitze-neurrien helburua izan ohi da berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, karbono gutxien erabiltzen duten teknologia berritzailerantz ekonomiaren mailakako eraldaketa lortzen saiatuta. Orobat, beharrezkoa da ere landa-ingurunearen zeregina finkatzea; berotegi-efektuko gasen emisioa mugatzen eta karbono-hustubide gisa lurzoruak duen egitekoari eusten lagunduko duen nekazaritza-garapeneko eredu mantentzeko.

lido horretatik, adierazitako murrizketa bultzatzeko natura-inguruneak dituen aukerei dagokienez, Lurralde Plan Partzialak helburu estrategikotzat ezartzen du landa-ingurunea mantentzea eta dauden baliabide naturalak babestea (egun dauden egoerarekiko aurrerapen handiaz). Adierazitako iraunkortasun-printzipioari lotutako giza faktoreei dagokienez, Lurralde Plan Partzialak ez ditu zuzenean horien jarrerak arautzen. Hala ere, printzipio hori sustatu egiten du lurralderako proposamenak antolatu eta integratuta. Horietako asko zuzenean lotuta daude aztertutako alderdiarekin (adibidez, planteatutako mugikortasun-eskema –horren eskema batzuk adierazi dira jardun honen b) atalean–).

k) Arrisku naturalak gutxitzea.

Uholdeak izanik Eremu Funtzionaleko arrisku natural handiena, bai askotan gertatzen direlako, bai berekin dakartzaten galera ekonomikoak –eta, batzuetan, giza galerak ere–, Lurralde Plan Partzialaren irizpidea da “100 urteko itzulaldiko uhaldien aurrean arriskuan dauden eremuetan lurzoru ez-hiritarraren okupazioa saihestea”, Ekialdeko Kantaurirako Plan Hidrologikoaren eta EAEko Ibaien eta Erreken ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren 1. aldaketaren proposamenei jarraituz. Horretarako, Oria, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa-Jaitzubiko ibai-korridoreen figura sortu beharko da.

Ibai-korridore horiek ur-goraldien erregimenean urpean gera daitezkeen lurzoruei dagozkie. Horiei urpean geratzen ez diren espazio libre berdeak, parkeak eta ur-bazterreko pasealekuak gehitzen zaizkie eta, era berean, ibaien ertzetan kokatutako hiri-eremu finkatuak kentzen zaizkie, eta bertan uholdeak prebenitzeko obrak egin behar dira. Horrenbestez, uholdeak prebenitzeko arazoa ebazteko zeregina ondorioztatu behar da, lehentasunezko fluxu-eremua eta uholde-arriskuko eremua behar bezala dimentsionatzeko eta horietan dauden oztopoak errotik libratzeko beharra planteatuta.

6.2.2.3.- Proposamenen ingurumen-eraginak

Inpaktuak analizatzeko, 6.2.1 atalean justifikatu denez, kontuan hartu dira “Izaera estrategikoko eremuetan” eta “Bestelako proposamenean” jasotako proposamen guztiak.


Lurralde Plan Partzialak honako helburu hauek ezarri ditu horietarako guztietarako:


- Lasarte-Oriari, Zubietako goialdeei eta Aritzetari dagokien “Izaera estrategikoko eremuetan”, gaur egun, dagoeneko indarrean dauden proiektu sektorial eta hiri-plangintza ugari aurrera egin dute edota ingurumen- edo administrazio-izapideen oso egoera aurreratuan daude (zenbaitetan, obrak dagoeneko hasiak dira). Lurralde Plan Partzialak, kasu horretan, horien guztiak bildu eta lurralde aldetik integratu besterik ez du egiten. Helburu horretatik Aritzetako eremua besterik ez litzateke salbuetsiko. Izan ere, eremu horretarako, Lurralde Plan Partzialak oraindik zehazteko dagoen okupazioa erreserbatuko luke. Eremu horietan, baliabide natural nabarmenak dira erantsita doazen 1. eta 1'. irudietan azaldutakoak.
- Urumearen korridoreari dagokion “Izaera estrategikoko eremuan”, Lurralde Plan Partzialak ibai-esparrua babestu eta birkualifika dadila eskatzen du, hura azpiegiturek eta urbanizazioek inbaditzea galarazita, haren ertzen eta ur-bazterren ingurumen-hobekuntza bultzatuta, eta ingurumenaren, hidraulikaren eta espazioaren arloetan antolamendu oroko eskuzabala bermatuta, Urumea ibaian zehar sektorez gaindiko ikuspegiaz. Gainera, beste antolamendu batzuen ondoriozko zehaztapen ugari biltzen ditu. Eremu horretan, baliabide natural nabarmenak dira erantsita doan 2. irudian azaldutakoak.
- Pasaia badiako “Izaera estrategikoko eremurako”, Lurralde Plan Partzialaren ekimenak leheneratzeko esku-hartzeetan oinarritzen dira. Horiek berekin ekarriko lukete portuaren egungo instalazioak eta badiaren ingurunean bildutako komunikazio-sare orokorrak berri eta eraldatzea, ingurumen-hobekuntzako eta hirigintzako esku-hartzeetan. Erabat antropizatutako eremu horretan, baliabide natural nabarmenak dira, erantsita doan 3. irudian azaldutakoak geratzen dira.
- “Lezo-Gaintxurizketa korridorearen eremu estrategikorako”, Lurralde Plan Partzialak porturako etorkizuneko irisgarritasun-sistemaren azpiegitura-garapena jasotzen du, baita plataforma logistikoko intermodalen polo bat eta lurralde-eskala orokorreko jardura ekonomikoen poligonoak ere. Horien zuzeneko lotura izango dute bideen eta trenbideen sare orokorrekin. Horri esker, alde batetik, Pasaia portua eta badia berri eta leheneratuko da, eta lrungo erdialdea leheneratuko da, bertako trenbide-zabaldegien desagertze posibleagatik. Eremu horretan, baliabide natural nabarmenak dira erantsita doan 4. irudian jasotakoak.


- “Txingudiko eremu estrategikorako”, Lurralde Plan Partzialak erabateko leheneratzen orokorra planteatzen du, Txingudiko naturagunean sartu beharreko beste eremu batzuk finkatzearekin koordinatuta (zehazki, 8,8 ha dira). Eremu horretan, asko dira baliabide natural nabariak. Horietako gehienak erantsita doazen 5. eta 5*. irudietan daude jasota.
- Azkenik, proposamen linealetarako, Lurralde Plan Partzialaren ekarpen barra da, gehienez ere, horiek lurraldean jaso eta integratzea, finkatutako proposamenei dagokienez. Gainera, beste proposamen batzuk planteatzen ditu, izaera estrategikoko eremuetatik kanpo daudenak, eta bai mugikortasun-eskema orokorrari, bai uraren ziklo integralari eta, baita ere, zerbitzu-azpiegiturei eta ekipamendu komunitarioei erantzuten dietenak.

















Proposamenen ingurumen-eraginei buruzko analisisan aurrera egiteko, “Donostialdeko (Donostialdea - Bidasoa behekoa) eremu funtzionalerako Lurralde Plana Partzialaren ingurumen-inpaktuari buruzko baterako ebaluazioaren erreferentziazko dokumentuaren” 2.5.5 atalean horretarako ezarritako zehaztapenei jarraitu zaie. Dokumentu hori Ingurumen Sailburuordetzak formulatu zuen 2008ko irailaren 24an. Hona adierazitako eraginak:

- Natura 2000 sarearen gaineko eragina
- Fauna eta floraren gaineko eragina onartutako kudeaketa-planekin
- Fauna eta floraren gaineko eragina onartu gabeko kudeaketa-planekin
- Bertako landarediko zuhaiztien gaineko eragina
- Balio estrategikoko lurzoruen gaineko eragina eta nekazaritza-produktibitatearen galera
- Paisaiaren gaineko eragina
- Akuiferoen gaineko eragina
- Lurzoru artifizializatua areagotzea
- Kontsumoak areagotzea (ura, energia)
- Hondakin gehiago sortzea

Dokumentu honen 10. kapituluari jasotako “Ingurumen-baliabide baliotsuak eta planaren proposamenen gainjartzea” izeneko 8. planoetan, irudikatuta daude aipatutako elkarreragin gehienak; salbuetsita irudikapen grafiko posiblek ez dutenak, bai haien izaeratik, bai oso tokikoak izateatik. Ondorioz, ezinezkoa da horiek azterlanaren eskalan (1/100.000) sartzea. Horietara jotzen du “Bestelako proposamenen” inguruan egindako ingurumen-ebaluazioak; ez, ordea, izaera estrategikoko eremu bakoitzarekin lotutakoak. Horietarako, aurretiaz azaldutako irudiak prestatu dira. Nolanahi ere, kasu guztietan, www.geo.euskadi.net web-orrian eskuragarri dagoen eskala txikiagoko ingurumen-kartografia digitala erabili da, eta, gainera, landa-bisitak egin dira.

Jarraian, adierazitako alderdien matrizea agertzen da. Horiek lotuta daude Lurralde Plan Partzialaren proposamenak abiarazteko xede diren azaleretako bakoitzarekin. Matrizearen azpiko lerroan, laburbilduta zehaztu da Lurralde Plan Partzialak haientzat erabakitako estrategia, ondoriozko inpaktua behar bezala ebaluatu ahal izateko.

DONOSTIAKO (DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEREA) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE PLAN PARTZIALA

	"Izaera estrategikoko eremuak"					Bestelako proposamenak
	Lasarte-Oria, Zubietako goialdeak eta Aritzeta	Urumeako korridorea	Pasaiaiko badia	Lezo-Gaintxurizketa korridorea	Txingudi	
Natura 2000 Sarearen gaineko eragina	-	-	-	-	-	X
Fauna eta floraren gaineko eragina onartutako kudeaketa-planekin	X	-	-	-	-	X
Fauna eta floraren gaineko eragina onartu gabeko kudeaketa-planekin	X	X	X	X	X	X
Bertako landarediko zuhaitziaren gaineko eragina	X	X	-	X	-	X
Balio estrategikoko lurzoruen gaineko eragina eta nekazaritza-produktibitatearen galera	X	X	-	X	X	X
Paisaiaren gaineko eragina	-	-	-	X	-	X
Akuiferoen gaineko eragina	-	X	-	-	-	X
Lurzoru aritifizializatua areagotzea	X	X	-	X	X	X
Kontsumoak areagotzea (ura, energia)	X	X	X	X	X	X
Hondakin gehiago sortzea	X	X	X	X	X	X
Lurralde Plan Partzialaren HELBURUAK	Aritzetan eta Lasarte-Orian garapena finkatu eta antolatzea, eta mugikortasun-eskema orokorrarekin, uraren ziklo integralarekin, zerbitzu-azpiegiturekin eta ekipamendu komunitarioekin lotutako proposamenak gehitzea.	Korridorean ibai-esparrua babestea eta garapena antolatzea, eta mugikortasun-eskema orokorrarekin, uraren ziklo integralarekin, zerbitzu-azpiegiturekin eta ekipamendu komunitarioekin lotutako proposamenak gehitzea.	Badia leheneratzeko antolamendua ezartzea, eta mugikortasun-eskema orokorrarekin, uraren ziklo integralarekin, zerbitzu-azpiegiturekin eta ekipamendu komunitarioekin lotutako proposamenak gehitzea.	Korridore osoaren garapena antolatzea, eta mugikortasun-eskema orokorrarekin, uraren ziklo integralarekin, zerbitzu-azpiegiturekin eta ekipamendu komunitarioekin lotutako proposamenak gehitzea.	Eremua leheneratu eta garatzeko antolamendua ezartzea, eta mugikortasun-eskema orokorrarekin, uraren ziklo integralarekin, zerbitzu-azpiegiturekin eta ekipamendu komunitarioekin lotutako proposamenak gehitzea.	Finkatzea eta antolatzea "Izaera estrategikoko eremuetatik" kanpo daude mugikortasun-eskema orokorrarekin, uraren ziklo integralarekin, zerbitzu-azpiegiturekin eta ekipamendu komunitarioekin lotutako proposamenak.
INPAKTUAREN KALIFIKAZIOA	NEURRIZKOA	NEURRIZKOA	NEURRIZKOA	LARRIA	NEURRIZKOA	LARRIA

6.2.2.4.- Ondorioak

Egiaztatu ondoren Lurralde Plan Partziala bat datorrela planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duen urriaren 16ko indarrean dagoen 211/2012 Dekretuaren 2. artikuluan jasotako iraunkortasun-printzipioekin, baieztatu ahal izan da Plana zuzenean egokitu egiten dela haren ia printzipio guztietara; salbuetsirik, dokumentuaren izaera arauemailea dela-eta, horietan berariaz sakontzen ez dutenak, nahiz eta zeharka bai. Nolanahi ere, halakoetan, jasota dago horiek nahitaez jo behar dutela hamahiru udalerrietako hiri-plangintzako plan orokorretara eta Lurralde Plan Sektorialetara. Horietan, bidezko zehaztapenak jasoko dira aipatutako printzipioei dagokienez.

Egindako ingurumen-ebaluazioan jasotako “Izaera estrategikoko eremuei” eta “Bestelako proposamenei” dagokienez, honako ondorio hauek atera dira (banaka):

1. Lasarte-Oriako, Zubietako Goialdeetako eta Aritzetako “Izaera estrategikoko eremua”

Eremu honetarako Lurralde Plan Partzialak egindako finkatze-jardunetik abiatuta – bertan, ia jarduketa garrantzitsuen guztien (espetxea, hondakinen tratamendua, jarduera ekonomikoetarako zentroa, etab.) lur-mugimenduak dagoeneko gauzatuta daude Eskutzaitzetako esparruan–, inpaktua **NEURRIZKOTZAT** hartu da; batez ere, Aritzetako esparrurako aurreikusitako okupazioaren ondorioz. Eremu hori gaur egun Lurralde azpiegitura handietara oso lotuta badago ere, bertan oraindik falta dira (Oria ibaia bera gehitzen duen Lasarte-Oriako eremuan bezalaxe) eragina izan dezaketen baliabide natural jakin batzuk. Horietarako, beharrezkoa litzateke jarduketa babesleak, zuzentzaileak edo konpentsatzaileak aplikatzea, esate baterako, bertako zuhaitzien ataletarako, Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatetarako edo balio agrologiko handikotzat kalifikatutako lurzoruetarako. Era beran, Aritzetako eremuan gainjarrita dago hegoaldeko zuhaitz-igelaren (*Hyla meridionalis*) interes bereziko eremu bat. Espezie hori mehatxatuta dago eta kudeaketa-plan bat du Gipuzkoako Lurralde Historikoan (ikus aurreko atalean jasotako 1. irudia).

Aritzetairen gaineko adierazitako okupazioaz gainera –oraindik zehazteko dago, baina ekipamendu motako elementuren batean pentsatu da, hurbileneko komunikabideetarako duen sarbide egokiagatik (adibidez, suhiltzaileak, etab.), Lurralde Plan Partzialak eremurako etorkizuna bideratuta dauka Lasarte-Oriako eremurako lurzoruak berrerabiltzeko jardunetara (zehazki, kotxetegia eta Michelin). Bi kokalekuak sartuta daude lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan. Gainera, aurreko planetik, Elor eta Teresategi industria-poligonoen garapena ezabatzea aurreikusi du, baita bertako inguruetik Zubietako goialdeetako jarduera- eta ekipamendu-zona berrirantz irisgarritasun-bide berriak sortzea ere.

Lurralde Plan Partzialak eremu horietarako duen baterako eta elkarri lotuta ikuspegitik, erraz ondoriozta daiteke apustu egiten duela hazkunde ekonomikoaren eta enpleguaren alde. Izan ere, zehaztu eta finkatu dituen proposamenen ez dakarte eta ez dute ekarriko onar ez daitekeen edo leheneratu ezin den ingurumen-inpakturik. Izan ere, Eskutzaitzetan, lur-mugimendua erabat orekatua izan da: ez da eraginik izan nekazaritza-produktibitate handiko lurzoruetan, ezta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan (gainera, kutsadurarekiko kalteberatasun nabaririk ez duen zona da).

Eremu horretan aplikatutako neurri babesle eta zuzentzaileak (ez dira inola ere konplexuak eta, batez ere, balio handieneko baliabideen zuinkatzean oinarrituta daude), horren erakusgarri izaten ari dira, gainerako proposamenen gauzatzeari lotutako bestelakoak bezalaxe. Nolanahi ere, balantze hori berretsi egin beharko da bideratu beharreko dagozkion ingurumen-ebaluazioari buruzko azterlanetan, proposatutako antolamendua mailaka garatuta.

2. Urumeako korridoreko “izaera estrategikoko eremua”

Korridore horrentzat Lurralde Plan Partzialak proposatutako antolamenduak ibai-esparrua ingurunean babestearen eta birkalifikatzearen alde egiten du, azpiegiturek eta urbanizazioek hura inbaditzea eragozteko eta haren ertzen eta urbazterren ingurumen-hobekuntza errazteko. Hori Lurralde Plan Partzialaren beraren printzipio gidaria izanik eremuarentzat, inpaktua kasu honetan **NEURRIZKO** gisa kalifikatu da, proposamen horren aukera hor egon arren, korridoreak Donostiako erdialdearen hazkundearekiko duen kokapen estrategikoagatik. Izan ere, horrek finkatu beharreko jarduketak (bizitegi-arlokoak, jarduera ekonomikoenak, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria, etab.) bat-batean sartzeko agertoki gisa konfiguratu du.

Korridorean, oraindik ikusten dira intereseko baliabide natural batzuk, ibaiak berak eta bere urbazterrek jasotzen dituztenez gain. Horien adibide gisa ditugu bertako landaredi-baso txiki sakabanatuak, nekazaritza-balio handiko lurzorua, espezie mehatxatuentzako habitat sentikorak, etab., eta horiek babestea eskatzeko modukoa da, eremuan gero eta ordezkartza txikiagoa dutela ikusirik.

Lurralde Plan Partzialak udal-plangintzen eta sektorialen bidez korridorearentzat finkatzen dituen zehaztapenek modu negatiboan eragingo dute duela hamarkada gutxi arte haranak zuen nekazaritza-paisaia itxuragabetzen, baina hor bizitegi-garapenak, industrialdeak eta azpiegitura handiak bat-batean sartzean, badira urte batzuk andeatu dela.

Ibaiak maiz izaten dituen ur-goraldien aurka hasi beharreko jarduketan ondorioz sortutako arriskuak minimizatzea onuragarria dela ez dago zalantzarik, eta ez dago zalantzarik haren ertz eta urbazterren ingurumen-hobekuntzaren inguruan ere. Lurralde Plan Partzialaren apustuak dira biak, eta GI-131 zaharra deslokalizatzearen ondorioz sortutako ardatz zentral berriari eman beharreko hiri-tratamendu berria gehitu behar zaie; horien guztien onura baieztatu daiteke ingurumen- eta gizarte-arloetan.

Gauzak horrela, udal-plangintza eta sektorialetan finkatutako hirigintza-plangintzak korridoreari eskainiko dion ekarpenaren aurrean (harana are gehiago eraldatuz), Lurralde Plan Partziala antolamendu koordinatu bat proposatzen du, protagonista nagusiari, ibaiari, bere nortasun eta espazio propioa ematearen aldeko apustua egiten duena. Paragrafo honetan deskribatutako lehen ekarpenaren alde negatiboak bigarrenaren azaldutako alde positiboekin inbrikatzeko modua politika sozioekonomikoko eta gobernamentu orokorreko parametroen bidez ebatzi beharko da, hots, logikoa denez, ingurumen-inpaktuko balorazio egokiei lotutakoen bidez. Nolanahi ere, ondoriozko aukerak neurri babesle eta zuzentzaile egokiak hartu beharko ditu, batik bat haran osoak, ibaiak gain, korridorean geratzen diren baliabide natural urriak galtzen jarraitzea ekiditeko.

3. Pasaiaiko badiako “izaera estrategikoko eremua”

Analizatutako biziberritze-aukeraren ingurumen-inpaktua **NEURRIZKO** gisa kalifikatu da. Izan ere, inguruneak duen antropizazio-maila handia eta Lurralde Plan Partzialak eremu horrentzat duen helburu gidariaren aukera gorabehera, eragin bana ondorioztatzen da, eta prebentziozko neurriak eta neurri zuzentzaileak hartu beharko dira, portuko jarduerak badien sortutako gizarte- eta hiri-arloko inpaktuak soluzio onik gabe geratuko baitira.

Ingurumen-eragin horiek zerikusia dute zonan espezie mehatxatu batzuentzako eremu sentikor batzuk egotearekin, eta eremuan lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako partzela ugari egotearekin.

Lurralde Plan Partzialetik, kasu honetan, portuko barne-barrutia eraldatzeko agertoki bat aurreikusten da, non portu-jarduerak (ikatz, etab.) deslokalizatzearen ondorioz askatutako lurzoruak jarduera ekonomikoko eta/edo ekipamendu orokorreko eta hirugarren sektoreko zuzkidurak hartzera bidera daitezkeen, hori bizitegi-lurzoru gisa sistematikoki birmoldatzeko aukeraren aldean. Horrek, ziur aski, berekin ekarriko luke hor dauden lurzoru kutsatuen kudeaketa oso desberdina egitea ere.

Gaiaren ebazpena eta behin betiko hartuko den aukerak, funtsean, politika sozioekonomikoko eta gobernamentu orokorreko parametroei erantzun behar die, hots, logikoa denez, ingurumen-inpaktuko balorazio egokiei lotutakoei.

4. Lezo-Gaintxurizketa korridoreko “izaera estrategikoko eremua”

Portuari eta tren/errepide intermodalitate-sistemari laguntzeko plataforma logistiko berriak ezartzeko hirigintza-garapenerako proposamenaren ondoriozko ingurumen-inpaktua, eta korridore horretan sartutako mugikortasunaren, uraren zikloaren eta zerbitzu-azpiegituren eskema orokorrari dagozkion proposamen guztiena **LARRI** gisa kalifikatu da. Ingurumen-gatazka nabarmenei zor zaie hori, eta horien artean nabarmentzen dira nekazaritza-balio handiko lurzoruen gaineko afekzioa, paisaiaren gaineko inpaktua, lurzoru artifizialduaren (eta ondorioz sortutako efektuen) gehikuntza eta bertako zuhaitzi txatal batzuen ezabaketa. Eremuak hartuko duen jarduketa-multzoaren arabera, hor hartu beharreko praktika babesleek edo zuzentzaileek intentsiboak izan beharko dute, eta denboraldi luzea beharko dute nolabaiteko eraginkortasuna lortzeko. Baieztapen horren barruan inplizituki hartuta dago gaur egun dauden baliabide naturalek korridorean garatzen ari den antropizazioarekin duten oreka ahula ere, eta horrek deskonpentsatzen jarraitzeak sor dezakeen kezka ere bai. Hala ere, ildo horretatik, Lurralde Plan Partzialaren apustua da eremuaren ekialdean eta mendebaldean “hiri inguruko landa-lurzoru” gisa sailkatutako espazioak barne hartzea, horrek berekin dakarren ez-okupazioaren esanahiarekin, baita eremurako bi proposamen garrantzitsuenetara zuzendu beharreko azalerak doitzea. Horri esker, saihestu egin da, adibidez, Amezti errekaetan eta bertako zuhaitz-orlan edota harizti-arrastoetan eraginik sortzea, balio agrologiko handiko lurzoruak okupazioaz libratzen baitira.

Eremuak bere aukera justifikatzen du, gizartearen eta hirigintzaren aldetik, bere izaera estrategikoko kokapena kontuan izanik, eta aldi berean, aukera emango luke Pasaiaiko eremua leheneratzeko eta modernizatzeko, eta baita Irungoa ere, horien egungo trenbide-zabaltza murriztuta. Halaber, Altamira bizkarra Usategietako landa-parkearen zati gisa integratzeko proposamenak badu esanahirik esparru honetan.

Aurreko izaera estrategikoko eremuarentzat aurreratu den bezala, horren garapenak politika sozioekonomikoko eta gobernamentu orokorreko parametroei erantzun beharko die, hots, logikoa denez, ingurumen-inpaktuko balorazio egokiei lotutakoei.

5. Txingudiko “izaera estrategikoko eremua”

Lurralde Plan Partzialak, eremuko azpiegitura-eraldaketen eta balio naturalistiko handien eta kokapen estrategikoaren konplexutasunaren jakitun, antolamendu-irizpide batzuk eskaintzen ditu eremuarentzat. Batik bat haren mugikortasun-eskema aldatzeko apustua egiten du, hiria zeharkatzen duten komunikazio orokorreko ardatzak eraldatzeko; Irungo trenbide-instalazioak eraldatzeko; Zubietako zona bizitegi- eta zuzkidura-garapen berrietara bideratzeko, eta Txingudiko espazio babestuak ia 9 ha-tan gehitzeko.

Inpaktua **NEURRIZKO** gisa kalifikatu da, okupatzen duten lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasateagatik eraldatu beharreko trenbide-instalazioen eremuarentzat proposatutako bide-lotuneak eta Zubietan aurreikusitako balizko garapena gauzatzeko praktika babesleak eta zuzentzaileak hartu beharko diren heinean.

Lurralde Plan Partzialak eremu horrentzat proposatutako gizarte- eta hirigintza-onurekin, neurri handi batean planeamendu sektorialekin eta eremuan integratutako bi udalerrienekin bat datozenekin, ez dago zalantzarik, eta ez dago zalantzarik Txingudiko Plan Bereziko araudiaren babespean (eremu estrategikoaren iparraldean zehaztuko da hori) eratuko den azalera-gehikuntzaren izaera positiboaren inguruan ere.

Gauzak horrela, proposatutako antolamenduaren garapenean zehar berretsi beharko da azaldutako balantzea, tramitatu beharreko ingurumen-ebaluazioari buruzko azterlan egokien bidez.

6. Bestelako proposamenak

Bloke honek barnean hartzen ditu Lurralde Plan Partzialak mugikortasunaren, uraren zikloaren eta zerbitzu-azpiegituren eta ekipamendu komunitarioen eskema orokorrari buruz biltzen dituen proposamen guztiak, “izaera estrategikoko eremuen” barruan integratuta ez daudenak, eta lurzoru-okupazio berriak dakartzatenak. Gehienak apustu finkatuak dira, eta kasu askotan badituzte ingurumen-inpaktuko azterlan indibidualizatuak (N-I errepidearen saihezbidea Sorabilla eta Bazkardo artean, Urnieta-Eskuzaitzetako 132 kV-eko linea elektriko berria, Añarbeko behe-kanalaren ordezkio aukera, etab.), eta are ingurumen-organismo eskudunek formulatutako inpaktu-adierazpenak (UIC zabalerako trenbide-sare berria, etab.). Oraindik gehitu ez diren edo berriz prestatu beharko diren beste proposamen batzuk dira, adibidez, Hernaniko mendebaldeko saihezbidea, Oiartzun eta Irungo Benten arteko bide-konexioa, Donostialdeko metroa, UIC zabalerako trenbide-sare berria Astigarraga eta Irun artean, etab.

Batzuetan, Lurralde Plan Partzialak apustu berri batzuk egiten ditu bai mugikortasun-eskema orokorrarentzat, bai uraren ziklo integralarentzat eta zerbitzu-azpiegitura eta ekipamendu komunitarioentzat. Lehenbizikoen artean nabarmentzen da bizikleta eta oinezkoen hiriarteko bide berriak ezartzea, hala nola Lasarte eta Andoain artean, edo Irun eta Oiartzun artean; Añarbe-Txingudi sistemen konexioa eta Añarbe-Andoain konexioa bigarrenen artean, edo Pasai San Pedroko Albaola zentroa hirugarrenen artean.

Bloke honetan taldekatutako proposamen guztientzat, inpaktua **LARRI** gisa kalifikatu da, argudio hauetan oinarrituta: erregistratutako eraginen arabera, beharrezkoa izango da esku-hartze guztietan praktika babesleak edo zuzentzaileak egokitzea, eta gainera, iragar daiteke izaera intentsibokoak izan beharko dutela finkatuta dauden proposamen gehienentzat eta, beraz, horiek eraginkortasun argia lortzeko igaro beharko den denboraldia luzea izango da. Halaber, eragina jasan dezaketen baliabideen berezitasunarekin bat datozen eraikuntza-soluzio bereziak hartu behar lirateke agian, hala nola UIC zabalerako trenbide-sare berria Bidasoa ibaiaren gainetik igarotzea mugaz haraindi.

Nolanahi ere, kalifikazio hori berretsi edo aldatu egin beharko da, proposamenen etengabeko garapen indibidualarekin tramitatu beharreko ingurumen-ebaluazioari buruzko azterlan egokien bidez.

Kapitulu honetan egindako ingurumen-ebaluazioaren ondorioz, eta horrek laguntzen duen plangintza-fasearen perspektibarekin, ez da erregistratu inpaktu **KRITIKORIK**, eta “Lezo-Gaintxurizketa korridoreko izaera estrategikoko eremuak” eta dokumentu honetan “Bestelako proposamenak” epigrafean bildutako proposamen-blokeak ondorioztatzen dituzte eragin garrantzitsuenak. Horien aurrean, praktika babesle eta zuzentzaile intentsiboak erabili beharko dira, eta ingurumen-ebaluazio aproposetan gehitu. Hori horrela da, bai oraingo baliabide naturalek Lezo-Gaintxurizketa korridoreko giza jarduketekin oraindik duten oreka hauskorra babesteko, bai Eremu Funtzionala osatzen duten nukleo handien ingurunean oraindik dauden baliabide naturalen kaltea ekiditeko.

7.- NEURRI BABESLEAK ETA ZUZENTZAILEAK

Kapitulu hau idazteko, erakunde hauek horretarako eskatutako eduki hau gehitu da: 2008ko irailaren 24an Ingurumen Sailburuordetzak formulatutako “Donostiako Eremu Funtzionaleko (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partzialaren ingurumen-inpaktuari buruzko baterako ebaluazioa egiteko erreferentziako dokumentua”, eta 2012ko ekainaren 12ko ebazpen bidez formulatu eta Lurralde Antolamendu Zuzendaritzak sustatutako “Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren ingurumen-inpaktuari buruzko baterako ebaluazioaren aurretiazko txostena”.

Dokumentu horiek adierazitako eskakizunei jarraituz, kapitulua hiru ataletan antolatu da, eta hauek dira horien edukiak: lehen atal batean, Lurralde Plan Partzialak berak ingurune fisikoan sortutako antolamendu-figura bakoitzean murrizketa eta prebentzio moduan ezartzen dituen neurri babesleak azaltzen dira. Bigarren atal batean, Lurralde Plan Partziala garatzeko dokumentuetarako (udalaz gaindiko planak, udal-plangintza, etab.) ingurumen-gidalerroak gehitu dira, bi alderdi kontuan izanik: goian adierazitako erreferentziako dokumentuko 2.5.6 atalaren arabera barnean hartu beharreko gidalerroak eta horretan laguntzeko plangintza-fasea. Azkenik, hirugarren atal batean, aurreko kapituluan ikusitako inpaktuei lotutako neurriak ematen dira, horiek ere hasitako lan-eskalara egokituta.

7.1. LURRALDE PLAN PARTZIALAK EZARRITAKO PREBENTZIOZKO NEURRIAK

Ingurune fisikoaren antolamenduari lotutako prebentzioak, Lurralde Plan Partzialak berak gehitutakoak eta Eremu Funtzionaleko baliabide naturalak babesteko lehen neurri inposagarriak direnak, hauek dira:

- **Oinarrizko zonifikazioa**

Babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzoruak

Esparru hauetan gainjarritako baldintzatzaile gisa errespetatuko dira bertan kokatuta dauden espazio natural babestuetarako onartutako arautze- eta kudeaketa-plan guztiak.

- Hirigintza-hazkundeak debekatuta daude eta onura publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak saihestu egingo dira, ingurumena hobetzeko eta/edo basogintza-jarduerarako behar direnak izan ezik.

Landa-habitata eta/edo hiri-inguruko esparru berdeak finkatzeko babes bereziko lurzoruak

Esparru hauetan gainjarritako baldintzatzaile gisa errespetatuko dira bertan kokatuta dauden espazio natural babestuetarako onartutako arautze- eta kudeaketa-plan guztiak.

- Zona hauetan hirigintza-hazkundeak debekatuta daude eta onura publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak saihestu egingo dira, landa-habitata garatzeko behar direnak eta hiriarteko eta hiri-inguruko landa-parkeen berezko erabilera eta jarduerari datxekizienak izan ezik, horiei dagozkien antolamendu-plan berezietan xedatuko denaren arabera.

Ibai-korridoreak

Ibai-ibilbideen esparruetan gainjarritako baldintzatzaile gisa errespetatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken ertzak Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren arautze espezifikoaz gain, esparru hauetan kokatuta dauden espazio natural babestuetarako onartutako arautze- eta kudeaketa-plan guztiak. Gainera, kontutan izango dira, ibaiak osoan antolatze plan berezien barruan, Natura 2000 Sarearen garapenaren araudiaren lehentasuna, baita indarrean dauden baliabide naturalen ordenaziorako planak eta egon daitezken afekzioen derrigorrezko analisia ere, ebaluazio egoki bat gauzatuz abenduaren 13ko 42/2007 Legearen, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen Legearen, 46.4 artikulua araberak.

Ibai-korridoreetan debekatuta dago:

- Mota guztietako eraikuntzak, ibai-esparruaren zerbitzuari atxikitzeak diren interes orokorreko ekipamenduak izan ezik.
- Komunikabide-sareak, zubiak eta urpean gera daitezkeen ur-bazterreko pasealekuak izan ezik.
- Zerbitzu-azpiegiturak, salbuetsita ibilgu-gurutzatzeak eta saneamendu-azpiegitura linealak.

Ibai-korridore horietariko bakoitzerako ibaia osoa antolatze plan berezi bat egin behar da, sektore anitzeko izaera (ingurumenari, hidraulikari, hirigintzari eta azpiegituri dagozkien osagaiak batera kontuan hartzea) eta udalaz gaindiko nondik norakoa (ibai-ibilbidearen garapenaren multzoa batasun moduan kontuan hartzea) izango dituen.

Ibai osoa antolatze plan berezien funtsezko eduki gisa, ibaiaren ibilgua, horien espazio-esparrua behin betiko finkatzeaz gain, beste zenbait eduki ere kontuan hartuko dira: ibai-ibilbidearen ingurumena eta paisaia baloratzea; uholdeei aurrea hartzeko neurriak ezartzea, hala badagokio, oztopo hidraulikoak ezabatzeko egin litezkeen esku-hartzeak kontuan harturik; erriberak lehentasunez espazio libre eta berde gisa tratatzea; ibai-ertzetan zehar ibilbide bigunak eta ur-bazterreko pasealekuak sortzea; bertan biltzen diren azpiegituren multzoa sektorez gaindiko ikuspegitik antolatzea; eta programatutako esku-hartzeen ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa egitea, dagokien kudeaketa-planarekin batera.

Hiri-inguruko landa-lurzorua

Esparru hauetan gainjarritako baldintzatzaile gisa errespetatuko dira bertan kokatuta dauden espazio natural babestuetarako onartutako arautze eta kudeaketa-plan guztiak. Esparru honen gainean zabalduko dira Lurralde Plan Sektorial ezberdinek (nekazal-basozaintzakoa, ibai eta erreken babeserakoa, itsasbazterrekoa eta eremu hezeetakoa) ezarritako determinazioak. Zehazki, Nekazal-basozain Lurralde Plan Sektorialaren balio estrategiko altua duten nekazal-abeltzain eta landazabal ordenazioen kategoria barruan dauden lurrak aipatu behar dira, izan ere, hauek planean zehaztuta dituzten mugaketak indarrean mantentzen baitira.

Horien hirigintza-okupazioaren premiarik ez da aurreikusten Lurralde Plan Partzialaren horizontean.

- **Zonifikazio xehatua**

Hiriarteko landa-parkeak

Ingurune fisikoaren paisaia zaintzea eta kontserbatzea bermatuko duten udalaz gaindiko eskalako berdeguneak osatuko dituzte, lehen sektorearen biziraupena eta indartzea ahalbidetzeko, ekipamendu eta zuzkidura berezien balizko kokapena kontuan izango dutenak, eta horien ezaugarriengatik egokia izango da landa-ingurune hurbilean kokatzea, baina hiriguneetatik kanpo.

Parke guztiak garatzeko antolamendu-plan berezi bat egingo da, antolamendu-jarraibideak, erabilerak arautzeko erregimena eta elementu publikoak kudeatzeko formulak ezarriko dituenak. Arreta berezia jarriko da parkearen barruan inskribatutako oinezko eta txirrindularien hiriarteko ibilbideen oinarritzko sarearen konfigurazioan. Gainera, kontutan izango dira, ibaiak osoan antolatzeke plan berezien barruan, Natura 2000 Sarearen garapenaren araudiaren lehentasuna, baita indarrean dauden baliabide naturalen ordenaziorako planak eta egon daitezkeen afekzioen derrigorrezko analisia ere, ebaluazio egoki bat gauzatuz abenduaren 13ko 42/2007 Legearen, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen Legearen, 46.4 artikuluen arabera.

Hiri-inguruko landa-parkeak

Kanpoaldeko landa-inguru hurbilaren gaineko jolas-hedapenaren lehentasunezko zonak dira, izaera ludikoa duten jarduerak eta instalazioak bateragarri egiteko ingurune naturalaren kontserbazioarekin, horren ingurumen- eta balio paisajistikoen kontserbazioarekin eta inguruarekin bateragarriak diren lehen sektoreko jarduerak finkatzearekin eta indartzearekin.

Natura 2000 Sarearen barne dauden eremuetan arreta eta garrantzia berezia izango du interes komunitarioa duten espezie eta habitaten kontserbazioak.

Parke guztiak garatzeko antolamendu-plan berezi bat egingo da, antolamendu-jarraibideak, erabilerak arautzeko erregimena eta elementu publikoak kudeatzeko formulak ezarriko dituen. Arreta berezia jarriko da parkearen barruan inskribatutako oinezko eta txirrindularien hiriarteko ibilbideen oinarritzko sarearen konfigurazioan. Gainera, kontutan izango dira, ibaiak osoan antolatzeke plan berezien barruan, Natura 2000 Sarearen garapenaren araudiaren lehentasuna, baita indarrean dauden baliabide naturalen ordenaziorako planak eta egon daitezken afekzioen derrigorrezko analisia ere, ebaluazio egoki bat gauzatuz abenduaren 13ko 42/2007 Legearen, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen Legearen, 46.4 artikuluen arabera.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-eremu estrategikoak

Abenduaren 23ko 17/2008 Legean, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoan aurreikusitako nekazaritza-lurzorurako funtsak sortzeko kokalekuak osatzen dituzte. Esparru hauen gain lehentasunez ekingo zaio interes orokorreko nekazaritza eta abeltzaintzarako esplotazioen garapenerako inizatibien sustapena, izaera trinkoz euskarri hartuta lurren kalifikazio espezifikoki dagokion oinarria.

7.2. LURRALDE PLAN PARTZIALA GARATZEKO DOKUMENTUETARAKO (PLAN BEREZIAK, UDAL PLANGINTZA, ETAB.) INGURUMEN GIDALERROAK

Aurreko atalean aipatutako plan berezi guztietarako, edo Lurralde Plan Partzial honen babespean garatuko diren gainerako tresnetarako, nahitaez bete beharko da indarrean dagoen legeria, plan eta programen ingurumen-ebaluazioari dagokionez. Alegia, horri buruz indarrean dagoen legeria da urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, planen eta programen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, eta estatu-mailan, abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

Gainera, plan bakoitzak zehatz justifikatu beharko du aipatutako 211/2012 Dekretuak 2. artikuluan bultzatzen duen ingurumen-iraunkortasuneko irizpideekin zer konpromiso duen, eta nolanahi ere, plan horiek (ikus dokumentu honetako 6.2.2.2 puntuan Lurralde Plan Partzialerako egindako ariketa) maneiatzen dituzten lan-eskalari buruzkoa izango da.

Oro har, Lurralde Plan Partziala garatzeko dokumentuetan nagusi izango diren ingurumen-gidalerroak horixe ere gidatu duten berak izango dira, eta dokumentu honen 1.1 atalean argudiatu dira. Laburbilduz, hauek dira:

- Artifizialduta dauden lurzoruen erabilera lehenestea, bereziki nekazaritza-lurzorua eta naturala zainduta.
- Antropizatutako lurzoruak leheneratzea lehenestea, lurzoru urbanizaezina birkalifikatu aurretik.
- Birgertatze-aldiko 100 urteko ur-goraldien aurrean arriskurik ez dagoen eremuetan lurzoru ez-hiritarraren okupazioa ekiditea.
- Motorrik gabeko mugikortasuna eta garraiobide publiko eta kolektiboak sustatzea.
- Energia-aurrezte eta energia-eraginkortasuna sustatzea, energia berriztagarrien erabilera sustatzeaz gain.
- Naturagune babestuetatik kanpo nahikotasuna, koherentzia eta konektagarritasuna babestea, biodibertsitate-galera gelditzeko.
- Azpiegitura handiak Natura 2000 Sarearekin, korridoreekin eta paisaiekin bateragarri egitea.

- Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko plan eta tresnetan lurpeko edo azaleko ur kontinentalak, ohandzeak, ibilguak, trantsizioko urbazterrak eta ur-ertzak eta kostaldekoak babesteko neurri egokiak ezartzea, lehentasunez horien baliabide hidrikoa eta ingurunea babesteko, zaintzeko eta leheneratzeko, eta sortuko diren eskari hidrikoak eta isurketak eta baliabide teknikoak eta finantzarioak aurreikusteko, ingurumenaren aldetik modu onargarrian onartuko direla bermatzeko.
- Lanetan zehar hirigintzaren aldetik interesgarritzat joko diren aukerak aurkeztea, baita teknikaren eta ingurumenaren aldetik bideragarriak direnak ere.
- Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategian eta indarrean den Ingurumeneko Esparru Programan jasotako ingurumen-irizpide estrategikoak bere gain hartzea.

Gidalerro generiko horietaz gain, jarraian Lurralde Plan Partziala garatzeko dokumentuetan kontuan izateko beste jarraibide batzuk deskribatuko dira, lagungarriak izango direnak ingurumen-eragin negatiboak nabarmen mugatzeko eta, horrela, gero neurri zuzentzaile eta/edo konpentsatzaileak ezartzeko premia murrizteko. Hauek dira:

a) Biodibertsitateari eusteko

- Edozein garapen berri Natura 2000 Sareko espazioekin eta beste espazio babestu batzuekin gurutzatzea ekiditea. Horrelakorik ezean, eta proposamena kudeaketa-plan egokiekin bateragarria baldin bada, horren ondorioek tokian duten ebaluazio egokia eskatuko da, kontserbazio-helburuak kontuan izanik.
- Habitaten 9Z43|EEE Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako habitatak babestu eta kontserbatu egin beharko dira eta, beharrezkoa bada, neurri aproposak antolatuko dira horietan sor daitekeen afekzioa konpentsatzeko.
- Intereseko landare-formazioak (lehentasunez, bertako zuhaitz-masak) kaltetzea saihestuko da eta, beharrezkoa bada, neurri aproposak antolatuko dira horietan sor daitekeen afekzioa konpentsatzeko.
- “Arriskuan dauden Fauna eta Flora Basatiko eta Itsasoko Espezieen Euskal Katalogoan” eta erkidegoan, estatuan eta batasunean aplikatzekoak diren bestelako katalogo eta tresnetan integratutako espezieak dauden eremuetako eragina alde batera utziko da eta, beharrezkoa bada, neurri aproposak antolatuko dira horietan sor daitekeen afekzioa konpentsatzeko.

- “Arriskuan dauden Fauna eta Flora Basatiko eta Itsasoko Espezieen Euskal Katalogoan” eta erkidegoan, estatuan eta batasunean aplikatzekoak diren bestelako katalogo eta tresnetan integratutako interes bereziko eremuetan eta fauna-espezie mehatxatuen puntu sentikorretan, eragina alde batera utziko da. Atal honetan aipamen berezia egiten zaie Eremu Funtzionalean onartutako kudeaketa-planak dituzten espezieei, hala nola bisoi europarrari (*Mustela lutreola*), desman piriniarrari (*Galemys pyrenaicus*) eta hegoaldeko zuhaitz-igelari (*Hyla meridionalis*). Beharrezkoa bada, neurri aproposak antolatuko dira, horietan sor daitekeen afekzioa konpentsatzeko.
- Proposamenek konektagarritasun ekologikoa sustatuko dute, kontzeptu horren barruan hura gauzatzeko alderdi eta aldagai guztiak hartuta, eta beharrezkoa bada, neurri aproposak antolatuko dira, horietan sor daitekeen afekzioa konpentsatzeko. Sustapen berezikoan izango dira EAEko korridore ekologikoen sarearen dokumentuko (IKT 2005) ondorengo ataletan sartutakoak: 4.3 “EAEko korridore ekologikoen sarearen zonifikazio, plangintza eta kudeaketa”, 3.2.3 “Zuzenketa neurrien planteamendua”, 3.2 “Korridore ekologiko eta gaitasun handiko errepideen arteko interakzioaren eremu kritikoak”.

b) Hondakinak sortzea minimizatzeko

- Lurralde Plan Partziala garatzeko tresnek sortuko diren hondakinen balantze bat egingo dute, eta tratamendu eta kudeaketa egokia izango dute, indarrean den legeriaren arabera.

c) Mugikortasun iraunkorra sustatzeko

Garraio-plangintzak dituzten proposamenek beti justifikatu beharko dute printzipio hauekin bat datozela:

- Intermodalitatea sustatzea.
- Garraio publikoaren instalazioak eta ekipamenduak hobetzea.
- Oinezkoentzako pasealekuak eta bidegorri independenteak garatzea hiriguneetan eta tokiko irisgarritasuneko lehen mailako sarean.
- Ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea.

d) Lurzorua zaintzeko

- Hartutako soluzioaren justifikazio egokia, are gehiago hura ezartzeak lurzoru artifizialdua gehitzea badakar. Beharrezkoa bada, neurri aproposak antolatuko dira, baliabide horretan sor daitekeen afekzioa konpentsatzeko.
- Lurralde Plan Partzialean “Nekazaritza- eta abeltzaintza-eremu estrategikoak” figurapean bildutako balio estrategiko handiko lurzoruak zaindu egingo dira, eta beharrezkoa bada, neurri aproposak antolatuko dira, baliabide horretan sor daitekeen afekzioa konpentsatzeko.
- Azpimarratuko da okupatu beharreko zonetako lurzoru produktiboetan landare-lurra behar bezala bereizi eta gordeko dela, haren ezaugarri nagusiak ez galtzeko moduan. Ondoren, lur hori eraginpeko espazioa landareztatzeko erabil daiteke, edo zonako nekazaritza eta abeltzaintzako partzelak hobetzeko.
- *“Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan”* eta/edo hori eguneratzeko zirriborroan jasotako kokalekuak dauden eremuei eta sektoreei dagokienez, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak eta uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoak horretarako araututakoa izango da aplikatzekoa.

e) Baliabide estetiko-kulturalak zaintzeko

- Planek EAEko Paisaia Berezien eta Bikainen Zerrendan (2005) sartzeko bide eman zuten paisaia berezien eta balio paisajistikoen kontserbazioa zainduko dute, eta beharrezkoa bada, neurri aproposak antolatuko dira, baliabide horretan sor daitekeen afekzioa konpentsatzeko.
- Gutxi antropizatutako espazioak erabiltzea ekidingo da, eta landa-paisaiaren eta ingurunearen berehalako antropizazioak goretsitako beste paisaien kontserbazioa sustatuko da. Hala badagokio, nahi den ekimenaren egokitze eta integrazio paisajistikoa azterlan xehatu bat garatuko da.
- Eremu Funtzionaleko ondare historiko-artistikokoak eta arkeologikokoak diren elementu katalogatu, inbentariatu edo hasien afekzioa ekidingo da. Horrela ez bada, horri buruz uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, Euskal Kultura Ondareari buruzkoak eta urriaren 8ko 234/1996 Dekretuak, ustezko arkeologia-zonak zehaztekoak araututakoa izango da aplikatzekoa.

f) Arrisku naturalak minimizatzeko

- Lurralde Plan Partziala garatzeko tresnek konpromiso handiko baldintza geoteknikoko lursailetan diseinu egokiak aplikatzea zainduko dute, eta lurzorua erabileren plangintzan higadura kontuan hartuko dute, eremu horietan landare-estalkia zainduta eta, urpean gera daitezkeen zonak okupatzen badituzte, zonaren ebaluazio bat gehituko dute, esku hartzearen eraginak aurreikusiko dituen eta indarrean den araudia betetzen dela bermatuko duena.

g) Baliabide hidrikoak babesteko

- Lurralde Plan Partzialean egindako proposamenak garatuko dituzten ekimenek uren hornidurari eta isurketari buruzko xehetasunak gehituko dituzte, bai obra-fasean, bai horiek ustiatzeko fasean. Horiek ingurumenaren aldetik modu onargarrian bermatzeko baliabide teknikoak eta finantzarioak justifikatu egingo dira.
- Proposamenek jabari publiko hidraulikoarekin eta ibilguen zortasun-zonarekin (eta itsaso eta lehorren arteko jabaria, trantsizioko ur eta kostaldekoetan) gurutzatzea ekidingo dute. Horrelakorik ezean, zonaren ebaluazio bat gehituko dute, esku hartzearen eraginak aurreikusiko dituen eta indarrean den araudia betetzen dela bermatuko duena.
- Beste horrenbeste sistema hidrogeologikoen isurpen-puntuekiko ezarritako babes-perimetroei dagokienez, bereziki erabilera legeztaturen bat duten horiekin.

h) Giza habitataren kalitatea hobetzeko

- Lurralde Plan Partzialean jasotako proposamenak garatuko dituzten planek analisi bat hartuko dute barnean, horiek okupatzen dituzten eremu akustikoekin, zortasun-zona akustikoekin eta jatorri naturaleko soinu-erreserbekin duten bateragarritasunari buruz. Eremu Funtzionaleko udalerrri guztiek informazio hori ez dutenez, horrelakorik ezean, azterlan espezifiko aproposak egingo dira.
- Teknologia egokiak ezartzea planifikatuko da, kutsadura sortzen duten fokuak kontrolatzeko eta, kasu horietan, indarrean den legeriak ezarritako arauak eta mailak beteko direla onartuko da.

Atal honetan formulatu diren kontsiderazio guztiez gain, jakina, kontuan izango dira kontsulta-fasean erakundeei eta administrazio kontsultatuei igorritako txostenetan ezarriko direnak ere

7.3.- AURREKO KAPITULUAN EGINDAKO EBALUAZIOAN ATZEMANDAKO INPAKTUEKIN LOTUTAKO NEURRI BABESLEAK ETA ZUZENTZAILEAK

Dokumentu honetako 6. kapituluaren aipatutako inpaktu batzuk NEURRIZKO eta LARRI gisa kalifikatu zirenez, jarraian, bete beharreko ingurumen eta hirigintzako izapidearen aurrerabidean aplikatzekoak diren neurri babesle eta zuzentzaile garrantzitsuenak zehaztuko dira.

a) Natura 2000 Sarearen barruko espazioetan eragiten duten proposamenak

Natura Sarearen espaziotan eragina duten proposamenetarako zehaztu behar diren neurri babesleak eta zuzentzaileak, espazio horiek barne hartzen dituzten planekin lotutako ingurumeneko dokumentuen barne sartuko den derrigorrezko ebaluazioaren bidez erabakiko dira, habitat naturalak, eta fauna eta flora basatia kontserbatzeko buruzko 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren 6. artikuluen 3. puntua kontuan hartuz. *“Lekuaren kudeaketarekin zuzenean loturarik izan gabe edo lekua kudeatzeko beharrezkoa izan gabe leku horietan ageriko eragina izan dezakeen edozein plan edo proiektu ebaluazio egokiaren mende egongo da. Izatez, lekuan izango dituen ondorioak ebaluatuko dira, eta, horretarako, leku horren kontserbaziorako helburuak izango ditu kontuan”*. Aurrekoa ezabatzen duen Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen 4212007 Legean ere eskatzen da ebaluazio hori, zehazki 45.b) artikuluan.

b) Onartutako kudeaketa planek mehatxatutako espezieetan eragina duten proposamenak

Bertan eragina duten planek eta proposamenek leku horretako habitatak –“in situ”, edo inguruko espazio baldinunetan eta egokietan– leheneratzeko eta berritzeko neurri egokiak ezarriko dituzte. Hortaz, kudeaketa plan horiek kasurako adierazten dituen jarraibide guztiak hartuko dira kontuan.

c) Onartutako kudeaketa planik ez duten mehatxatutako espezieetan eragiten duten proposamenak

Bertan eragina duten planek eta proposamenek, fauna azterketa zehatzetan oinarritutako neurri zuzentzaile eraginkorrak ezarriko dituzte. Neurri horien bitartez espezieen presentzia ingurunean sendotuko dute, eta bertako eremu kritikoak eta garrantzi berezikoak, gutxienez, mugatuko eta babestuko dituzte.

d) Tokiko landaretzako zuhaiztien gaineko eragina

Bertan eragina duten planek eta proposamenek landaretza hori birlandatzea onartuko dute beti; ahal izanez gero aldatutako leku berean; eta hala ezin bada, ingurumen erakunde eskudunekin adostutako espazio batean.

e) Balio estrategiko handiko lurzoruen gaineko eragina eta nekazaritza produktibitatearen galera

Epigrafean sartutako eraginarekin lotutako neurria, lekuz mugitutako ustiapenak beste lur batzuetan birlandatzearekin lotu behar da; edo, hala ezin bada, behar bezala konpentsatuko da.

f) Paisaiaren gaineko eragina

Baliabide horretan eragiten duten planek eta proposamenek "Egokitze eta Integrazio Paisajistikoko" azterketa bat egin beharko dute. Azterketa nahikoa eraginkorra ez dela ulertzen bada, inguruko estetika eta paisaiaren gaineko beste eragin batzuk zuzendu beharra ekar lezake.

g) Akuiferoen gaineko eragina

Baliabide horretan eragiten duten planek eta proposamenek baliabide horren babesa bermatzeko neurriak hartu beharko dituzte kontuan, kalitateari dagokionean zein bere baldintzei dagokienean (kargatzeko eremuak, fluxuak, mailak, emariak, ur naturalen puntuak, ateratze puntuak, etab.). Azken hauekin lotuta, eta galtzeko arriskua dutenez, hauek nola lehengoratu ere planifikatu behar da.

h) Artifizialdutako lurzorua gehitzea

Esparru artifizialdu gabetan finkatu beharreko planek eta programek behar bezala justifikatuko dute hori eskatzeko arrazoiak, lurzoru horren okupazioak bere gain har ditzakeen hirigintzako alderdi, alderdi funtzional eta ingurumenari lotutako guztiak zehaztuz. Neurri horien bidez sortutako inpaktu guztiak konpentsatu beharko dira.

i) Kontsumoen (ura, energia) gehikuntza

Bertan eragiten duten planek eta proposamenek barne hartu beharko dituzte baliabide horiek aurrezteko kode teknikoetatik eta indarreko araudietatik sustatutako neurriak, baita gaur egun eskura dauden plangintza, eraikuntzan eta eraikin iraunkorreko gidetatik kasurako gomendatzen diren neurriak ere. Gainera, eraikuntza iraunkorreko ziurtagiria (Leed, Breeam, etb.) eskuratzeko beharra egokia izango dela ulertuko da.

j) Hondakin gehiago sortzea

Bertan eragiten duten planek eta proposamenek hondakinak behar bezala tratatzeko eta kudeatzeko neurriak jaso beharko dituzte, indarreko legerian ezarritakoarekin bat etorriz: 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa, 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak zabortegira eramanda ezabatzea eta betelanak egitea arautzen dituen, 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraisketa eta eraikuntzako hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen dituen, 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraisketa eta eraikuntzako hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen dituen, 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa. EAEn kutsatuak egon daitezkeen lurzoruen katalogoa, eta abar.

7.4.- DESKRIBATUTAKO NEURRIAK BETETZEAREN ETA HAIEN
ERAGINKORTASUNAREN JARRAIPENA EGITEKO ADIERAZLEAK

Kapitulu honetan jasotako neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak betetzearen eta haien eraginkortasunaren jarraipena egiteko adierazle egokiak hurrengo kapituluan aztertzen dira.

8.- PLANAREN ONDORIOEI BURUZKO INGURUMEN IKUSKAPENENKO PROGRAMA

8.1.- KONTROLAREN HELBURUAK

Kapitulu honetan osatutako ingurumen ikuskapeneko programaren oinarrizko helburu da jarraipen eta kontrol metodologia bat zehaztea. Metodologia horren bidez bermatuko da dokumentu honetan ebaluatutako alderdien eta Lurralde Plan Partzialaren proposamenak gauzatzearen azken emaitzaren artean diferentzia handiegia ez egotea, betiere, aurreikusitako neurrien aplikazioa eta neurrien eraginkortasuna bermatzen badu programak. Azken finean, Lurralde Plan Partziala osatzen duten plangintza garapeneko faseak, proposamenak eta jarduketak, jasotako ingurumeneko helburu estrategikoekin bat etorritik egiten direla ziurtatu nahi da. Helburu horiek dokumentu honetan behin eta berriz aipatu eta analizatu dira.

Aurretik aipatutako alderdiak kontrolatzeko prestatutako metodologia honako prozesu honetan oinarritu da:

- Lurralde Plan Partzialarekin zuzenean lotutako iraunkortasun printzipioak identifikatzea.
- Iraunkortasun faktore horien hainbat adierazle finkatzea.
- Haiek gainbegiratu behar dituen agintaritzak zehaztea, baita gainbegiratzea noiz eta zein maiztasunez egin behar den ere.

8.2.- JARRAIPENAREN XEDE DIREN INGURUMENEO SISTEMAK, ALDERDIAK ETA ALDAGAIK IDENTIFIKATZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen bilakaeraren jarraipena egiteko, eta Garapen Iraunkorrerako Ingurumeneko Euskal Estrategian ezarritako helburuetara egokitzen dela ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak 21 goiburuko adierazle hautatu ditu, klima aldaketa, airea, ura, lurzorua, biodibertsitatea, materialen fluxua eta hondakinekin lotutako esparruen arabera.

Lurralde Plan Partzialak dokumentu horren helburu gehienak zuzenean bere gain hartzen dituen neurrian, eta erregistratutako inpaktu gehienak gaikako esparru horietan kokatzen diren neurrian ere, eta inpaktu horiek prebenitzeko eta/edo minimizatzeko eta/edo konpentsatzeko neurriak ezarri direnez, koherentea da ondoko alderdi eta aldagai hauen kontrola eta jarraipena egitea:

- Baliabide hidrikoak babestea
- Lurzorua zaintzea
- Biodibertsitatea mantentzea
- Giza habitataren gaineko kalitatea hobetzea
- Hondakinen produkzioa minimizatzea
- Baliabide estetikoak eta kulturalak zaintzea
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea
- Arrisku naturalak minimizatzea

8.3.- ADIERAZLEAK FINKATZEA

Euskadiren urteko Ingurumenaren gaineko Profila ezagutzeko Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak erabilera erregularreko adierazleak erabiliz hasten den lana hobetzeko asmoz, aurretik aipatutako ariketarekin bat datozela ulertzen diren egoera eta presio adierazleak, beti Eremu Funtzionalera mugatuak, honako hauek izango dira.

- Urak

- **Adierazleak:** “Ibaietako” ur masen egoera ekologikoa eta egoera fisiko eta kimikoa,
“Trantsizio uren” ur masen egoera ekologikoa eta egoera fisikoa eta kimikoa,
“Kostaldeko uren” ur masen egoera ekologikoa eta egoera fisikoa eta kimikoa,
“Laku eta hezeguneetako” ur masen egoera ekologikoa eta egoera fisikoa eta kimikoa,
Lurpeko ur masen egoera kimikoa.
- **Jardun aurreko egoera:** Uraren Euskal Agentziak urtero emandako datuetan oinarrituz, Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu ondoren zehaztekoa.
- **Aldizkakotasuna:** Bost urtez behin.
- **Gainbegiratzeaz arduratzen den agintaritza:** Eusko Jaurlaritzaren Uraren Euskal Agentzia.

- Biodibertsitatea:

- **Adierazleak:** Habitaten kontserbazio egoera orokorra,
Espezie garrantzitsuen kontserbazio egoera orokorra,
Eremu babestuen egoera (Natura 2000 Sarea).
- **Jardun aurreko egoera:** Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu ondoren erabaki beharrekoa, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak aurreneko bi adierazleentzat egindako sei urtez behingo txostenean oinarritua; eta, aipatutako hirugarren adierazlearen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko dibertsitate biologikoko eta geologikoko web orriaren azterketan.

- **Aldizkakotasuna:** Sei urtez behingoa lehen bi adierazleentzat, eta hiru urtez behingoa hirugarrenarentzat.
- **Agintaritza arduraduna:** Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.

- **Airea**

- **Adierazlea:** Airearen Kalitatearen Indizearen urteko eboluzioa, kategorien arabera.
- **Jardun aurreko egoera:** Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena eta Lurralde Plangintzaren Estatistika Organoaren web orrian Eremu Funtzionalerako argitaratutako datuetan oinarrituz, Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu ondoren zehaztu beharrekoa.
- **Aldizkakotasuna:** Bost urtez behin.
- **Agintaritza arduraduna:** Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.

- **Lurzorua**

- **Adierazleak:** Lurzoruaren artifizializazioa
Ikertutako eta lehengoraturako kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak.
- **Jardun aurreko egoera:** Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu ondoren zehaztu beharrekoa, UDALPLAN datu bankuak emandako datuetan oinarrituta. UDALPLANek EAEko lurralde osoko egitura orokorra eta organikoa, eta lurzoruaren kalifikazioa eskaintzen du, baita Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean bildutako informazioa ere. Informazio hori lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen arabera lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozeduraren esparruan bideratutako espedienteetan oinarritua dago.
- **Aldizkakotasuna:** Bost urtez behin.

- **Agintaritza arduraduna:** Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.

- **Hondakinak**

- **Adierazlea:** Sortutako hondakinak.
- **Jardun aurreko egoera:** Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena eta Lurralde Plangintzaren Estatistika Organoaren web orrian gehitutako datuetan oinarrituz, Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu ondoren zehaztu beharrekoa.
- **Aldizkakotasuna:** Bost urtez behin.
- **Agintaritza arduraduna:** Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.

- **Aldaketa klimatikoa**

- **Adierazlea:** Berotegi Efektuko Gasen guztizko emisioen urteko eboluzioa.
- **Jardun aurreko egoera:** Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena eta Lurralde Plangintzaren Estatistika Organoaren web orrian Eremu Funtzionalerako eskuratutako datuetan oinarrituz, Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu ondoren zehaztu beharrekoa.
- **Aldizkakotasuna:** Bost urtez behin.
- **Agintaritza arduraduna:** Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.

Aurreko adierazleez gain, baliabide estetiko eta kulturalekin, eta arriskuak minimizatzearekin lotuta, honako hauek hartuko dira kontuan:

- **Baliabide estetiko eta kulturalak**

- **Adierazlea:** Paisaia lehengoratzeko, berreskuratzeko eta hobetzeko jarduketa kopurua.

- **Jardun aurreko egoera:** Herri-, probintzia- eta erkidego-mailan egin beharreko kontsultetan oinarrituta, Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu ondoren zehaztu beharrekoa.
- **Aldizkakotasuna:** Bost urtez behin.
- **Agintaritza arduraduna:** Lurralde Plangintza eta Hirigintza Zuzendaritza.
- **Arrisku naturalak**
 - **Adierazlea:** Uholdeen eta irristatze garrantzitsuen urteko eboluzioa.
 - **Jardun aurreko egoera:** Herri-, probintzia- eta erkidego-mailan egin beharreko kontsultetan oinarrituta, Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu ondoren zehaztu beharrekoa.
 - **Aldizkakotasuna:** Bost urtez behin.
 - **Agintaritza arduraduna:** Uraren euskal agentzia eta Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.

8.4.- IKUSKAPEN PROGRAMA

Aldez aurretik finkatutako adierazleen arabera, Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen den unean osatu beharreko 0 dokumentuan oinarrituta, indarrean egoten den urteetan dokumentu horrek bat etorri beharko du Lurralderen Plan Partzialaren ingurumeneko helburu estrategikoekin; izan ere, aldi berean dokumentu honetan zehaztutako neurrien eraginkortasuna egiaztatuko da. Halaber, batetik, hasieran aurreikusitakoaren eta ebaluatutakoaren eta, bestetik, Planean jasotako proposamenak gauzatzearen azken emaitzaren artean diferentzia azpimarragarriarik dagoen egiaztatuko da.

Hori guztia kontuan hartuta, burutu beharreko kontrolak eta zaintzak denbora tarte zabala eta natura diferentea barne hartzen dituela ondoriozta daiteke. Hala ere, erabakiak hartzeko fasean ingurumen aldagaia sartzen dela ziurtatzeko lana Lurralde Plan Partziala sustatzen duen administrazioak egin behar du, bere zerbitzu teknikoen bitartez edo kanpoko aholkularitza baten bitartez.

Administrazio horrek ere, bost urtez behin, memoria bat egin behar du. Bertan, Lurralde Plan Partziala betetzen dela eta, honek, udalaren Lurralde arloko plangintzan eta hirigintza plangintzan duen eragina baloratzeaz gain, adostutako adierazleen eboluzioaren azterketa bat egin behar du. Bertan, proposatutako neurrien eraginkortasuna zehaztuko da eta, bat ez etortzea agerikoa bada, beste neurri batzuk hartzeko adieraziko du.

Eremu Funtzionalean Lurralde Plan Partzialaren antolamendua, araudia eta proposamenak egokitzen lagunduko duen izapide egituraren azpimarratu beharreko gainbegiratzeko beste fase bat ingurumeneko administrazio eskudunek gauzatuko dute. Administrazio horiek egiaztatuko dute haiek ingurumena ebaluatzeko prozedurara egokitzen direla. Horretarako, egokiak diren ingurumeneko adierazpenak eta memoriak emango dituzte. Halaber, proposamenak edo jarduerak burutzeko dokumentuen artean, bertan zehaztutako diren neurri zuzentzaileak, babesleak eta konpentsatzaileak, aurrekontuak eta Zaintza Plana galtzen ez direla zainduko dute.

Amaitzeko adierazi behar da obrak ere ez direla ahaztu behar. Izapidean finkatutako ingurumeneko erabakiak betetzen direla ikusi behar da eta obra horien ingurumen arloko jarraipen kualifikatu bat egin behar da.

8.5.- MUGA MAILAK EDO ERREFERENTZIAKOAK FINKATZEA

Planaren Gainbegiratze Programarako planteatutako adierazleen erreferentzia edo muga maila, Euskadiren urteroko ingurumen perfila ezagutzeko Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak erabilitako adierazleak izanik, egungo legediak eta inplikaturik dauden organismo bakoitzak bere aldetik formulaturiko eta finkatutako balorazioetara egokituko da, baita beren eboluzioetara.

Aurreko ataletan deskribatu den moduan, kasu honetan egoki ikusi da adierazle batzuk kontuan hartzea, burututako antolamendu ariketak eta Planean jasotako proposamenek duten eragin globala ebaluatzeko –ingurumenaren gaineko eragin orokorrari eta garapen iraunkorrari dagokionean–, eta, batez ere, Planean jasotako ingurumena babesteko neurrien birtualtasun maila neurtzeko.

Ikuskapeneko Programan iradokitako txostenek –hamabostean behin idatzi beharko dira– adieraziko dute azkenean azterketa honen xede den planaren komenigarritasuna, lortu nahi diren helburuekin alderatu ondoren.

9.- LABURPEN DOKUMENTUA

9.1.- KOKAPEN OROKORRA

Donostiako eremu funtzionalak Andoain, Astigarraga, Donostia, Errearteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbilgo udal-barrutiak hartzen ditu bere baitan. Hamahiru udalerri guztira. Lurralde Antolamendurako Artezpideetan (LAA) Donostiako Eremu Funtzionala da izen ofiziala.

376 km²-ko hedadura du eta lurralde horretan 400.000 biztanle pasatxo daude. Beraz, biztanleria-dentsitate handiko lurraldea da, gizakiak kokatzeko baldintza apartak dituen, klima atsegina, paisaia bikaina eta kokapen geografiko estrategikoa, Europako komunikabideen nahitaezko pasabidea da eta.

9.2.- LURRALDE PLAN PARTZIALAREN ETA BERE IIBE-REN IZAPIDE KOKAPENA

Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren izapidea 2002. urtearen amaiera aldera hasi zen, 2004-2007 tartean etenaldia izan zuen, eta 2008. urtean berriro jarri zen martxan. 2010eko uztailaren 16an eskuratu zuen hasierako onarpena.

2011ko maiatzean egin ziren hauteskondeek eta krisi ekonomikoak eragindako gogoeta prozesu baten ondoren, Lurralde Plan Partziala bideratzeko prozesuarekin jarraitzea erabaki da. Dokumentu eraberritu bat egin da berriro ere hasiera batean onartzeko eta jendaurrean jartzeko. Dokumentu horrekin batera IIBEren beste dokumentu berri bat aurkeztu da.

Azken dokumentu hori egiteko, 2008ko irailaren 24an Ingurumen Sailburuordetzak egindako *“Erreferentziako dokumentua”* hartu da kontuan, baita Ingurumen Sailburuordetzaren 2012ko ekainaren 12ko ebazpen bidez egindako *“Ingurumen inpaktuari buruzko aurretiazko txostena”* ere. Gainera, izapidetzeko garaian ebaluazioa egiterakoan, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 7.4. artikuluan eta xedapen iragankorrean ezarritakoa bete beharko da. Plan eta programa horiek honakoa zehazten dute: *“hasierako onarpena izan duten edo lehenbiziko onarpen administratiboa izan duten planak eta programak ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan ezarritako prozeduraren pean egongo dira”*.

2015eko martxoaren 27an hasierako onarpenerako agindua eman, eta berori martxoaren 30eko EHAA, apirilaren 10eko GAO eta maiatzaren 23ko BOEn argitaratu ondoren, honako izapidetze- eta partaidetza-egintza hauek gauzatu ziren:

- 2015eko apirilaren 15ean, herritarrei irekitako deialdian, Lurralde Plan Partzialaren dokumentua EHUko Carlos Santamaria Donostiako ikastegian aurkeztu zen.
- 2015eko maiatzean, azpieskualdetan elkartutako udalekin bilerak egin ziren: maiatzaren 7an, Urumearen azpieskualdeetan bildutako udalekin (Andoain, Astigarraga, Hernani) eta Oria behekoan bildutakoekin (Usurbil, Lasarte-Oria, Donostia); eta, maiatzaren 8an, Txingudiko azpieskualdeetan (Hondarribia, Irun) eta Oarsoaldekoetan (Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia) bildutakoekin.

- Ahalik eta parte-hartze handiena sustatzeko asmoz, dokumentuari hasierako onarpena eman ondoren, jendaurrean jakinarazteko epea zabaldu zen alegazioak aurkezteko, bai administrazio publikoen aldetik, bai herritar eta agente interesdunen aldetik. Hala, epea irailaren 15etik azaroaren 15era luzatu zen.
- Jendaurreko erakustaldian eta administrazioei entzuteko aldian, guztira 58 alegazio-eredu jaso ziren, eta Lurralde Plangintza eta Hirigintza Sailak horiek aztertu eta baloratu zituen.
- Aurkeztutako alegazioak xehetasunez aztertzeko asmoz, honako bilera hauek egin ziren Eremu Funtzionaleko udal bakoitzarekin eta Pasaiaiko Portuko Agintaritzarekin ere: 2016ko urtarrilaren 26a (Hernani, Astigarraga eta Oiartzungo udalak), urtarrilaren 28a (Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbilgo udalak), urtarrilaren 29a (Irun eta Hondarribiko udalak), otsailaren 2a (Erreenteria, Lezo eta Pasaiaiko udalak) eta otsailaren 3a (Donostiako Udala eta Pasaiaiko Portuko Agintaritza).
- Bestalde, erantzun eta kontuan hartzeko asmoz, jasotako txosten sektorial hauek aztertu ziren:
 - Sustapen Ministerioa. Garraio Idazkaritza Nagusia. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
 - Sustapen Ministerioa. Estatuko Portuak.
 - Industria eta Energia Ministerioa. Telekomunikazioetako eta informazio-gizarterako Estatuko Idazkaritza. Telekomunikazioetako eta informazio-teknologietako Zuzendaritza Nagusia.
 - Defentsa Ministerioa. Defentsa-azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia.
 - Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Ingurumeneko Estatuko Idazkaritza. Itsasertz eta itsasoaren iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia.
 - Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
 - Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua. Bide-azpiegituren Zuzendaritza.
 - Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Uraren Euskal Agentzia (URA).
 - Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Euskal Herriko Ingurumen Batzordea.
 - Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Euskadiko Garraio Agintaritza.
 - Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Landaberri.

Aurkeztutako alegazioak eta txosten sektorialak aztertu eta baloratu ondoren, dokumentu bat elaboratu zen non 2015eko martxoaren 27an hasierako onarpena lortu zuen dokumentuarekiko sartutako aldaketak jaso ziren.

Behin-behineko onarpena 2016ko martxoaren 3an ezarri ostean, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena. 2016ko maiatzaren 6ko datarekin, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Kontseilariordetzak "Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partziararen Ingurumen Inpaktuaren behin betiko txostena" osatzeko erabakia igorri du. Hori horrela, ondorengo sektore-txostenak jaso dira:

- Sustapen Ministerioa. Garraio Idazkaritza Nagusia. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
- Sustapen Ministerioa. Estatuko Portuak.
- Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Ingurumeneko Estatuko Idazkaritza. Itsasertz eta itsasoaren iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia.
- Defentsa Ministerioa. Defentsa-azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia.

Informe hauek aztertu eta baloratu ondoren, 2016ko martxoaren 3an onartutako dokumentuaren testu bateratua elaboratu zen; Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari behin betiko onar zezan helarazi aurretik.

9.3.- LURRALDE PLAN PARTZIALAREN PROPOSAMEN NAGUSIAK

Planaren jardun esparrua bat dator Donostiako Eremu Funtzionalarekin (Donostialdea - Bidaso Beherea), EAE osorako Lurralde Antolamendurako Artezpideetan ezarritako lurralde-azpibanaketaren arabera. 16 urteko iraupena du eta honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan:

- Eremu Funtzionalaren ingurune fisikoaren antolamendu orokorreko proposamena.
- Mugikortasun Ereduaren Eskema Orokorra finkatzea eta honi loturiko esku hartzeko hainbat aukera posible adieraztea.
- Uraren ziklo integralari eta zerbitzu azpiegiturei buruzko proposamenak.
- Hiri-ingurunearen antolamendu orokorra, ibai korridore hiritarrak, hiriarteko eta hiri inguruko parkeak, izaera estrategikoko eremuak, eta bizitegi lurzoruen eta jarduera ekonomikoaren dimentsionamendu orokorra.
- Ekipamendu komunitario orokorrari buruzko proposamenak.

9.4.- GAUZATUTAKO INGURUMEN EBALUAZIOAREN SINTESIA


Abiapuntuko ingurumen irizpide estrategiko gisa, Lurralde Plan Partzialak hamar arau ezarri ditu. Arau horien artean Garapen Iraunkorrerako Ingurumeneko Euskal Estrategian eta indarreko Ingurumeneko Esparru Programan ezarritako irizpideak barne hartzen dituztenak azpimarratzen ditu. Horiez gain, Lurralde Plan Partzialak ere bere gain hartu ditu indarreko ingurumen legeria, hierarkikoki goragoko planak, aplikatzekoak dituen arloko planak erregulatzeko araudia eta antolamendua, eta administrazio eskudunek ingurumen mailan sustatutako hainbat programa.

Eremu Funtzionalak bere barne hartzen dituen ingurumenaren aldagaien analisiaren, diagnostikoaren eta balorazioaren ondorioz, ingurumen arloan homogeenak diren hiru espazio unitate nagusi ezarri dira. Ondorengoak dira:

- a) Ingurune naturala lehentasunez babestu eta kontserbatzeko esparruak.
- b) Landa ingurunea eta lehen sektoreko jarduera nagusi dituzten esparruak.
- c) Hiri-multzoak eta hiri inguruko landa lurzorua.

Aurreneko biei buruz, Lurralde Plan Partzialak antolamendu bat egiten du, eta bertan dauden baliabide fisikoek, naturalek eta paisaiari lotuek erreferentziako aktiboa osatzen dute, eta gaur egun kasu askotan ez duten babesa ematen diete. Lurralde ia % 75a hartzen dute (276 Km²) eta figura hauek osatzen dute (ikus erantsitako 1. figura):


- Oinarrizko zonifikazioa
 - Babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzorua.
 - Ibai korridoreak.
 - Landa habitata eta/edo hiri inguruko esparru berdeak finkatzeko babes bereziko lurzorua.
 - Hiri inguruko landa lurzorua.
- Antolamendu xehatua
 - Hiriarteko landa parkeak.
 - Hiri inguruko landa parkeak.
 - Nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoak.



Ingurune Fisikoaren Antolamenduaren 1. figura

Hiri-multzo eta hiri inguruko landa lurzoruetarako, Lurralde Plan Partzialak antolamendu hau planteatu du (ikus erantsitako 2. figura):

- Hirigintza Garapeneko Esparruak Lurralde Plan Partzialaren horizontean.
- Ibai korridore hiritarrak.
- Hiri inguruko landa lurzorua.
- Izaera estrategikoko eremuak



Ingurune Hiriaen Antolamenduaren 2. figura

Kasu honetan, Lurralde Plan Partzialak okupazio mailak, gehienez, 70,3 Km² arte handitzea aurreikusi du. Hortaz, gaur egun duen % 15tik % 19ra pasatuko da haren artifizializazio indizea.

Gehikuntza hori, ia osorik, “Izaera estrategikoko eremuetan” eta “Beste proposamen batzuk” deitutakoetan eman denez, eremu horietara bideratu da ingurumen ebaluazioa.

Inpaktuen identifikazioa egin da, kasurako “Donostiako Eremu Funtzionaleko (Donostialdea - Bidasoa Behera) Lurralde Plan Partzialaren IIBerako erreferentzia dokumentuak” emandako erabakien arabera. Hura sailkatzeko, berriz, indarreko legeria hartu da kontuan. Erabakiak honako hauek izan ziren:

- Natura 2000 Sarean eragina
- Faunan eta floran eragina, onartutako kudeaketa planekin
- Faunan eta floran eragina, onartutako kudeaketa planik gabe
- Tokiko landaretzako zuhaiztietan eragina

- Balio estrategikoko handiko lurzoruetan eragina eta nekazaritza produktibitatearen galera
- Paisaiaren gaineko eragina
- Akuiferoen gaineko eragina
- Artifizialdutako lurzorua gehitzea
- Kontsumoen (ura, energia) gehikuntza
- Hondakin gehiago sortzea

Horrela, bi ingurumen inpaktu LARRI lortu dira; bata “Lezo-Gaintxurizketa korridoreko izaera estrategikoko eremurako”, batez ere, toki horretan giza jarduketan bitartez baliabide naturalek oraindik izaten jarraitzen duten oreka ahulari esker, batez ere; eta bigarrena “Bestea proposamen batzuetarako”, batez ere jada finkatuta dauden apustuekin lotuta eta, zenbait kasutan, eremu haien derrigorrezko ingurumen azterketen mende.

Kontuan hartutako izaera estrategikoko gainerako eremuetarako ingurumen inpaktua NEURRIZKO gisa kalifikatu da: “Lasarte-Oria, Zubieta eta Aritzeta gainak”, “Urumeako korridorea”, “Pasaia badiak” eta “Txingudi”.

Sailkapen horien arabera, egokiak diren neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak eman dira, eta Plana zaintzeko eta gainbegiratzeko programa bat gehitu dute, Plana garatzen denean bertan ezarritako ingurumeneko helburuak lortzen direla kontrolatzeko.

Dena dela, burututako ingurumen ebaluazioak ez du Lurralde Plan Partzialaren izaera erregulatzailearen eta arautzailearen ikuspegia galdu, eta burutzen ari den plangintza faseari laguntza ematen dio, eta ez bere ondorioz aterako diren esku hartze proiektu bakoitzari edo dagokion ingurunearen gainean jarduketa zuzen bakoitzari. Lurralde gainean esku hartzeko ekintza espezifiko berriak planteatzen dituzten programen edo proiektuen eginkizuna izango da. Horietan inpaktuak identifikatu eta ebaluatu beharko dira eta, hala badagokio, definizio maila handiagoarekin, haiei dagozkien neurriak ezarri beharko dira.

10.- DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

Ondores, mapen zerrenda jasotzen da. Guztiak 1/100.000 eskala aurkeztu dira, nahiz eta inpaktu eta afekzioala ebaluatzeko lurralde kartografiaren gaingarpenaren lana 1/35.000 eskalan burutu den, Lurralde Plan Partzialaren planimetria oinarriarena:

Nº 1.- INGURUNE NATURALA

LITOLOGIA

Nº 2.- INGURUNE NATURALA

GEOMORFOLOGIA. UNITATE FISIOGRAFIKOAK

Nº 3.- INGURUNE NATURALA

EDAFOLOGIA. UNITATE KARTOGRAFIKOAK

Nº 4.- INGURUNE NATURALA

LANDAREDI UNITATEAK

Nº 5.- INGURUNE NATURALA

FAUNA INTERESEKO EREMUAK

Nº 6.- INGURUNE NATURALA

PAISAIA UNITATEAK

Nº 7.- KULTURA ONDAREA

ESTAZIO MEGALITIKOAK

Nº 8.- BALIO HANDIKO INGURUMEN BALIABIDEAK ETA PLANAREN PROPOSAMENEN GAINJARPENA (2 PLANOAK)

EGILE TALDEA

Zuzendaritza, koordinazioa eta lurralde-antolamendua

Alberto Zabala. Arkitektoa. IKAUR

Garraioak, komunikabideak eta azpiegiturak

Miguel Salaverria. Bideetako ingeniaria. IKAUR

Amaia Salaverria. Bideetako ingeniaria.

Ingurumen-azterketa eta inpaktuen ebaluazioa

Reyes Monfort. Biologoa.
